



LURRAREN EGUNA URRIAREN 23AN

Bi urteko geldialdiaren ondotik, igande honetan egingen dute Beran XXXIV. Lurraren Eguna. Eskulagileen eta ekoizleen azoka eta erakusketa, musikarien kalejirak, gasna eta sagardo lehiaketak... Egun osoko besta izanen da. Bezperan ere hainbat hitzordu antolatu dituzte. / 14

Senpereko ikastolak 51 urte

1971ko irailean sortu zuten Zaldubi ikastola eta urteurrena gogoan besta eguna izanen dute urriaren 22an. / 12

SINADURAK



43 urteren ondotik Xalbador Madariaga akordeoi irakasleak erretiroa hartu du / 8



Lesakako Udalaren gradu bukaerako beka Irantzu Goienetxerentzat / 17

Independentzia Eguna antolatu dute azaroaren 5ean Leitzan / 42

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoa Elizondon / 48



ZOZKETA / 72

BERA

LESAKA

Agenda

2022

URRIA

AZAROA

www.berakoagenda.eus

www.lesaka.eus

LESAKAKO UDALA

22 | **KIROLA LIZUNIAGAKO IGOERA**

LABONBATA

17:00 - Luzeera: 4,9 km

Izen-ematea: Lamotensan edo kiroprobak.com

Antolatzailea: Gure Txakoa elkarte

BERA

22 | **LIBURU AURKEZPENA BERA (Pablo Salgado Mendez)**

LABONBATA

Berako musikariren inguruko liburua

19:00 Kultur etxean

BERA

23 | **LURRAREN EGUNA**

IGANDIA

Eskulangileak, ekoizleak, bertsolariak, barazki eta fruitu erakusketa, taloak...

Antolatzailea: Gure Txakoa elkarte

BERA

27 | **LIBURU AURKEZPENA ISILDUTAKO ESQUAK Jon Abril**

ORTZEGUNA

18:30 Liburutegian

LESAKA

29 | **MERKATUA MERKATU TTIKIA**

LABONBATA

10:00 Behoko Plaza

LESAKA

29 | **MUGALARREEN HITZARMENA**

LABONBATA

12:00 Lizuniagako Mahain barrian (Sara eta Bera artean: 36. mugaria)

Herri sinatzaileak: Bera, Itxalar, Azkaine, Biriato, Sara eta Urretxin udalak

BERA

29 | **SENDABERRI, ANTZERKIA ERREGE BCGIBAKARRA**

LABONBATA

INEXTREMIS TEATRO & TANTAKA

19:00 Kultur Etxean

Sarrerak: 7€

BERA

30 | **ANTZERKI-ZIRKOA ARGAKO ERREGINA**

IGANDIA

19:00 Harriondea Kultur Etxea

Sarrerak: www.lesaka.eus

LESAKA

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicitate

PANELAK-TOTEMAK

INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturekin edo gabe

Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta materialen aukerak

ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta itaunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan

PVC
Forex panelak
Arinak eta itaunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan

METAKRILATO
Gardenak eta opakuak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

ROLL-UP

ROLL-UP
Garralo poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

AZIDOAK

ELEKTROSTATIKOAK

GARDENAK

MIKROBENTOSAK

MIKROPERFORATUAK

POLIMERIKOAK

GAUZA GEHIAGO

OLANAK

PEGATINAK

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

2 ttipi-ttapa | 816. zk. | 2022-10-20



NIRE TXANDA

IZASKUN IGOA JAIMERENA

Esperientziak erosi

Duela hilabete bat seguruenik akituko ez dudan bertze liburu bat erosi nuen. Ez da ez lehenbizikoa ez azkena izanen, segur aski. Giblean Zizek-en hitz batzuk ageri ziren egungo merkatuari buruz ohar hauxe eginik: egun, ez omen ditugu objektuak haien erabilgarritasunagatik erosten, gaur egun esperientziak erosi nahi ditugu; guran esperientzia bat sortuko duen zerbait. Eta nola ailegaten da bat esperientzia bat erosi edo esperientzia bat salduko duela pentsatzera?

Eguneroko gertakizun ttipienetatik sortzen da gure esperientzia, eta aldi berean, gure eskarmentutik abiatuta begiratzen diogu gure eguneroko bizitzari.

Batzuek denik eta bizitza xumeanean aunitz dutela sentitzen dute, bertze batzuek berdin du nolako esperientzietan ibili, beti zerbait falta dutela. Zenbaitzuek bien artean ere egon behar dute nonbait.

Liburuetan ageri ez den emakume bati aditu nion behin: aise gutiagorekin, aise asebetago sentitu behar genukeela. Aise gutiagorekin, aise gehiago.

«AISE GUTIAGOREKIN AISE ASEBETEAGO SENTITU BEHAR GENUKE»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Udazken koloreak bizi-bizi

Oraindik turismo bulegoetan udako balantzeak bukatu gabe dituztenean eta behatz arteko hondarra eta kokotzpeko eguzkitako krema kendu gabe dugunean hasiak zaizkigu dagoeneko orbelpean onddoak eta gaztaina morkotsak agertzen eta usoak hegoalderatzen. Ohartu orduko Eguberrietako argiak piztuko zaizkigu, urteko zirimola bizian.

NABARMENTZEKOAK



MIKEL NIEVE
TXIRRINDULARIA



IRANTZU GOIENETXE
IRAKASLEA

Hamabost urtetako txirrindularitza ibilbideari amaiera eman dio Mikel Nievek. Ez du nahi bezalako agurra egiterik izan, azken lasterketan erori eta ez baitzuen bukatzerik lortu.

Lesakako Udalak banatu duen Gradu Amaierako lanen beka lortu du Irantzu Goienetxe lesakarrak. Gurasoen banaketak haurren errendimenduan duen eragina aztertu du.

GIBELERA BEGIRA



2012-10-18 · TTIPI-TTAPA · 576 zk.

Narbarteko Sukil Etxenikerekin solasean

«16 urteko mutil bat, itsua eta lan egiteko prest dagoena». Halaxe aurkeztu zion bere burua TTIPI-TTAPAri duela 10 urte Sukil Etxenikerekin. Hiru hilabete zituela gelditu zen itsu, eta ikusmena ez zuela inoiz faltan bota kontatu zuen: «Ni ez naiz oroitzen nolakoa den ikustea, eta ez naizenez oroitzen, ez dut falta hori asko sumatzen». Bertzeak bertze integrazioaz ere mintzatu zen: «Bi faktore hartu bera dira kontuan: inguruak jendeak zer egiten duen eta itsuak berak egiten duena. Inguruko jendea prest badago, eta itsua saiatzen bada, integrazioa egonen da. Nik nire inguruan suertea izan dut. Laguntza behar dudala nabaritzean ematen didate, eta nerori ere saiatu egiten naiz. Badakit jendea non dagoen eta beraiengana joaten naiz».



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garmio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztekoa
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 42€
Leitza 33€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 98€
Amerika eta Australia 147€





KOLABORAZIOAK

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Vianako printzea edo apoa?

Haurtzaroan, printzea ipuin askotako protagonista da, hasiera batean, apo itxuraz aurkezten zaiguna eta muxu emanez gero, printze bihurtzen dena, ametsetako printze ederra (gora berdintasuna).

Historiari dagokionez, Vianako printze/printzesa Nafarroako Erresumako oinordekoak duen titulua da. Karlos III.a Nobleak sortu zuen Karlos bere bilobarentzat.

Baina Nafarroan badaukagu Vianako Printzea edo 'Principe de Viana' delako erakunde bat. Vianako Printzea erakunde Nafarroako Foru Komunitateko kultura erakunde bat da, 1940an Nafarroako Foru Aldundiak sortua eta gaur egun ere indarrean dagoena. Nafarroako kultura ondarea kontserbatzeaz arduratzen da, bai eta ondare hori zabaltzeaz ere, besteak beste, *Vianako Printzea* aldizkarian, *Trabajos de Arqueología Navarran*, *Fontes Linguae Vasconum* edo *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarran*.

Baina honek zer ikusteko du gurekin? Herrietako biztanleekin? Ba, uste baino gehiago. Gure bailara zoragarri honetan ditugun eraikin gehienak Vianako Printzea erakunde honek katalogatuak ditu hainbat mailatan eta nolabaiteko erroldan sartzan dituzte gure arbasoek sortutako eraikinak, inolako alde zuzeneko abisurik gabe. Errolda horretan sartuta

«NAHASTEAK GURE ERAIKINETAN HOBKUNTZAK EGITEN HASTEAN»

egoteak izugarriko nahasteak dakartza gure eraikinetan hobekuntzak egiten hasten garenean batez ere.

Demagun nire etxeko teilatua konpondu nahi dudala, eta, aldi berean, ganbara biharko eguneko

etxebizitza bezala egokitu, seme-alabek non bukatuko duten ez dakidalako (logikoa, ezta?). Lehenengo pausoa arkitektoarengana jotzea da, proiektu bat prestatu, udaletxean aurkeztu, eta hemendik, etxea katalogatua dagoenez (gure zonaldeko gehienak bezala), Vianako Printzea erakundera bideratzen dute. Hortik aurrera, ODISEA dator.

Proiektua atzera botatzen dizute behin baino gehiagotan, bulego batean eserita dagoen pertsonak ez duelako gustuko (ez du horrela esaten baina ondorioztatzen dena da); proiektu eraldatua hara, proiektua hona, denbora eta dirua gastatzen, eta zertarako? Baimenik ez lortzeko baldin eta bulegoan eserita dagoenaren gustukoa ez bada.

Etxe hauek inbertsio handia eskatzen dute eta bertan inbertitu behar den diruarekin, hirian pisu bat eros daiteke inolako zalantzarik gabe, eta horrek, berarekin dakar herrietako gaur egungo errealtate bat, herrien hustea, benetan kezagarria!

Nafarroa osoko halako eraikinak ditugun pertsona guztiak egoera berean gaude. Zergatik ez dira mankomunitate guztiak elkartzen eta elkarrekin indar egiten malgutasuna eskatzeko erakunde honi? Hemendik ideia hau luzatzen diet Nafarroako mankomunitate guztiei, gure herri txiki hauek bizirik jarraitzeko, ea benetan Vianakoa printzea den eta ez apoa.



MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

Joseba Urrotzi erantzuna

Jarraitzen dugu bonbardaketekin munduan eta bonbardaketekin komunikabideetan. Mendebaldeari (mendebaldeak berak) sinetsarazi nahi digute bonbak soilik Errusiak jartzen dituela eta bera dela ezbehar guztien errudun. Inflazioa % 10etik gora dagoela? Zerbitzu publikoen kalitatea okertzen ari dela? Gazteen artean –batez ere– osasun mentalekin lotutako arazoak eta pilulen kontsumoa areagotzen ari direla? Eraso matxista berri bat bestearen atzetik eguna joan eta eguna etorri? Faxismoa hedatzen ari dela? Galderen zerrenda amaigabea dugu eta batzuek galdera guztien erantzuna Putinez moztutako digute. Beste batzuek, progresistagoek, oligarkiaren eta multinazional handien ankerkerian jarriko dute arreta, burujabetza eta demokrazia tasa handiagoak aldarrikatuz.

Hemen inguruan bizimodua gordintzen ari bada, pentsa dezagun une batez zer gertatzen ari den hegoalderago. Begiratu 'Gosearen mapa' Interneten. Kolore biziagoz ageri dira herrialde batzuk, batez ere Afrikan. Janaria eta ura izanik oinarrizko beharretan oinarrizkoenak: nolakoa izanen ote da gose eta egarri denaren bizitza? Krisialdi garaietan periferiak sufritzen du gehien eta ez da telebistan aterako, ez daitezen kontzientziak gehiegi astindu.

«GERO ETA GEHIAGOK USTE DUGU ONA DELA KOMUNISMOA»

Bai hemen, baita lurreko esferaren tokirik urrunenean ere, bada modurik zorientasun orokorra esponentzialki handitzeko. Ez da utopia, etorkizun askatzaile posible bakarra da eta komunismoa esaten zaio.

Orain ere aliantza santuan batu dira (eskuin mutur faxistenetik ezkereraino) komunismoaren aurka bi pertsona mota: etikatik gutxi dutenak eta komunismoaren inguruko ezagutza okerra dutenak. Horietako bat dugu Joseba Urrotzi, aldizkari honetan idatzi zuena maiatzeko bigarren alean, «komunismoa zer den gehienok ez dakigu» esan ostean astakeria dezente bota zituena.

Komunismoan ez du «aita estatuak» gobernatuko, baizik eta herritarrok (langileriak). «Bakoitzaren askatasuna» eta «gure lanaren fruitua eskuratzea» errealtate izateko aukera hain zuzen komunismoak ekar dezake. Noski zaila dela benetako burujabetza egikaritzea, hori da komunismoa: burujabetza erreala, demokrazia erreala, zapalkuntzarik eza, aberastasunaren ekoizpen eta banaketa etikoa. Har dezagun gaia dagokion seriotasunez. Bide batez, «estatu sozialismoa» deitzen diozu estatu kapitalismoari.

Gauza batekin nator bat: komunismoa «gero eta gehiagok ona dela uste» dugula. Gero eta jende gehiago antolakuntzara batzean dago gakoa eta espero dut hala izaten jarraitzea. Eskerrak baden jendea han eta hemen lanean, esperantza eta ilusioa egunero pizten.

11 GALDERA LABUR

JULEN URRUTIA TELLETXEA ARRAIOZKO GAZTEA

«Aizkorarekin dudan helburua disfrutatzea da»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Lagunekin egotea eta kirola egitea gustuko duen gaztea naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunak batez ere ehiza eta kirola egitea dira.

Zein kirol egiten dituzu?

Hainbat kirol egiten ditut: tenisa, errugbia, herrikirolak... azken urtean errugbian pixka bat aritu naiz eta gehienbat herri kirol munduan sartu naiz, aizkorarekin eta arpanarekin. Gehien gustatzen zaidana aizkora da.

Nondik heldu zaizu herri kirolekiko zaletasuna?

Familiari esker ezagutu dut kirolen mundua eta batez ere herri kirolak, bai aitak eta bai osabak erakutsita.

Noiz eta nola hasi zinen aizkorarekin?

Aita pentatloierako aizkorarekin hasi zen pixka bat eta ikusi nuenean nik ere probatu nahi izan nuen. Auniz gustatu zitzaidan eta aitari eta Julen Kañamaresei esker segitu ahal izan dut.

Eta arpanarekin?

Baztango Rugby Taldean jokatu izan dut eta errugbikoei Nafarroako Kirol Jokoetako ekipo bat osatu genuen, herri kirolean aritzeko. Bertan ni arpanarekin aritzen nintzen. Gainera, etxean ere aita eta osabak arituak dira eta horrek ere animatzen nau.

Txapelketetan parte hartzen duzu?

Bai, txapelketa bat baino gehiagotan parte hartu izan



dut. Berriki arte Nafarroako Kirol Jokoetan hartu izan dut parte eta aurten, horrez gain, aizkora hiru garren mailako txapelketan atera nitzin, baita kadeteetako arpana txapelketan ere.

Zenbatean behin eta zenbat denboraz entrenatzen zara?

Normalean astean bi edo hiru egunez entrenatzen naiz eta ordu erdiko edo ordubeteko saioak egiten ditut.

Herri kirolekin bete nahi duzun helbururik ba al duzu?

Aizkora nire helburua disfrutatzen dudan bitartean aritzea da. Ametsa, berriz, egunetik egunera nire lanak hobetzea eta hemendik urte batzuetara pentatloian parte hartzea.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Herri kirolean hobetzen segitzea.

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Hobetzea eta kirolaz disfrutatzea.



Bilduma berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Oharra

TTIPI-TTAPA

Duela bi aste TTIPI-TTAPAK eskolaldi jarraituari eta zatituari buruz argitaratu zuen erreportajea, honela agertu zen: «Arantzako eta Igantziko eskolak jardunaldi zatituarekin ari direnez, ezin izanen dute Etxalarko eskolakoekin elkartu, honek jarraitua baitu». Horri lotuta TTIPI-TTAPAK argitu nahi du eredu diferentea izanagatik kanpaldiak, topaketak eta berteze hainbat ekintza hiru eskolek elkarrekin eginen dituztela.

BOTA BERTSOA

ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

LESAKAKO BERTSOLARIA

BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER

LEHIAKETAN D MAILAN 1. SARIA

Amore ematea ez da aukera bat

Doinua: Duela hogei urte



*Nire istorioa
nahi dizuet aipa
Berrogeita bortz urte
sasoiko, alai ta
sentibera, alaba
eder baten aita
Bizitza bakarra ta
beldurrak hamaika
minez zerua ere
infernua baita (bis)*

*Nahiz mediku txostenik
ez nuen oraino
mina sartuta neukan
hezurretaraino
Moralak hankapean
pilulez goraino
Baina ze paradoxa!
Diagnosia, ño,
mingarriagoa da
oinazea baino! (bis)*

*Argi neukan bizitza
iluntzeaz zela
Ez zen errubeola
ez zen barizela
Euskaraz AEA ta
gaztekeraz ELA
Iristen da kondena
bikoitza bezela
heriotza zigorra
dakarren kartzela (bis)*

*Ta goizero gauzatuz
joan da inguma
Egungo izanen
ez den gau iluna
Zentzuen ezgaitzea
aulki gurgilduna...
Hau delako gaur egun
gaitz dakiguna
ekartzen duena ta
lapurtzen diguna (bis).*

*Saminduraren lokatz
putzutan iraulka
zenbatek ez ote du
etsitzea hauta!
Nik aldiz, nahiago dut
kometaren pautak
Hasmentan zutitzeko
zaittasunak dauzka
baina hegan egiten du
haizearen aurka (bis)*

*Sarri errepikatzen
da hutsegitea,
ezkortasunerako
daukagun jitea
Bizitza ez da bete
behar den tramitea
Gorputzak erakusten
badu limitea
ez baimendu buruak
berdin egitea (bis)*

*Baina lortu nahi bada
mina arintzea
komeni da laguntza
biltzen aritzea
Osasungintzan baina,
nolako klitxea!
Soilik eskatzen dugu
duin bizitzea
ta ondolik nola hil
erabakitzea (bis)*

*ELAK hilobiratzen
badu ondorena
xorrota ixtea da
goikoen ordena
Protesta zabaltzeko
heldu zait orena
Agintarientzako
beti da problema
ahotsa galdu arren
ozen mintzo dena (bis)*

*Zurikeria baita
gurean nagusi
geroa beltz dugunoi
erraztasun gutxi
Artean, gu sufritzen
ubeldu ta guzi
Nahiz gaitzaren "marroia"
gure kargu utzi
oraindik ez dut inor
gorritzen ikusi (bis)*

*Makinez hornitzeko
makina bat mezu
Gortasunaz haserre
sortasunaz kexu
Lurrun bihurtutako
zenbat konpromezu!
Zuk ere salaketa
bultza dezakezu
Nik ezin dut mugitu,
mugitu zaitez zu! (bis)*


*Kanpotik gehitu arren
gaitz bameko trabak
umeldu arren begi
eta begiradak
Dekadentzia sasoi
bizi dut erabat
Lehen unetik eskatu
bezela alabak
«amore ematea
ez da aukera bat» (bis)*

Zaindu maite duzun hori...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Botila ardoa' edo 'ardo-botila'?

Bi formak zuzenak dira, baina ez dira gauza bera. Honela bereizten dira:

'Botila ardoa' (edo botila bat ardo) formak kantitatea adierazi du, neurria; alegia, 'zenbat ardo' adierazten du, botilan egon edo ez. Bere egitura hauxe da: zenbatzailea + neurri-izena + gaia: bi botila ardo, bortz kilo sagar, sei metro soka, baso bat ur...

Botila ardoa edan du / Botila bat ardo edan du.
Bi botila ardo hustu ditu.
Bi botila esne isuri ditu umeak.

Eta 'ardo-botila' formak 'zer' adierazten du, ontzia, alegia. Izen-elkarketa normal bat da.

Sagardo-botila berdea izaten da.
Ardo-botila sagardoz bete du.

Hona hemen adibide gehiago:

bi baso ur (zenbat; edukieraz ari da) ≠ bi ur-baso (zer; ura edateko ontziaz ari da)
lata bat garagardo (zenbat; edukieraz ari da) ≠ garagardo-lata bat (zer; ontziaz ari da)

'Zenbat', edo zehazkiago 'zenbat zer' adierazi nahi bada <zenbatzailea + neurri-izena + gaia> egitura erabili behar da:

Bota baso(kada) bat olio! Bota baso bete olio > *Bota olio-baso(kada) bat.

Bi dozena porru eman zizkion > *Bi porru dozena eman zizkion.

Lau kilo laranja erosi ditut > *Lau laranja kilo erosi ditut.

Atera, faborez, baso bat ur > Atera, faborez, *ur baso bat.

Zenbat balio du hiru litro urek? > Zenbat balio du *hiru ur litrok?


Bertzetik, prezioaz ari garelarik, neurri-unitatea aipatzean, <zenbatzailea + neurri-izena + gaia> egitura erabili beharrean, <gaia eta unitatea> batera aipatzea da nagusi tradizioan, bertzerik ere ikusten den arren:

Zenbatean dago azukre-kiloa? Zenbat balio du azukre-kiloa?

Kalkula ezazu zenbatean saltzen den patata frijitu kiloa.

Atzo 1,91 euroan zegoen gasolio-litroa.

Osatu erran zaharra



«Lehen jendeak aunitzez gehiago estimatzen zuten plazako musika»

XALBADOR MADARIAGA ALMANDOZ LESAKAKO AKORDEOILARIA

43 urtez Lesakako Musika Eskolako irakasle izan denak erretiroa hartu du. Solfeo eta akordeoi irakasle lanetan eta plazaz plaza musika jotzen egin duen ibilbideari erreposoa eman diogu

G. PIKABEA LESAKA

Aurtengoa ezohiko ikasturtea izaten ari da Xalbador Madariaga Almandozentzat. 43 urtez akordeoi eta musika irakasle izan ondotik, joan den ekainean hartu baitzuen erretiroa. Akordeoiarekin plazaz plaza ere urte azkarki ibilitakoa da, musika izan baita bere bizia. Erretiroa hartuta ere ez du bere musika tresna kuttuna alde batera uzteko intentziorik. Haurtzarotik hasita musikaren bueltan egin duen ibilbideaz aritu da TTPI-TTAPAREkin.

Arantzan sortua zara, zazpi urterekin Lesakara bizitzera joana...

Bai, Arantzako Zerrado baserrian sortu nintzen, eta urte bat nuenean, Artikutzara joan ginen. Sei bat urtez han bizitu ginen eta zazpi urterekin Lesakara etorri nintzen. Geroztik Lesakan bizi naiz.

Hortaz, arantzarra edo lesakarra?

Arantzarra naiz, hori ezin dut ukatu, eta beti gustukoa izan dut herria. Udan hamar-hambortz egunetarako amaren sortetxera, Erreneko bordara, joaten ginen uda pasatzera eta hagitz gustura egoten ginen. Geroztik Arantzara beti gustura joan naiz eta orain ere kinto besta egiten dugunean han izaten naiz. Baina gazte denborako lagunak Lesakan ditut.

Nolako haurtzarora duzu gogoan?

Artikutzako gauza batzuek oroitzen naiz, han nola aritzen ginen jostetan. Baloi batizatzen genuen, frontoi ttiki bat ere izaten zen, gauza haundirik ez genuen

izaten, eta lagunak edozein gauzarekin aritzen ginen jostetan. Arrantzan ibiltzea ere gustatzen zitzaidan, eta oroitzen naiz hurriz batekin attak kanabera bat egin zidala eta harekin ibiltzen nintzela. Debebatua izaten zen arrantzan ibiltzea eta administratzaileak behin baino gehiagotan erran izan zidan amuarrainik ez harrapatzeko». Eta noizbait bat

harrapatzen banuen, amuarraina kanaberatik kentzeko astirik hartu gabe lasterketa joaten nintzen etxera. Gero Lesakara etorri nintzen eta eskolan hemen ibili nintzen.

Etxean hartu zenuen musikarako afizioa. Kontatuko zeniguke?

Attak akordeoia jotzen zuen. Artikutzan ez zen deus izaten, eta neska batzuek dantzatzeko musika nahi izaten zuten eta

attak jotzen zuen. Nik, berriz, tomate poteekin batera bezala egina izaten nuen eta han aritzen nintzen berarekin.

Lehenbizi solfeoa ikasten eta gero akordeoiarekin hasi zinen, Lesakan...

11 urte nituenean solfeoa ikasten hasi nintzen Santiago Irigoienekin eta 12 urterekin akordeoia ikasten Pepito Iantziarekin. 17 urtera arte egon nintzen Iantziarekin. Baina titulua atera nahi nuen, eta horretarako kurtsoak egin behar ziren kontserbatorioan eta Mikel Bikondoa-rengana joan nintzen Donostiara. Bere akademian akordeoia ikasten aritu nintzen, azterketak nire aldetik egin nituen eta bertze ikasgai batzuk kontserbatorioan egin nituen. Horrela atera nuen akordeoi titulua.

Hasieratik garbi zenuen akordeoia ikasi nahi zenuela?

Bai. Solfeoa hagitz ongi hasi nintzen eta Santiago Irigoienekin instrumentuarekin hasteko erratan zidan. Halako batean

Xalbador Madariagarekin kontu kontari

Tekladun akordeoia edo botoiduna?

Botoiekin. Nire attak botoiekin jotzen zuen, eta bere akordeoiarekin hasi nintzen. Gainera, behatzak luzatu behar direnean hurbilago gelditzen dira botoiak. **Zenbat akordeoi dituzu?** Zortzi.

Akordeoi marka bat?

Lehenbiziko erosi nuena, Cooperativa Stradella.

Akordeoilari bat?

Hemengoan artean Enrike Zelaia nire idoloa izan da, eta kanpokoen artean Yvette Horner frantsesak hagitz ongi jotzen zuen.

Plaza bat?

Bakarrik jo izan dudanean Zilbetin eta alde horretan hagitz giro polita sortzen zen, baita Egozkuen ere edo Lakuntzan. Ultzaman ere jendetza biltzen erromeria bat izaten zen...



Inauterietan fraindarrekin.

Pieza bat?

Bat aukeratzekotan Enrike Zelaiaren *Txoko Maittea*.

Piezarik asmatu duzu?

Bat edo bertze, aunitz ez. Julian Retegiri himno bat egin nion eta letra Euzkitzek paratu zion.

Gustura ikasiko zenukeen instrumentu bat?

Gustukoena akordeoia eta pianoa ditut. Igual pianoa gustura ikasiko nuke hobekiago.

Eta ikasiko ez zenukeen musika tresna bat?

Ez dakit... Ez dut behin ere pentsatu. Ez dut gustatzen ez zaidanik.

Solfeoa edo akordeoia erakutsi nahiago duzu?

Biak gustura egin ditut baina diferenteak dira, bat taldeko lana da, bertzea bakarkakoa. Bakarkakoa ikasleak zenbat hobetu duen ikustean satisfazio handia sentitzen da. Taldean ari zarenean, zaila da denek beti ongi egitea. Solfeoa badakizu zeinek egiten ahal duen ongi eta zeinek ez. Belarri ona ez baduzu, intonatzeko zailtasuna izanen duzu.

Belarria berezkoa da edo egin egiten da?

Belarria batez ere berezkoa da, baina egin ere egiten da.

Akordeoia taldean edo bakarka?

Diferenteak dira, baina biak politik. Niri jotzea gustatzen zait.



Hamarkada luzez solfeo eta akordeoi irakasle izan da Xalbador Madariaga Almandoz, eta plazaz plaza ere aunitz ibilitakoa da. TTPI-TTAPA

bere txistu bat eman zidan, txistua jotzen ikasteko. Etxera eraman nuen, baina attari ez zitzaion gustatzen aunitz, eta ez nuen kasik deus egin. Segidan akordeoiarekin hasi nintzen eta akordeoiarekin segitu nuen.

Ikasketak bukatuta hasi zinen lanean?

Ikasketa guziak bukatu baino lehenagotik hasi nintzen klaseak ematen Lesakan. Orduan Jabier Igoak musika eskola sortu berria zuen, eta klaseak emanen nituen galdetu zidan. Hiru bat urte izanen zituen musika eskolak, instrumenturen bat edo bertze ematen ere hasia zen, eta hortik aparte, fabrikari lanean ari zen. Denetara ez zen ailegatzen eta orduan hasi nintzen, soldaduskatik etorri berritan, 22 urterekin.

Geroztik urte batzuk pasatu dira...

Bai, 43 urte egin ditut musika eskolan. Solfeo klaseak ematen hasi nintzen. Hasiara hartan Jabierrek [Igoa] instrumenturen batzuk erakusten zituen, tronpeta, saxofoia... baina ez zegoen

bertze instrumenturik, ezta piano bat ere. Akordeoia ere beranduago sartu genuen. Gaur egun, eskaintza aunitzez zabalagoa da.

Musika eskolaren ibilbidean, zein aldaketa nabarmenduko zenituzke?

Gaur egun musika eskolak duen martxarekin konparatuz, lehenago aski diferentea zen. Orduan Pablo Sarasate Nafarroako Kontserbatorioaren filialak ginen, eta nahitaez kontserbatorioko programazioa egin behar izaten genuen. Dena egin izaten genuen, eta hura bakarrik eman behar genuen. 1992an aldatu zen, LOGSE (Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) indarrean sartu zutenean. Ge-

«HASI GINENEAN AKORDEOIAREN BOOMA IZAN ZEN, GERO JAITSI ZEN»

rozitik diferentea da, orain musika eskola bakoitzak bere programazioa egiten du eta lan gehiago da. Horrez gain, garai hartan azterketek eta denek balio akademikoa zuten eta klaseak emateko manerak ere pixka bat diferenteak ziren. Orduan solfeoan astean hiru egunez ematen genuen, hiru ordu astean, eta orain bi dira, eta eman nahi den materia gutti goiti-beheiti igualtsua da. Solfeoan doinua, irakurketa, erritmoa, teoria, diktaketak eman behar dituzu, eta denetara ailegatzea zaila da.

Musika eskolako zuzendari ere izan zinen, eta ez Lesakan bakarrik...

Lesakako Musika Eskolan hamar urte izan nintzen zuzendari. Doneztebeko eta Olaztiko musika eskoletan ere ibili nintzen zuzendari lanetan.

Nolatan ailegatu ziren gonbitak?

Lehenbizian ez nintzen batere mugitu Lesakatik. Gero, ordea, akordeoi ikasleen kopuruak beheiti egin zuen, eta gustuko lekuak lortu arte probak egiten

hasi nintzen. Donezteben Iñaki Dieguezen ordezkapen bat egiten aritu nintzen, eta hark utzi zuenean berriz sartu nintzen. Tartean bortz urte Doneztebera joan gabe pasatu nituen, eta orduan hasi nintzen Olaztin. Gero berriz Iñaki Dieguezek utzi behar zuela eta, berriz hasi nintzen. Hiru musika eskoletan izan nintzen zuzendari.

Ikasle kopuruak beheiti egin zuela aipatu duzu...

Hasi ginenean booma izan zen, izugarriko jende pila apuntatzen zen solfeo ikasteko. Bizpahiru urte urtero 35 ikasle apuntatu ziren. Eta urte batean 35, hurrengoan bertze horrenbertze... Akordeoiarekin ere lauzpabortz urte fuerteak izan genituen, urtero 15-17 ikasle apuntatzen ziren eta hori hagitz aunitz da, ia ezinezkoa. Gero trikitixa goiti joan zen eta akordeoiaren booma jaitsi zen.

Akordeoiarekin lotu izan zaitugu normalean, baina pianoa jotzen duzu eta trikitixa erakusten ere aritu zara...





Xalbador Madariaga Harriondoa atarian. Gaur egun horixe da Lesakako Musika Eskolaren egoitza. Garai batean, Lesakako eskolan izaten zen. TTIPI-TTAPA

—> Bai. Pianoarekin Ekaitz taldearekin jotzen hasi nintzen hasi nintzen. Bi edo hiru kurso egin nituen. Trikitixa, berriz, bat erosi eta ikasten hasi nintzen, eta Lesakako, Doneztebeko eta Olaztiko musika eskoletan eman nituen klaseak. **Notekin, noski...**

Bai. Ematen du jendeak zenbakiarekin errazago ikasten duela. Ez dakit errazagoa den edo ez, niki ez dut zenbakiarekin ikasi eta niretzat notekin errazagoa da. **Zure erakusteko modua aldatu da urteotan?**

Pixka bat bai. Hasieran ez genuen ez pianorik ez deus, eta pianoa solfeoan laguntzeko tresna ona da. Instrumentuarekin, ordea, lehen bezalatsu aritu naiz. Klaseak beti banaka eman ditut. Eta titulua atera nuenetik irakaslerik hoberenekin ikastaroak egiten saiatu naiz: errusiarrekin, finlandiarrekin, italiarrekin...

Musika eskola eskolaz kanpoko jarduera da. Gaur egun aukera zabala dute eta nola ikusten duzu?

Gaur egun gauza aunitz egin nahi dituzte, baina egunak, lehenago bezala, 24 ordu ditu. Hori ez da aldatu eta zaila da hainbortze gauza dituztenean dena ongi egitea.

Zuk garbi zenuen...

Gure garaian ez zen eskolaz kanpoko jarduerarik izaten. Ni akordeoiarekin hasi nintzen eta horrekin segitu nuen. Gainera, baserrian bizi nintzen, eta kasik ez ginen herrira jaisten. Denbora aunitz pasatzen nuen akordeoiarekin. Batxilergoa egiten ari nintzenean, bazkalondoan hiru ordu laurdenez jotzen nuen, berriz eskolara joan arte. Solfeora, berriz, eskolako errekreio denboran joaten nintzen. 19:30ean eskolatik joaten nintzenean, afaltzeko denborabitarte, berriz akordeoia hartzen nuen, eta afalondoan eskolako lanak. Ez nituen behin ere biharamun goizera arte utziko. Nahiago nuen ohatzera berandu joan, baina lasai joan. **Plazaz plaza ere urte azkarki egingdakoa zara. Noiz hasi zinen?**

14 urterekin hasi nintzen, eta pixkanaka-pixkanaka herri pila batetik deitzen hasi ziren. Nire bizi guzira hola izan da. Hasi nintzenean ez nuen ez amplifikadore ez deus, akordeoiarekin bakarrik ibiltzen nintzen. Handik bi urtera Beti Jai taldeak amplifikadorea saldu behar zuela eta haiei erosi nien.

Lehenbiziko emanaldia non eman zenuen?

Urtezahar gau batean izan zen, Sunbillako Fonda ostatuan. Attakmotaan eraman ninduen, akordeoia bizkarrean. Lehenbiziko inauteriak Irurritako errekan izan ziren, eta bestetan, berriz, lehenbiziko herria Zilbeti izan zen. Lau egunetarako joan nintzen eta egun bat edo bi gehiago gelditu nintzen. Irurritako erreka inauterietan ere hala egin nuen. Hortik aitzinera gero eta gehiago deitzen hasi ziren, eta 18 urterako urtean ehun bat saio izanen nituen.

Urteotan plazako giroa aldatu da? Bai, bai, aldatu da. Hasi nintzenean, herri guzietan jendea

esperoan egoten zen. Hagitz ongi tratatzen gintuzten, orain baino aunitzez gehiago estimatzen zuten musika eta jendeak aunitz dantzatzenean. Denborarekin, teklatura, erritmo kaxa... Denak paratu genituen, baina hala ere, lehen baino aunitzez ere gehiago kostatzen da jendea mugitzea. Lehen jendeak bazuen gogoia; orain jendea zuk animatu behar duzu. Orain, orain bat gehiago zara, eta lehen ez. **Ekaitz taldea ere ezin dugu aipatu gabe utzi. Nola ailegatu zitzaizun taldean jotzeko proposamena?**

Gregorio Mitxelena taldeko akordeoilariak utzi behar zuela eta, niregana etorri ziren, eurekin jo nahi nuen galdetuz. Proba egiteko hasi nintzen eta esperientzia polita izan zen. Aldaketa ere sumatu nuen, ez baita bakarrik aritza bezala. Bakarrik joaten nintzenean, jo behar ez nuen denbora guzira bakarrik pasatzen nuen, eta buelta bat ematera joateko probesten nuen edo plazan norbait baldin bazen harekin egoten

nintzen. Taldea duzunean, aukera gehiago dituzu, eta jotzeko denboran ez zaude bakarrik. Denen artean egin beharreko zerbait da, eta elkar babesten da. Biak politikak dira.

Zenbat urte pasatu zenituen Ekaitz taldearekin?

24 urterekin hasi nintzen eta sei bat urte egin izanen nituen, 29 urte izan arte.

Hainbortze urtez anekdotak ere izanen dituzu...

Bai, bai... [irriz]. Ekaitz taldearekin herri bateko bestetan ginen. Egutero bazkaltzeko eta afaltzeko *xuri-beltzak* ateratzen zizkiguten, eta egun batean bokadiloak eta baloi bat hartu eta Leurtzara joatea pentsatu genuen. Hantxe joan ginen. Baina baloiarekin hasi ginenean, presara joan zitzaigun. Ni joan nintzen baloia eske, eta barrenera sartua bazen ere, harrapatzeko moduan nuen. Inguan hezetasun handiaz zegoen eta hanka paratu nuenean irristatu eta uretara joa nintzen. Nik igerian ez dakit eta ez dakit nola atera nintzen. Taldekideak etortzerako kasik idorrera aterata nintzen, baina kristoren soinuak ateratzen omen nituen... **Bertzalde, omenaldi polita egin zizuten maiatzaren 7an...**

Bai, sorpresa handia izan zen. Badira Lesakara sanantonetan etortzen diren Oiartzungo gaitero batzuk. Ba aurten, maiatzaren 7a baino hilabete edo hilabete eta erdi lehenago, akordeoilarion Whatsapp taldean Oiartzungo gaiteroek maiatzaren 7an Oiartzunera joanen ote ginen galdetu zutela idatzi zuten. Zerrenda egiten hasi ziren, eta saila apuntatu ginen. Eguna ailegatu baino egun batzuk lehenagotik, Mainer Goizuetari Oiartzunera joateko gelditu beharko genuela aipatu nion, eta berak, baietz, *Litri*rekin egin eta abisatuko zidatela nola joan behar genuen. Hurrengo egunean *Litri* nire etxera nire bila etorriko zela idatzi zuten. Dozena bat ardiarekin eta oilo batzuekin txabola bat izaten dut, eta bezperan, Aitziber ilobak biharamunean



Maiatzaren 7an omenaldi ederra egin zioten Madariagari Lesakan. PAKO SANCHEZ

lanak egitera bere atxa joanen zela erran zidan, ni ez joateko. Eta hurrengo goizean, maiatzaren 7an, gauza bera. Nik «09:00etan geldituak gara Oiartzunera joateko eta ordurako goiko buelta aisa egingen dut» erantzun nion. Halaxe egin nuen joan-etorria. Oiartzunera joateko ideiarekin, akordeoia malletan sartzen ari nintzenean, Mikel ilobak terrazara joateko eta joateko erran zidan. Terrazara atera eta akordeoi soinua sumatu nuen, eta bi egun lehenagotik urteak beteak nituenez, zorionak jotzeko kalejiran etorriko zirela pentsatu nuen. Baina ailegatu hasi zirenean, jende aunitz ikusi nuen, normalean biltzen ez den jendea, eta pankarta bat ere bai. Aitziber ilobak «Gaur probestu eta ongi pasatu, zure eguna da eta» erran zidan. Negarra etorri zitzaidan. Kalejiran gosaltzera joan ginen, eta trago batzuk hartu eta gero Oiartzunera joanen ginela pentsatzen nuen. Ez nuen imajinatu ere plazakoa.

«14 URTEREKIN HASI NINTZEN PLAZAZ PLAZA AKORDEOIAREKIN»

Gosaldu eta bueltan, plazara ailegaterakoan, Beñat Mitxelena ikusi nuen akordeoiaekin, bozgorailuak paratuak, eta plaza inguruan jendea. «Hemen ere badiagu zerbait» pentsatu nuen, eta hala izan zen. Beñatek pieza bat egin zidan eta hura jo eta partitura marko batean sartuta eman zidan. Gero bertso batzuk... eta bazkaltzera. Inondik inora espero ez nuen sorpresa izan zen, egun ederra eta polita. Lagun aunitz elkartu ginen, Enrike Zelaia bera, Iruñerriko akordeoilaria, ikasle ohi aunitz, familia... Kasik ehun lagun bildu ginen, tartean inondik inora espero ez nuen jende aunitz.

35 urteren ondotik, Ekaitz taldea ere bildu zen zure omenaldirako...

Bai, bai... Plazara ailegatu ginenean taldekide batzuk ikusi nituen, eta bazkaltzera joan ginenean konturatu nintzen bertzeak ere han zirela. Taldea berriz elkartzea eta eurek aditzea hagitz polita izan zen, oroitzapen aunitz ekarri zizkidan...

«MUSIKAK JENDE ETA TOKI AUNITZ EZAGUTZEKO AUKERA EMAN DIT»

Erretiroa hartu duzuetik aunitz aldatu da zure eguneroko martxa?

Lasaiago nabil. Lehen beti zerbait prestatzen aritzen nintzen. Aurten ez dut deus prestatu beharrik, eta espero dut entseatzeko denbora gehiago izatea. Ez naiz behin ere denbora ezin pasatuz egon. Beti harrapatu izan dut distraitzeko modua.

Kalejiratan ikusiko zaitugu?

Momentuz, bai. Bestetan eta inauterietan ez naiz lehenago bezala ibiliko, baina bazkariren bat edo zerbait baldin bada bai. Lesakatik kanpo inauterietan jotzeari aspaldi utzi nion, gero musika eskolako klaseak errekuperatzea ezinezkoa izaten zelako. Udan oporrak izaten nituen eta pandemia hasi arte segitu nuen. Pandemiarekin dena gelditu zen, eta hor utzi nuen. Geroztik deitu izan didatenean ezezkoa erran izan dut. Ez da 20 urterekin bezala, erritmoa galtzen da eta gogorragoa da. **Zer eman dizu musikak?**

Dena eman dit, nire bizia izan da. Jende eta herri aunitz eza gutzeko aukera eman dit, eta hori polita da. Musikari esker bertzela behin ere ailegatu ez nintzatekeen tokietara joan naiz, eta bertze tokietako ohi-turak ezagutu ditut. Aunitzetan urrutituen gara, baina hemen ere bada zer ikasi eta zer ikusi.

51 urte Senperen euskaraz irakasten

1971ko irailaren 20an sortu zen Senpereko Zaldubi ikastola. 50 urte bete zituen iaz, baina, larunbatean, urriaren 22an egingen dute urtebetetze besta. Ikastolaren hastapenez, egindako bideaz eta etorkizunaz mintzatu dira ikastolarekin harremana izan duten bortz lagun

A.LARRETXEA SENPERE

Urtebetetze borobila bete zuen iaz Senpereko Zaldubi ikastolak. 50 urte, mende erdia euskara eta euskaraz Senperen irakasten. Ospakizunak, ordea, aurtengo utzi dituzte, eta 51.en urtebetetzean ari dira 50 urteak ospatzen. Urriaren 22an egingen dute besta haundia, egun osoko egitarauarekin, baina horren aitzinetik TTIPI-TTAPAK ikastolak 51 urtetan izandako bilakaera kontatzeko elkartu ditu Henri Duhau ikastolako sortzaile, lehendakari eta buraso ohia, Mixel Lahetjuzan ikastolako buraso eta lehendakari ohia, Nahia eta Amets Lahetjuzan ikasle ohi eta gaur egungo burasoak eta Pantxika Fagoaga burasoa. 51 urte hauetan egindako bideaz, eta oraindik egitekoa dutenaz mintzatu dira, irribarretsu batzuetan, serioago bertzeetan.

Ikastolaren sortzea nolakoa izan zen kontatuz hasi da solasaldia. Duhau hasi da solasean: «Hiru hilabetez prestatu genuen ikastolaren irekitzea, ekainean edo hasi ginen mintzatzen. Nik berantago ireki nahi nuen nire semeak oraino ez baitzituen 2 urte eginak». Azkenean, ordea, urte hartan berean, 1971n ireki zuten: «Bertze ikastolak ikusten izana nintzen Arrangoitzen, eta segur nintzen ikastola behar genuela egin Senperen. Baina nola? Bildu ginen buraso andanatzeko bat, eta tokia behar zen lehenik atzeman. Sukalde bat utzi ziguten, eta zazpi haurretara

heldu ginen. Irailaren 20an irekitzea lortu genuen. Gure semeak irailaren 19an egin zituen 2 urte, eta irailaren 20an hasi ginen. Hura zen gazteena». Hasi eta berehala, jendea engaiatu zela oititzen da Duhau: «Abenduan berean

egin genuen lehenengo afaria eta ezin sinetsia da, 100 pertsona bildu ginen kasik».

Ikastolaren hastapena «zaila» izan zela du gogoan Duhauk, ez ordea, «bertze herri batzuetan bezain zaila». Horren gibelean Senperen



Ikastolako irakasle Delfine Dupant irakaslearekin 1973an. HENRI DUHAU



Zaldubiko ikasleetako batzuk aurtengo ikasturtean. PANTXIKA FAGOAGA

1971KO IRAILAREN 20AN SORTU ZEN SENPEREKO IKASTOLA

GAUR EGUN 120 IKASLE BAINO GEHIAGOK IKASTEN DUTE ZALDUBIN

ikastola sortu aitzinetik «aitzindari euskaltzaleak» egon izanak garrantzia ukan zuela uste du. Garai hartan zuten borondatea ere oroitu du: «Gure borondatea mugagabea zen, inork ez gintuen geldiaraziko. Izugarri atxikitzen genuen elkar». Hasiera hain zaila izan ez bazen ere, bidean «zernahi» sufritu dutela dio Duhauk, batez ere lehen urteetan izandako estigmatatik.

Ikastolara «dudarik gabe»

Berantago sartu zen ikastolan Mixel Lahetjuzan, eta bere kasuan ez zuen dudarik izan alabak ikastolara bidaltzeko. «Hastapenetik hasi nintzen laguntzen, eta niretzat naturala zen ikastolara bidaltzen haurrak. Ez zen dudarik, ikastolara joan behar zuten, eta kito», kontatu du. «Kanpora begira, jende batzuek lotura egiten zuten ikastola eta borroka armatuaren artean. Horrek pisua bazuen, segur. Baina, pixkanaka-pixkanaka, urtero kopuruak emendatzen ziren, eta ehun baino gehiago dira orain», dio Lahetjuzanek.

Hasieran ama ikastola zena, lehen mailako ikastola bilakatu zen 80 urteetan, eta bertan ikasi zuten Amets eta Nahia Lahetjuzanek, Mixelen alabek. Garai horietako oroitzen polita dute. Ametsek kontatu du: «Ikastola herriko etxean zegoen, eta buruan dut gela bakarrean egoten ginela lehen maila osoa. Talde ttipiak ziren oraingoekin alderatuta». Bereziki ikastolan burasoek zuten inplikazioa du gogoan: «Gurasoak oroitzen ditut taloak saltzen, herriko bestetan lanetan, botilak garbitzen, besta ondotik diru kutxa zenbatzen...». Inplikazio hori ikastolan ikasi dutela kontatu du: «Euskaraz bizitzen eta euskaraz ikasteaz gain elkarte engaiamendua eta militantzia ikastolan ikasi dugu burasoak nola engaiatzen ziren ikusiz», azaldu du.



Amets Lahetjuzan, Pantxika Fagoaga, Henri Duahu, Nahia Lahetjuzan eta Mixel Lahetjuzan Zaldubi ikastolaren kanpoaldean bestako afixak eskuan. TTUPI-TTAPA

Hasierako irakasle bakarretik egun 11 irakasle izatera pasa da ikastola, eta zazpi ikasle izatetik 120 baino gehiagora. Bidean, aunitz aldatu da bai ikastola bera, eta baita Seaskak ukandako zailtasunak ere. «Orain laguntzak baditu Seaskak, eta sentitzen da ez dela eroriko», dio Duhauk. «Beharrezkoak dira laguntzak, baina, jendea lokartzen da», hausnartu du. Ikastolaren emendatzeak, burasoen inplikazioan ere eragina duela uste du Nahia Lahetjuzanek: «Taldeak gero eta handiagoak izan beti izanen dira engaiamendu desberdinak. Gero eta gehiago izatean arriskua horretan izaten ahal da».

Kolegio berria Senperen

Heldu den urteetarako erronka garrantzitsua dute esku artean: Seaskako 5. kolegioa Senperen eraikitzea. Proiektua onartua dago jadanik, eta heldu den urteetan eraikitzea da asmoa. Ikastolarentzat «erronka handia eta beharrezkoa» dela azaldu du Fagoagak, izan ere gaur egun Zaldubiko bidea bukatuta osoki euskaraz ikasi nahi dutenek Ziburuko edo Kanboko kolegiara joan behar dute,

egunero joateko eta itzultzeko oren bateko bidaia eginez. Burasoek, ikasketekin segitzeko seme-alabek kanpora joan edo Senperen gelditze-ko erabakia hartu behar izaten dute orduan. «Herrian, gainera, bada kolegio elebidun bat euskaraz maila polita duena, eta buraso batzuentzat gaur egun erazagoa da lerratzea, eta Arretxera ikastera joatea», kontatu du Nahia Lahetjuzanek. Kolegioa herrian izanik, ikasle gehiagok osoki euskaraz ikasten segitzeko erabakia hartuko dutela uste dute.

Kolegio berria ezartzeaz gain, badute bertze erronkarik Zaldubin: euskararen erabilpena areagotzea. Alta, hori Senpereko arazoa eta «Euskal Herrikoa» da Nahia Lahetjuzanek hitzetan: «Ikastea ontsa da baina ez bada erabiltzen ikasteak ez du zentzurik. Aire hartzean frantsesez ari dira, kanpoan entzuten duten bezala, buraso gehienok ere

SEASKAKO 5. KOLEGIOA ERAIKIKO DUTE SENPEREN

frantsesera aintz lerratzen baikara», azaldu du.

Ikasleen profila aintz aldatu da ikastolan, eta horrek ere euskararen mailan eragina duela azaldu du: «Haur batzuen ama hizkuntza da euskara eta euskaldun heldu dira ikastolara, eta bertze batzuk batere jakin gabe. Lehen bertz euskaldun eta frantsesez mintzo zen bat ziren, eta orain, aldiz alderantziz. Ikastoletan kopuruak emendatzea ontsa da, baina, behar da segurtatu euskararen kalitatea eta erabilpena». Horrekin ados delarik ere, bertze puntu bat gehitu du Duhauk: «Ikastolan irakasten den euskara literarioa da, ez euskara mintzatua, hori etxean ikasten da».

Ikastolaren urtebetetzea

Egindako hori ospatzeko eta etorkizunerako indarra hartzeko parada izanen dute larunbatean ikastolako burasoek, ikasleek, eta irakas-

leek, baina, baita ikastolatik igarotako guztiek ere. «Egun biziki goxoa izatea espero dugu», kontatu du Fagoagak. Horretarako, eguna aperitifarekin hasiko dute 12:00etan eta ikastolak haurrek Pantxoa Carrerekin batera ariko dira kantuan. 13:00etan zikiroa izanen dute, eta arratsaldean haurrentzako jokoak eta puzgarriak izanen dira. 17:00etan Saltoka mutxikoak izanen dira, eta 19:00etan hasita taloak eta Basapiztiak eta Kaxkatu taldea, eta DJ Bullek alaituko dute besta. Sartzea eta joan etorriko taxia urririk izanen dira.

Mende erdian egindako bidea laburbildu du Mixel Lahetjuzanek. «Ez da sekula aski egin izanen, baina pixkanaka-pixkanaka bere tokia izan du ikastolak beti herrian. Hobekiago dira gauzak, baina, bada egitekoa oraino, ez gara guk nahi dugun neurri-ara arribatuak».

Eta nahi duten leku horretara arribatzeko lanean segituko dute auzolanean, euskara zabaltzen eta euskaraz irakasten, euskarak berak eta Zaldubi ikastolak Senperen presentzia handiagoa izan dezan.

EUSKARAREN ERABILPENA AREAGOTZEA DA ERRONKA

XXXIV. Lurraren Eguna ospatuko dute igandean

Larunbatean Lizuniagako Igoera egingen dute, eta Berako musikariei buruz idatziko liburua ere aurkeztuko dute

A.LARRETXEA

Bi urteko etenaren ondotik, berriz ere Lurraren Eguna ospatuko dute Gure Txokoa Elkarteak eta Berako Kultur Batzordeak. Igandean izanen da, baina, asteburu osoan izanen dira ekitaldiak.

Larunbatean, urriaren 22an Lizuniagako Igoeraren XLI. Edizioa egingen dute. 15:30ean ttikien txanda izanen da, eta 17:00etan hasiko da helduen lasterketa. Parte hartzaileek 4,9 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, lamotenean hasi eta Lizuniagaraino. Izena eman nahi dutenek bi aukera izanen dituzte: *pb-organisation.com* helbidean egiten ahal da lasterketa aitzinetik 5 euroren truke, edo bertzela lasterketa egunean berean 10 euroren truke.

Lasterketa hasi eta berehala, 17:30ean Bera Kantari eta Irats trikitilariak arduratuko dira karrikak alaitzeaz. Aurten, ez da ohiko arrautza opil lehiaketarik izanen, eta horren ordez 18:00etan Labiaga Ikastolako Areto Nagusiko erakusketa berriaren irekiera ekital-

dia izanen dute, eta ordubate beranduago, 19:00etan Kultur Etxean herriko musikariei buruz argitaratu duten liburua aurkeztuko dute.

XXXIV. Lurraren Eguna

34. edizioa beteko du aurten Lurraren Egunak igandean, eta urtero bezala eskulangileak, elikadura postuak eta barazkiak izanen dira protagonista. 10:00etan hasiko da azoka, orduan irekiko baitituzte postuak, eta baita, Olakoren erakusketa ere. Ordu horretatik aitzinera, barazki eta baserriko produktuak ikusteko aukera izanen da Merkatu plazan. Horretarako, barazkiak 08:00ak eta 09:00ak bitartean eraman beharko dituzte. Horrez gain, 11:00etan hasita Ricardo Baroja eskolan Bortzirietako 34. Gasna lehiaketa egingen dute eta Karnaxenean 23. Sagardo Lehiaketa. Parte hartzeko Bortzirietako ekoizlea izan behar da, eta 10:00ak baino lehen aurkeztu behar dira produktuak Ricardo Baroja eskolara.

Eguna hasteko, 10:00etan, Zubietako joaldunak ibiliko



Barazki erakusketa Merkatu Plazan izanen da. ARTXIBOKOA

dira karrikaz karrika lamotenetik abiatuta. Musikak ere presentzia izanen du. 10:30ean Altzateko plazako eszenatokian txalapartariak eta Irats eskolako trikitilariak ariko dira, eta ondotik karrikaz karrika ariko dira Iratseko trikitilariak, musika eskolako txistularien eta trikitilarien taldea, talde instrumentala eta Berako Banda. Arratsaldean izanen du besta segidak. 17:00etan Altzateko plazan bertsolariak zuzen-

GURE TXOKOA ELKARTEAK TALOGILEAK BEHAR DITU IGANDERAKO

dira sari banaketa egingen dute. 18:00etan mutxikoak izanen dira txarangarekin, eta eguna bukatzeko 19:00etan Iratzar taldearekin erromeria izanen da.

Egun osoan talo, jaki eta edari dastatzeak izanen dira. Horretarako, Gure Txokoa Elkarteak deialdi berezia luzatu du herritarrek talogile taldean sartu daitezen. Bi txanda izanen dira, 10:00etatik 14:00etara lehenengoa, eta 16:00etatik 20:00etara bigarrena. Talogile zein bezeroen arretan edo plantxan aritzeko jendea behar dute, eta izena eman nahi dutenek lurrareneguna@gmail.com helbidera idatzi edota 626 309 438 zenbakira deitu dezake.

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Ansona ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Forjen plaza, 1 · BERA

Astrolabeatik
ortzirikera:
07:15etik
aitzinerara
LABE ZAR
Larunbata
eta igandean:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 · BERA

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Abenduan esleituko dituzte Kaxernako etxebizitzak

Beran bi urte baino gehiago erroldatuta daudenek lehentasun osoa izanen dute esleipenetan

A.LARRETXEKA

Bukatzeaz dira Nasuvinsa Kaxernan egiten ari den babes ofizialeko etxebizitzak, eta abenduko deialdian esleituko dituzte (eskatzaileak erroldan erregistratu beharko dira azaroaren 30a baino lehen). 8 etxebizitza dira, hiru logelako borts eta bi logelako hiru, sukaldia, egongela eta bi bainu-gelekin eta sotoan 8 garaje-plaza eta 8 trasteleku daude.

Extebizitza denak esleituko dira, eta lehentasun osoa izanen dute bi urte baino gehiago Beran erroldatutako eskatzaileek. Bi logelako hiru etxebizitzak, 35 urtetik beherakoentzat gordetako dira. Gainerakoak, aldiz, sustapenaren baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean esleituko dituzte, baremoaren arabera. Legez etxebizitzaren erdia errenta baxuen

tartearen eskatzaileentzat gordetzen da. Erreserba-kupoan esleitu gabeko etxebizitzak geldituz gero, aldiz, kupo orokorrean esleituko dituzte.

Alokairu-kontratuaren iraupenari dagokionez, errentamendu-legeak 7 urteko errentamendua ezartzen du, etxebizitza berrikusi ondotik luzaigarria dena. Prezioak 420 eta 523 euro bitartekoak dira, dirulaguntzarik gabe eta urtero eguneratuko dituzte KPIaren arabera. Errenta baxuen tarteko esleipendunek prezioaren % 26tik % 75era bitarteko laguntza izanen dute. Urriaren 7ra arte, 47 eskatzaile zenbatu dituzte; horietatik 24 Beran erroldatutakoak, eta 21, bi urteko antzinatasunarekin. Udalak alokairuko aukera egiten duten beratar guztiei izena emateko deia egin die.



Apirilean hasi zen 30 laguneko talde bat auzolanean. UTZITAKOIA

Bukatu dute Kondendiagako bentako auzolana

A. LARRETXEKA

Udaberriari hasi, eta urriaren 8an bukatu zuten Sara eta Bera artean dagoen Kondendiagako benta konpontzeko auzolana. Bizkar besta egin zuten egun horretan, eta horrela bukatutzat eman zituzten sei hilabeteko lanak.

Lanak bukatuta, benta bi eremutan banatuta gelditu da: erabilera anitzeko gela bat du alde batean, eta mendizaleek lo egiteko literak bertzean. Sarreran idorpe bat ere badu, eta urez ere hornitu dute. Ura kanpoan zein barrenean hartzeko modua dago.

Benta hau mendizaleentzat moldatu da, Pirinioak zeharkatzen dituen GR-11 bidea pasatzen baita bertatik. Mendizaleek babesgune bat izan dezaten, sarrerako idorpea eta eta lo egiteko literen gela irekita mantenduko dira une oro. Erabilera anitzeko gela, aldiz, itxita egonen da eta erabili nahi duenak eskaria egin beharko du udalean.

Udalak benta berritzen ibili diren herritar guztien lana eskertu nahi izan du, ondarea berreskuratzeko modu egokia izateaz gain, herritarren arteko kohesioa sustatzen duelako.

LARRETXEKA EGVRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

F. LANCHAS

Akutziladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel.: 948 630 735 M: 620 172 679

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu deialde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepare

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Udan egindako hamabi bisita gidatueta 215 lagunek parte hartu dute.

Inoiz baino bisitari gehiago izan ditu turismo bulegoak

1.269 turista pasatu dira bulegotik, gehienak abuztuan, baina estazionalitatea ez da lehen bezain handia

AITOR AROTZENA

Pandemia baino lehen, Lesakako turismoa hazkunde fasean zegoen eta urtez urte gero eta turismo gehiago jasotzen zuen. Baina hurrengo bi urteetan, bertze herrietan pasatu zen bezala, datuak nabarmenki jausti ziren, nahiz eta 2021eko datuak pandemia aitzineko garaira hurbildu ziren. Aurtengo udak pandemia baino lehenagoko goitirako joera hori konfirmatu du: 1.269 turistek bisitatu dute Lesakako Turismo Bulegoa uda honetan, inoiz baino gehiago.

Hala ere, aipatu beharra dago, udako denboraldia gero eta gehiago luzatzen ari direla Lesakan eta beraz, Turismo Bulegoa eta Burdinaren Museoa gero eta egun gehiago mantentzen direla irekita.

Abuztua izan da hilabeterik oparoena, nahiz eta bertze

urteetako datuekin alderatuz, jautsiera izan den. Izan ere, ekainean, uztailan eta irailean aitzineko urteetako datuak nabarmenki gainditu diren moduan, abuztuan juxtu kontrakoa pasatu da. Beraz, hila-beteen arteko ezberdintasunak gutxitzen ari dira eta estazionalitatea ez da hain handia, modu honetan udako denboraldia luzatuz.

Jatorriari erreparatuta, atzerriarren presentzia pixkat handiagoa izan da, baina oraindik nazioarteko turismoak ez du pisu handirik Lesakako turismoan (bisitarien %7a). Frantzia, Alemania (%450 gehiago) eta Estatu Batuetatik etorri dira gehienak. Espainiar estatu mailan, Nafarroa bertatik (iaz baino %111 gehiago), Bartzelonatik eta Madrilatik etorri dira gehienak eta ia guztiek balorazio ona eman dute.

Beti Gazteren argazki lehiaketarako lanak urriaren 31 arte aurkez daitezke

Argazki lehiaketa antolatu du aurtengoan ere Beti Gaztek, udalarekin elkarlanean. Argazkiak posta elektronikoki bidetzeko soilik jasoko dituzte eta argazki erakusketa ere modu birtualean egingen dute.

Lanak argazkilaritza@beti-gazte.nethelbidera bidali behar dira urriaren 31 arte. E-postaren gaian *Argazki Lehiaketa 22* paratu beharko da. Argazki bakoitzari izenburua paratu beharko zaio eta gai libreko lehiara ala kirol argazki lehiara aurkezten den jarri beharko du. Argazkia bidaltzen den

e-postan egilearen datuak bidali beharko dira. (Izen abizenak, helbidea eta telefonoa).

Antolakuntzak izendatutako epaileek erabakiko dute nor den irabazlea eta erakusketa zabaltzen den egunean jakinaraziko dute bere izena, webgune eta sare sozialen bidez. Lehen saria 400 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrenaren zat 300 euro eta trofeoa. Beti Gazteko bazkideen artean argazki onenari 250 euroko saria emanen zaio trofeoarekin batera, kirol argazki onenari bezala.

Edu Errea Band larunbatean Harriondoan

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentuak, NICDO enpresa publikoaren eskutik, Bira Nafarroan Barna zikloaren bigarren edizioa sortu eta garatu du. Iaz sortu zenetik, programak Nafarroako talde eta artista berriei zuzenean jotzeko aukera ematen die. Ziklo honen barrenean, Edu Errea Band taldeak **urriaren 22an** joko du Harriondoan, larunbatean 19:00etan. **Urriaren 30ean**, berriz, Argako Erregina antzerki-zirko ikuskizuna izanen da Harriondoan, igandean 19:00etan.

Komentuko gela aisialdirako irekiko dute urriaren 31n

Komentuko gela umeek erabiltzeko ireki nahi du berriz ere udalak. Horretaz arduratzeko (astelehenetik ortziralerara, 16:00etan ireki eta 20:00etan itxi), gelaren garbiketa egiteko, bertan arauak errespetatzeko eta aisialdiko ekintzak antolatzeko, baita gazte lekua koordinatzeko eta haurren parte hartzea dinamizatzeke pertsona bat kontratatuko du. Kontratua 2022ko urriaren 31tik 2023ko apirilaren 5era arte iraunen du eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 17an bukatu da.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Itzurrunzubiko plaza 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es @liderahortzklínika

Goieko
INDUSTRIA GARBITALUNEKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESIN BERA

DESINSEKTATZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



Irailaren 28an aurkeztu zuen Irantzu Goienetxek 500 euroko beka hartu duen lana Lesakako udaletxean. AITOR AROTZENA

«Gurasoen banantzeak eragina du ikasleen eskola errendimenduan»

IRANTZU GOIENETXE BATIZ 500 EUROKO UDAL BEKA HARTU DUEN LESAKAKO IKASLEA

Lehen aldiz eman du ikasketa edo gradu bukaerako beka Lesakako Udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan Lehen Hezkuntzako gradu bukaerako lana egin duen ikasleak eskuratu du

AITOR AROTZENA

Lesaka ikergai duten ikasketa bukaerako proiektuak egiteko dirulaguntza bat eman zuen iaz udalak. 2021-2022 ikasturterako Irantzu Goienetxe Batizek eraman du 500 euroko beka, *Gurasoen banaketa edo dibortzioak ikasleen emozio eta eskola-errendimenduan duen eraginalana* aurkezteko. Honen inguruko esku hartze protokoloa ere gauzatu du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Lehen Hezkuntzako gradua, hezkuntza bereziko aipamenarekin bukatu du Irantzu Goienetxek eta lan hau aurkeztu du ikasketa bukaerarako. «Nahiz eta gero eta gehiago diren banatzen diren biko-

teak, gai honen inguruan ez dugu informazio nahikorik, eta nire esperientziatik abiatuta, nire ikasketa guztian zehar ez dut honen inguruko formakuntzarik jaso. Gure egunerokotasunaren parte den gai bat den neurrian, beharrezkoa iruditu zait hau lantzea», aipatu du aurkezpenean. Egoera honetan dagoen ikasle bati nola lagundu edo nola esku hartu, horixe izan da Goienetxeren jakin-mina lan hau egiterakoan: «Helburu nagusia ikasle horrengan gurasoen banantzeak ahalik eta eragin ttikiena izatea da eta esku hartzea ahalik eta eraginkorrena».

Lesakako Lehen Hezkuntzako ikasleekin landu du gaia

Goienetxek eta horretarako galdetegi orokorra prestatu zuen lehenik eta zehatzago bat ondotik. Galdetegi orokorra Lesakako Udalera, osasun zentrorra, liburutegira, kiroldegira eta bertze zerbitzuetara bidali zuen eta gero, galdetegi zehatzagoa herriko bi ikastetxetara bidali zuen, Tantirumairu ikastolara eta Irain eskolara. Irakasle eta gurasoei bidaltzeko asmoa bazuen ere, gura-

«GURASOAK BANANDUAK EZ DITUZTENEKIN ERE LANDU BEHAR DA»

soentzat gai delikatuak izan zitekeelakoan, azkenean irakasleei bakarrik bidali zien eta beraien erantzunetan oinarritu da lanerako. 35 irakasleetatik 14k erantzun zuten, % 40k, baina halere bi ondorio garbi ateratu ditu Goienetxek: «% 71,4k uste du gurasoen banantzeak eragina duela seme-alaben eskola errendimenduan eta gainontzekoek ez dute ezezikorik erantzun. Beraz, garbi dago eragina duela». Eta bertzetik, egoera honen aitzinean ikasleekin nola jokatu behar duen jakiteko informazio edo ikastarorik hartu ote duen galdetuta, % 78,6k ezezkoa erantzun du eta baiezkoa erantzun duten % 21,4 horietan, guztiek beraien kabuz hartu dute informazioa. «Hau da, ez dute unibertsitatetik edo beraien lan-eremutik hartu informazioa. Erantzun hauek ikusita, garbi dago zerbait gaizki egiten ari garela eta aldatu behar dela. Dibortzioak ikasleen emozioetan eragina ote duen galdetuta, % 92,6k baiezkoa erantzun zuen. Ondorioa garbia da», aipatu du Goienetxek. Egoera hau kudeatzea zaila dela jakitun, proposamena ere egin du: «Gure ikasgelan guraso dibortziaturik ez balitz ere, gaia landu beharra dago, horrelako egoera bat gertatuz gero ikasleek jakin dezaten nola jokatu».

Esku-hartze protokoloa

Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzaren arabera liburuen irakurketa proposatu du Goienetxek bere esku hartze protokoloan, eta zikloaren araberrako jarduerak. Egoera honen aitzinean zenbait aholku ere ematen ditu, bai irakasleentzako, baita familientzako ere: «Hauen kasuan, bi gurasoek batera egoeraren berri ematea da aholku nagusia, erran beharrekoak aitzinetik adostu eta gezurrik erran gabe. Seme-alabei ez bazaie garbi uzten zer gertatu den, gurasoak beraien erruz banandu direla pentsa dezakete eta horrek trauma eragin dezake».

'Sexberdinak' antzezlanaren 29an izanen da

Sarrerak salgai izanen dira urriaren 24tik aitzinera emanaldia hartuko duen kultur etxean bertan

IRUNE ELIZAGOIEN

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Altxata elkarrekin antolatuta, Ttanttaka Teatroaren *Sexberdinak* antzezlanaren 29an Kultur Etxean, larunbatean 19:00etan. Udalbiltzaren Geuretik Sortuak programako lana da eta Aitziber Garmendiak eta Telmo Iruretak antzetzuko dute. Sarrerak salgai izanen dira kultur etxean bertan, urriaren 24tik aitzinera, egunero 16:00etatik 19:30era, 18 eurotan. Leku mugatua izanen da.

Etixerako su egurra

Urtero bezala, Etxalarko udalak etxerako su-egurra eskatzeko deialdia argitaratu du. Bi modutan egin daiteke: Norberak bere kabuz etxera eramanda edo kamioiarekin egurra etxeraino eramanda. Eskatera egiteko epea urriaren 31n bukatuko da. Epez kanpoko eskaera eginez gero bertz euro gehiago ordainduko beharko da eta zozketaren ondotik ez dira eskaerak onartuko. Etxalarko web orrian daude baldintza guztiak ikusgai.



IRUNE ELIZAGOIEN

Organo kontzertu hunkigarria

Nafarroako organoen 38. musika zikloaren barrenean, Benantzi Bilbaok kontzertu hunkigarria eskaini zuen joan den urriaren 8an Etxalarren. Pello Apezetxea omentzeko kontzertua izan zen eta jende andana hurbildu zen elizako emanaldira.

68 ikaslek eta 12 irakaslek hasi dute ikasturtea Landagain eskolan

Pandemia aitzineko garaira itzulita, COVID-arengatik ezarri ziren neurriak bertan behera geratu dira eta normaltasunez hasi da ikasturtea. Guztira 68 ikaslek 7 geletan banatuta daude ikasturte honetan. Klaustroa berriz, 12 irakaslek osatzen dute. 3 ikas-

le berri hasi dira aurten. Iazko ikasturtean eskola komunitateak horrela erabakita, jardunaldi jarraiarekin hasi da ikasturtea. Jardunaldi honetan 09:00-14:00 bitarte eskola saioak ematen dira eta 15:30-16:30 bitarte hautazkoak diren eskolaz kanpoko jarduerak.



Landagain eskolako ikasle eta irakasleak. ESKOLAK UTZITAKOIA



· INGENIARITZA ELEKTRIKOIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legla, 23 - BERA



arropa-denda
etxeoko osagarriak | lentzeria

Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136



744 484 361

ttipi-ttapa



948 031 174
info@anelan.pro

Egiten ditugun lanak:
Fakaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teilatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.





USOA
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR



Betizuetan mozorroturik atera zen gazte kuadrilla. OSKAR TXOPERENA

Giro ederrean joan dira aurten ere San Migel bestak

Lehen egunak euripean joan baziren ere, asteburu eguzkitsuan ekitaldi ikusgarriak izan ziren

MAITE, ANA ETA ITZIAR

San Migel bezperan, txupinazoa baino lehen euri erauntsi baten erruz, goitibeherak suspenditu behar izan zituzten. Txupinazoa Jokin Zabaleta albintek bota ondotik besta giro ederra izan zen. San Migel egunean, euria lagun izanagatik ere antolatutako gehiena egin zen, dantzatarako frontoian aterpea hartuz. Ortziralean berriz Herri Bazkaria eta Haurren eguna ospatzeko eguna izan zen; puzgarriak, ttiki eta helduentzako zezenak, haurren herri bazkaria... Larunbatean, gaiteroak,



Gazteak herri kirol proban.

toka eta kankailuak goizean, eta, herri kirolak arratsaldean. Arratsean berriz, kontzertuak, betizuak eta DJ-a izan genituen. Bukatzeko, gaiteroak eta muxeak izan ziren igandean.

Maribel Latasa jubilatuta ondotik medikua eskatzeko sinadura bilketa abiatu da


MAITE, ANA ETA ITZIAR

Azkeneko urte luzeetan gurean mediku izan den Maribel Latasa Mitxeok erretiroa hartu du. Eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiogu hainbertzetan gure osasunaz arduratu izanagatik. Medikua erretiroaren albistearen harira, si-

nadura bilketa martxan paratu dute Igantzi eta Arantzako herritarrek, herrian medikua beharra adierazteko. Beharrezko zerbitzua da eta Nafarroako Gobernuari hala adierazi nahian Estankoan, Bi-biden eta farmazian daude eskaera hau egiteko inprimakiak.

Aldabe eta Canabal munduko pilota txapelketan

Munduko XIX. Pilota Txapelketa jokatuko da urriaren 23tik 30era Lapurdin. Espainiako selekzioarekin, eskuz frontoian ariko dira Joseba Aldabe eta Oian Canabal herriko pilotariak.



UTZITAKOA

Yoga eta eskulanen ikastaroak abiatu dira dagoeneko

Buruilaren bigarren hamabortzaldian hasi ziren yoga saioak. Estitxu Mentaberrirekin kuadrilla koxkorra biltzen da asteartero 19:30etik 21:00etara. Eskulan taldea ere martxan da. Hilaren 11n egin zuten lehen bilera taldea osatu eta gauzak zehazteko asmoz.

Bizikleta irteera egitekoa zuten larunbatean

Aurten ere eskolatik bizikleta irteera antolatu dute. Urriaren 14an egitekoa zuten. Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleek Sunbillara joatekoak dira. 09:30ean eskolatik atera eta eguna Sunbillan pasatu ondotik arratsaldean bueltatzekoak ziren.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

www.ibargoyen.net ☎ **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

ARANTZA

Udazkeneko kultur ekitaldiak urrian eta azaroan izanen dira

Azaroaren 1ean 26. Baserritarren Eguna antolatu du Ekaitza Elkarteak

NEREA ALZURI

Berriz ere gain gainean dugu Euskara Batzordeak antolatutako udazkeneko kulturaldia. Urriaren 31n hasi eta azaroaren 5era bitarte, gisa guztietako ekitaldiak izanen dira.

Urriaren 31n dokumentala

Urriaren 31n, astelehenarekin, 18:30ean, Aritz Ganboa artzainaren erronka biltzen duen *Bideak* dokumentala ikusteko aukera izanen da liburutegian.

Azaroaren 1ean Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean egingen den Baserritarren Egunaren 26. edizioaren prestaketan ari da Ekaitza Elkarteak.

Goizean, frontoian eta plaza inguruan, bertako ekoizleen elikagaiak, eskulanak, azien-
dak, ostatua eta lehiaketak

izanen dira bertako musikariak girotuta.

Azaroaren 4an hitzaldia

Azaroaren 4an, ortziralean, *Etxe izenak: ezaugarri orokorrak eta Arantzako erabilera* izenburua duen solasaldia emanen du Andres Iñigo hizkuntzalari eta euskaltzain iturendarrak. 19:00etan liburutegian izanen da.

Azaroaren 5ean antzerkia eta kantaldia

Biharamunean, azaroaren 5ean, haurrek hartuko dute lekukoa eta *Oso printzesa iletsua* antzerkia ikusteko aukera izanen dute 17:00etan eskolan. Ilunabarrean, 19:30ean, herriko etxeko gorapean, kultur egunei akabaila emateko, Aire ahizpak taldeak kantaldia eskainiko du.



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Herrira bizitzera etorritakoei harrera

Azken aldian herrira bizitzera etorritako herritarrei ongietorria egin zieten irailaren 29an herriko etxean. Euskara Mankomunitateak udalarekin elkarlanean antolatu zuen hitzordua eta hainbat herritar, ordezkari eta eragile bildu ziren. Euskaraz bizi direla eta euskara eta euskal kulturaren balioa nabarmendu zuten.

Erosketa jasangarriaren aldeko kanpaina

Erosketa jasangarria. Zer eta nola erosten dugu kanpainak geldialdia egin zuen urriaren 4an. Bi hezitzaile Dena denaren ataria informazioa ematen aritu ziren eta tupperrak eta poltsa berrerabilgarriak oparitu zituzten.



HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA



MIKEL LARRETXEKA

Mila esker Txamukos taldeari!

Urriaren 8an, Txamukos mariatxi taldearen ibilbideko hondarreko kontzertu ederrean jende azkarki bildu zen. «Mila esker» hitzak ageri ziren oholtzan eta urteotan taldekide izan diren musikarien eta jarraitzaileen arteko berotasuna agerian gelditu zen.

Gurasoentzako sexualitate tailerra urriaren 26an

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, urriaren 26an gurasoentzako sexualitate tailerra izanen da eskolan, 17:00etan. Iratxe Arretxea eta Itsaso Bakedano izanen dira gidari eta izena urriaren 21erako eman behar da: 634 22 36 59 edo info@bortziriakgz.eus.

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563
Bikasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Egurrezko bizikletak egiten eta joskintza ikasten ari dira

Urriko eta azaroko astearte eta ortzegunetan Alkaiagako Garbigunean eta Elizondoko kultur etxean hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak kudeatzen duen Hondakinen Funtza deituriko dirulaguntza baliatuz hondakinen sorrera murrizten lagunduko duten joskintza eta haurren bizikleta egiten ikasteko ikastaroak antolatu dituzte Baztango Udalak eta Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak Lagun Bide Zerbitzuak enpresa sozialaren bitartez. Bi ikastaroak doakoak dira.

Urriko eta azaroko astearte eta ortzegun arratsaldetan, bi orduko saioetan, 17:00etatik



Lehen joskintza tailerra Elizondon.

19:00etara, Alkaiagako Bortzirietako Garbigunean eta Elizondoko Arizkunenea kultur etxean arropen bizitza luzatzen ikasteko oinarrizko joskintza konponketak erakusten hasiak dira, Lagun Bide Zerbitzuak enpresa sozialaren eskutik. Urriaren 11n hasi ziren Elizondon eta launa saio izanen dituzte (**urriaren 11, 18 eta 25 eta azaroaren 8an** Elizondon eta **urriaren 13, 20, 27 eta azaroaren 3an** Alkaiagan).

Haurrendako bizikletak egin eta etxera eraman

Era berean hondakinekin haurrendako egurrezko bizikleta bat nola egin ikasi eta bizikleta hau etxera eramateko aukera izanen dute izena eman duten pertsonak. Azken hau hiruna arratsaldetako ikastaroa da (**urriaren 18 eta 25ean eta azaroaren 8an** Alkaiagan eta **urriaren 20 eta 27an eta azaroaren 3an** Elizondon).

Bor-bor Euskaltzaleen Mugimenduaren inkesta betetzeko

TTIPI-TTAPA

2022ko udaberrian abiatu zuen Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak bere ibilbidea, aitzineko urteko gogoeta saioetan proposatutako ideiak txosten batean bildu eta hura batzar zabal batean onartu ondotik. Uztailaren 2an egin zuten Mugimenduaren aurkezpena Lesakako ekitaldian.

Orain, berriz, lanari ekiteko prest dira, eta Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimendua nork osatzen duen, eta bakoi-tzak zerk konpromiso maila duena jakin nahi dute. Horretarako, galdetegi bat prestatu dute eta urriaren 23a ezarri dute erantzuteko azken egun gisa.

Amaita

Albaitaritza eta maskotak

LARRIALDI ZERBITZUA +

365 egun
 24 ordu gure bezeroentzat

ALBAITARITZA ZERBITZU INTEGRALA

- Kontsultak
- Ebakuntza gelak

ILEAPAINDEGI ZERBITZUA

MASKOTENTZAT EGOITZA

DENDA ...

Egin bezero txartela eta probestu abantailez

Kontsultak eta hitzorduak: **943 620 230**

Larrialdiak: **618 893 420**

Whatsapp: **676 852 459**

Colón Ibilbidea 27, behea. IRUN (Parkingetik sarbide zuzena)



Irailaren 23an egindako aurkezpenaren ondotik osatu da eskolarako taldea.

Emakume Feminista Eskola azaroan abiatuko da Beran

Egun osoko formazio-topaketa saioak egingen dituzte azaroaren 5ean eta 19an eta abenduaren 17an Beralandetan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 23an egin zuten proiektuaren aurkezpena Beran, eta bertan taldea osatzea lortu ondotik, laster paratuko dute martxan Bortzirriak-Mallerreka-Baztan eskola feminista. Toki batzuk gelditzen dira eta izena eman nahi duenak oraindik ere badu auke-

ra info@aragorputz.eus helbidera idatzita.

MunduBat fundazioak, Abya Yalan erresistentzian dauden emakumeek* egindako zenbait jakintza kolektiboen sistematizazioa dira ekonomia feminista eskolak, baina, Euskal Herriko testuingurura egokitu-tuta.

Jorrazten diren gaien artean patriarkatua, neoliberalismoa, sexuaren arabera lan-banaketa.... daude, «baina ez izutu, gai guzti horiek modu praktikoan landuko dituzte, egunero bizipenetatik abiatzen baitira lanketa guztiak egiteko». Ara! Gorputz kooperatiboko kideek dinamizatuko dute ikastaroa. Aitzineko urteetan euskaraz izan zen lehen prozesua Oarson egin eta gero, hagitxogotsu dabiltza Nafarroako salto honekin kooperatibao kide diren Ione eta Enara.


Beralandetan

Bi fasetan egingen dute eskola, eta udazkenekoa izanen da lehenengo fasea. Egun osoko hiru formazio-topaketa izanen dira, eta programako lehenengo bi moduluak landuko dituzte. Saioak Beran dagoen Beralandetan izanen dira azaroaren 5ean, eta 19an, eta abenduaren 17an, larunbategiaren 10:00etatik 13:00ak arte, eta 15:00etatik 18:00ak arte.

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuetatik diotenez, «elkarrekin ibiltzen (pentsatzen eta ikasten) jarraitzea ezinbertzekoa da» eta eskolan izena ematera animatu nahi dute.

Baxi Basajauneko Iñaki Gonzalez Espainiako txapeldun

Espainako X. Disc Golf txapelketa jokatu zen urriaren 8 eta 9an Bizkaian. Baxi Basajaun Disc Golf Elkartearen hiru ordezkari aritu ziren, hiruak MP50 kategorian: Iñaki González Olaizola, Jose Joakin Rouget eta Mikel Ibarrola. Iñaki Gonzalezek txapela lortu zuen, joku sendo eta segurua erakutsiz. Aipatu behar da orain dela bi urte hasi zela discgolfean Gonzalez eta 15 urteko esperientzia daukaten jokalarien kontra. Rouget taula erdian sailkatu zen eta Ibarrola azken postuetan, sukarrekin jokatu ondotik.



Iñaki Gonzalez, podiumean.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Jauzena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauernabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Internetarako konexioarekin arazoak?

Abiadura handiko Interneta Zuntzarekin
Internet MUGARIK GABE 300 Mbps-ra arte



948 63 01 32
navarra@gestelcom.es
637 40 86 40
andonimatxako@gmail.com



Zuntza 49€*-tik hasita

TELEFONIA/MUGIKORRA
Dei mugagabeak + 20Gb 9,90€*

*BEza prezioetan sartuta





Itxura hau du gimnasioak berrikuntzak egin ondotik. UTZITAKOIA

Eskolako gimnasioa berritzeko lanak akitu dituzte

Abuztu bukaeran hasi zituzten lanak, eta itxura eraberritua du orain gimnasioak

OIER ZULAIKA

Doneztebeko San Miguel ikastetxeko gimnasia joan dena konturatuko zen itxura erabat berritua duela. Abuztu erdialdean hasita, berrikuntza lanak egin dituzte, eta dagoeneko erabiltzeko erabilgarri paratu dute berriz ere.

Itxura eraberritu hori, kanpoan zein barnean ikusten da. Kanpoaldean, teilatua aldatu diote, eta barneko aldean berriz erabateko konponketa lana egin dute: lur dena altxatu eta konpondu, zola berria jarri, dena margotu, eta argiteria eta bero-



Teilatua ere konpondu dute. UTZITAKOIA

tzeko erradiadore berriak paratu dituzte.

Lanak akitura, itxura ederra du orain gimnasioak eta eskolako ikasleak ere hasiak dira dagoeneko erabiltzen.



UTZITAKOIA

Dani Martirena liburutegian

Irailaren 28an Dani Martirena idazlearen bisita izan zuten liburutegian eta Martirenarekin batera ametsak gordetzeko kutzak egin zituzten haurrek. Irakurle Klubak ere martxan dira, eta azaroan Karmele Jaioren bisita izanen dute. Aitzinerago zehaztuko dute data zehatza.

Ibilgailu klasikoen topaketa larunbatean

San Fermin Ibilgailu Klasikoen elkarteak antolatuta, automobilen ondareari buruzko jardunaldiak egingen dituzte larunbatean herrian. Lehenengo egunen dute topaketa Iruñetik kanpo

Nafarroako eta ondoko probintzietatik etorritako dozenaka auto klasiko elkartuko dira, 09:00etan hasita Merkatu plazako aparkalekuan. Arratsaldera bitartean egonen da aukera auto klasikoak hurbiletik ikusteko.

Parte hartzaileek, eguerdian bazkaria izanen dute.

Mendi Ttiki abesbatza bueltan da

Kantatzea maite duten haurrek, berriz ere horretarako aukera izanen dute, pandemiagatik bere jardura eten ondotik, berriz ere martxan baita Mendi Ttiki haur eta gazteentzako abesbatza. Ortziralean, hilaren 21ean hasita, astero bilduko dira Mendiren egoitzan 19:00etan.

Pandemia aitzinetik ibilbide polita osatzen ari zen abesbatza, Donezteben eta inguruko herrietan hainbat emankizun egin zituen, eta ETB1eko *Oholtzan* saioan ere atera zen.

Fermín Matellanes doktorea
Otorrinolaringologia
 Laser kirurgia eta irrati-frekuentzia



Bertigoaren diagnostikoa eta tratamendua 3D bidez



BERTIGOAREN ETA OREKA ALTERAZIOEN UNITATEA

Artzai Onaren Plaza, 7. Donostia. T. 943 322 646 - 691 775 458

R.P.S.: 116/15

Herriko bazkideak ere omendu ditu Arkupeak elkarteak

85 urte bete ditu Francisco Zelaietak eta 50 urte ezkondu kanpinean bizi diren Iñaki Luengok eta Karmele Mugikak

MAIDER PETIRENA

2019 urtetik ospatu ezinik egon ondotik, berriz ere Arkupeak elkartearen besta handia egin zuten urriaren 6an, oraingoan Dantxarinean. Eguerdian meza izan zuten La Nuba diskotekan eta meza ondotik opariak eman zitzaizkien omenduei, aurten 85 eta 100 urte bete dituzten bazkideei eta ezkondu 50 eta 60 urte bete dituzten senar-emazteei. Horien artean, herrian 85 urte bete dituen Francisco Zelaieta Lastiri omendua izan da, baita 50 urte ezkondu egin dituzten Iñaki Luengo Fernandez eta Karmele Mugika Uzkudun bikotea ere.



Omendutako herritarak.

Franciso Zelaieta Lastiri

1937ko martxoaren 20an sortu zen Sunbillan. Jose Martin Zelaieta eta Pepita Lastiriren semea, bigarrena 9 senide artean. Sunbillan ezkondu zen M^a Carmen Errandonearekin 1966ko azaroaren 26an. Bi alaba izan zituzten: M^a Angeles eta Coro eta sei biloba ditu: Oihane, Ainara, Asier, Gorka, Enaitz eta Nahia.

Iñaki Luengo Fernandez eta Karmele Mugika Uzkudun

Karmele Mujika 1952ko uztailearen 11n jaio zen Hernanin eta Iñaki Luengo 1949ko martxoaren 6an Donostian. Hernaniko Zikunaga Amabirginaren baselizan ezkondu ziren 1972ko maiatzaren 1ean. Bi seme-alaba dituzte: Zuhaitz eta Kattalin eta hiru biloba: Sua, Inti eta Lili. 18 urte dituzte Sunbillako kanpinean bizitzen.



ESKOLAK UTZIAK

Eskolatik gaztainak biltzera ateraldia

2022-2023 ikasturteari dagokion lehen irteera egin dute eskolako ikasle eta irakasleek. Udazkeneko giro ederrean, eguraldia lagun gaztaina biltzera joateko aukera izan zuten. Horiek goxo-goxo prestatu eta beraien otordua eginen dute hurrengo batean.



MAIDER PETIRENA

San Sebastian Circuit Spirit herrian

Urriaren 1ean goizean Donostiatik abiatu eta Hernanin barna, Goizueta aldera sartu ziren San Sebastian Circuit Spirit ibilaldian parte hartu zuten garai bateko ibilgailu klasikoek. Basakabitik Malerreka jautsi eta Sunbillan izan zuten geldialdia gidariek, udal pilotalekuan bazkaltzeko.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUNO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERTAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A - Km 48,8 - DONEZTEBE - T. 948 450 272 - 948 450 787

LIZUN

GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

BORDAKO BORDAKO

Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Madame Birrots taldeak borobilduko ditu Iturengo Kultur Egunak. ARTXIBOKOA

Iturengo Kultur Egunak urriko azken asteburuan

Lehen aldiz mendi itzulia egingen dute larunbatean eta igande arratsaldean kontzertua emanen du Madame Birrots taldeak

ARKAITZ MINDEGIA

Iturengo gazteek antolatutako Iturengo Kultur Egunak ospatuko dituzte urriko azken aste hondarrean eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

Urriaren 28an, ortziralean 19:30ean *Harria Maitasun Istorioa* bakarrizketa izanen da, Iñaki Perurena Leitzako harri-jasotzailearen eskutik. 21:00etan talo jatea egingen dute plazan eta 22:00etan mus txapelketa jokatu dute herriko ostatuan

Urriaren 29an, larunbatean 07:30ean plazatik abiatuko da lehen aldiz egingen den Ituren-

go Mendi Itzulia, aurtengo Kultur Egunen berrikuntza nagusia. 14:00etan bazkaria izanen dute Herriko Ostatuan. Txartelak salgai daude Gozatu janari dendan. 18:00etan Grand Prix. Ilunabarrean xingar jatea izanen dute gauean gaupasa, musikarekin.

Urriaren 30ean, igandean 14:00etan haurren bazkaria. Ondotik gau beltza tailerra egingen dute eta pelikula izanen dute ikusgai. 18:00etan Madame Birrots, Baztango musika taldearekin kontzertua herriko plazan edo ganbaran, eguraldiaren arabera.

Bonnat-Helleu museoko lanak eta antzerkia urri hondarrean Senperen

TTIPI-TTAPA

Baionako Bonnat-Helleu museoak 7.000 artelan baino gehiago biltzen ditu eta bildumako zenbait lan ikusteko aukera izanen da Senpereko Larreko kultur gunean **urriaren 28an**, ortziralean 19:00etan egingen den proiektzioan. Ben-

jamin Couilleaux museoko zuzendaria ere gonbidatua dago solasaldia ematera.

Urriaren 29an, larunbatean 20:30ean, berriz, *Les Malheurs D'Anne Sophie* antzezlana ikusgai izanen da. Sartzea 12 euro gostako da, hamalau urtez beheitikoentzat 7 euro.



Doneztebeko jardunaldian parte hartu zuten gazte boluntarioak. UTZITAKOA

Hogei gaztek Nafarroako boluntariotzako esperientzia partekatu dute Donezteben

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gazteria Institutuak (NGI) topaketa bat antolatu zuen urriaren 8 eta 9ko asteburuan Doneztebeko Belbieretxea gazte aterpetxean, Nafarroan Europako Solidaritatearen Taldearen (CES) bidez boluntariotzan aritzen diren gazteen artean. Ekitaldian, parte-hartzaileek esperientzia ebaluatzeaz gain, etorkizuneko aukeren gaineko informazioa eta baliabideak partekatu zituzten.

Europako zazpi herrialde-tako (Alemania, Espainia, Italia, Errusia, Frantzia, Eslo-

bakia eta Turkia) hogeitaz gazteek parte hartu zuten, Nafarroako gizarte eta gobernuz kanpoko erakundeetan parte hartzen dutenak, bertzeak bertze Arterra Bizimodu, Global Eco-village Network, Tudela Comparte Fundazioa, Cruz Roja Tudela, Gizakia Herritar Fundazioa, Gizakia Helburu Fundazioa, Geltoki mikrokoperatiba elkarteak, Setem Navarra eta Leonardino Hezitzaile Elkarteak.

Donezteben zenbait tailer egin zituzten eta Bertizko Natur Parkea ezagutzeko aukera ere izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

2.000 lagun udako jardueretan

2.000 lagun inguruk hartu dute parte udan Nafarroa Ezagutu Sarearen jasangarritasun-agenteei sustatutako 62 jardueretan. Eskualdean, Plazaolako eta Bidasoko Bide Berdeetan egin diren jardueraz gain, Leurtzako urtegiaren mendeurren eta Zubietako Errotaren Eguna ospatu dituzte.

Bodegas Taron txapelketa irabazi du Ugaitz Elizalde

Errioxako Cuzcurrita del Río Tiron herrian, Aizpurrekin batera, 22-20 irabazi zieten Etxeberria II.a eta Garmendiari

ARKAITZ MINDEGIA

Udako bestetan han eta hemen ibili ondotik, Garfe empresa-ekin finala jokatu beharra zeukan Ugaitz Elizalde Errioxan. VIII Bodegas Taron txapelketako finalera sailkatu zen Elizalde, Aizpuru atzelariarekin batera. Cuzcurritako frontoian Etxeberria II eta Garmendia pilotariak zeuzkaten arerio, eta final gogor baten ondotik 22-20 nagusitu ziren Ugaitz eta Aizpuru. Gogor ari da Elizalde han eta hemen.

Egur loteak

Bertze urte batez herriko udal-letxetik egur loteen eskaintza iritsi da etxetara. Makilipurditik pago egurra ateratzeko asmoa dauka udalak. Baldintza hauek bete beharko dira etxean hartzeko: Egurra atera eta garraiatzeko kostua ordain-

du beharko da, gehienez bi lote eskatzen ahal dira familiako, udalari ordaindu beharko zaizkio gastuak, herriko lursailetan uzten bada lotea hilabeteko epean garbitu beharko da eta 7 tona inguruko loteak emanen dira. Lotea etxean hartzeko urriaren 14rako eman behar zen izena.

Yoga herriko etxeko ganbaran

Eskaintza ederra daukagu gure egunerokotik aldentzeko gure herrian, bertsoak, zumba, dantza, triki eta pandereta... Azken aukera, yoga integrala eta kankueb klaseak dira. Enriketaren eskutik gure gorputzarekin konexioa edukitzeko aukeraz gain luzaketak ere landuko dituzte animatzen direnek. Astelehen eta asteazkenetan egonen dira Iturengo herriko etxeko ganbaran.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Sebastian Circuit Spirit joaldunekin

San Sebastian Circuit Spiriten parte hartu zuten ibilgailu ikusgarrien bisita izan genuen urriaren 1ean. Herrian geldialdia egin zuten, eta joaldunek harrera egin zieten, herri sarreratik plazaraino lagunduz. Plazan aparkatu ondotik, gidariek barrenak gozatu zituzten Herriko etxeko ostatuan.



Herri kirol saio ederra eskaini zuten herritarrek. JAIONE ARIZTEGI

European hasitako sanmigelak giro eguzkitsuarekin akitu zituzten

JAIONE ARIZTEGI

Irailaren 28an hasitako bestei, egun haundian eman zioten segida. Goizean meza, Doneztebeko Mendi abesbatzaren emanaldia eta luntxa izan zituzten. Arratsaldean, gazteen arteko herri kirol saio ikusgarria izan zen eta ondotik patata tortilla eta postre lehia-keta. Jonan eta Natalia izan ziren irabazle eta Oihan eta Maite bigarren.

Ortziralean hasitako mus txapelketako finala larunbatean jokatu zuten, eta Ibai Juanena eta Andoni Zozaia izan ziren txapeldun, eta Manolo eta Pa-

kitto bigarren. Plater tiroketan Aimar eta Unai gelditu ziren lehen postuetan, eta ondotik paella afariaz gozatzeko aukera izan zuten 50 lagunek herriko frontoian.

Larunbatean, herri bazkaria izan zuten, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolariekin eta Beñat Mitxelena akordeoilariak lagunduta.

Akitzeko, igandean, azken egunean, aizkora apustua izan zen plazan, Iker Vicente eta Ugaitz Mugertza eta Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Mikel Larrañagaren kontra. Bigarrenak izan ziren garaile.

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

BIZIKLETEN SALMENTA eta KONPONKETA.

KATEA BIKE

Kanltonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MESSI MERIDA
BERGAMONT BH COLUER LOOK

Orain duzu aukera!

Hainbat dirulaguntza dituzu horretarako:



• Panel fotovoltaikoak, galdarak, aerotermia

• Estalkiak, teilatuak

• Leihoak

• Fatxadak

Ingurutzailerikoa

Proposatutako jardueren arabera, hainbat laguntza eska daitezke

Ingurutzailerikoa hobetzeak, zer suposatzen du?

Lehen
konfort falta

Pareta hotzak
Aire infiltrazioak
Hozte azkarra




Orain
konforta

Pareta beroak
Haizerik ez
Egonkortasun termikoa

Kontsumo
murrizketa



Kondentsazio arazoaren
soluzioa



Birgaitze energetikorako dirulaguntza bereziak

Kasu bakoitza aztertuko dugu aukerarik hoberena zein den ikusteko



Dantza Luzean aritu ziren dantzariak eta musikariak. IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederrean ospatu dute aurtengoan Euskararen Eguna

Herri bazkarian 92 lagun bildu ziren eta Dantza Luzea dantzatu zuten, baina ez zen herri kirol aposturik egin

FERMIN ETXEKOLONEA

2020an ez zen ospatzerik izan, iaz seinalea egin zen eta aurtun, ohiko egitarau zabalarekin ospatu dute gazteek antolatutako Euskararen Eguna.

Urriaren 7an, ostiralean hasi ziren lehen ospakizunak. Pintxo lehiaketara bost pintxo aurkeztu zituzten, ohi baino gutxiago, eta Maialen Elizalde suertatu zen garaile. Mus txapelketan hamabi bikotek eman zuten izena. Jexux Santesteban eta Josetxo Elizalde izan ziren txapeldun, finalean Jabiertxo eta Mikel Santesteban aita-semeei irabazita.

Halere, egun handia larunbata izan zen, **urriaren 8a**. Goizean herriko eskulangileen lanak ikusgai eta erosgai izan ziren. Joaldunak ibili ziren eta eguerdian Dantza Luzea ederki dantzatu zuten. Pena bakarra, gizonezko bakarra animatu zela dantzatzera. Herritarren arteko herri kirol aposturik ez zen egin, baina estalpeko herri bazkarian 92 lagun bildu ziren. Arratsaldean haurrentzako jokoak izan ziren eta Burrumba elektrotarangak ere giro ederra paratu zuen. Trikidantz taldearen musikak borobildu zuen egun ederra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa

Desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroa egin dute urriaren 5ean eskolan. Mediku kontsultaren atarian paratua da desfibriladorea eta noizbait erabiltzeko beharra balitz, bizitza salbatu dezakeen tresna hau egoki erabiltzen ikasi zuten hainbat herritarrek.



NAFARROAKO GOBERNUA

'Hamalau haratago' errotan

Aurreko zenbakian aipatu bezala, Nafarroako 14 museotan eginen den *Hamalau haratago* erakusketaren aurkezpen ofiziala Zubietako errotako ekomuseoan egin zuten urriaren 4an. June Crespo artistaren *El mismo calor"/"Bero berdina* eskultura (2018) paratu dute ikusgai errotan.

CASA PUNTOS
ARMERIA Y TALLERES
SINCE 1885
ARMA-DENDA ETA TIRO GALERIA

www.casapuntos.com | armeriacasapuntos | 618 68 98 55
Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa

ORBELA
SINCRONIZA ALTERNATIVA
BEINTZAKO OSTATURIA

Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

DONAMARIAKO HERRIKO OSTATURIA

Etxeko janaria, plater konbinatuak, eguneko menua, asteburuko menua...

T. 948 45 08 90
@donamariko_ostaturia

Ortzegunetik igandera irekia

Ehiza Jardunaldi Gastrononomikoek 30 urte bete dituzte

Urriaren 15etik hasita azaroaren 30era bitarte eskaintzen ari dira eskualdeko hamaika jatetxetan, iaz baino bi gehiagotan

TTIPI-TTAPA

Urriaren 15etik azaroaren 30era egiten ari dira aurten hogeita hamargarren edizioa bete duten Baztan-Bidasoko Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak. Urriaren 13an egin zuten jardunaldien aurkezpena Iturenego Tresanean.

Aurtengo edizioan hamaika jatetxek parte hartzen dute, iaz baino bi gehiagok: Bortziritan, Arantzako Aterpe (Arantzta); Burlada jatetxea (Arantzta); Pablo-Enea jatetxea (Arantzta); Etxalarko Herriko Ostatura (Etxalar); Malerrekan, Donamariako Benta (Donamaria) eta Tresanea jatetxea (Ituren); Baztanen Ordoki Erretegia (Arizkun); Elbeteko Posada (Elbete); Olari jatetxea (Irurita) eta Urgan jatetxea (Oronoz-Mugairi) eta Xaretan Montxo erretegia (Urdazubi).

Baztan-Bidasoko Ehiza Jardunaldiak Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak antolatzen ditu, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Pirineos Exdim, Bodega Inurrieta, Berako Errotazar Artisanu Produktua eta Baztango Ehiza eta Arrantza Elkarteak dira babesleak.

Menuak QR kode bakarrean

Iaz bezala, aurtengo edizioan eskuorriak era digitalean soilik argitaratu dituzte. Webgunean zintzilikatuta daude, edonork deskargatzeko moduan eta horrez gain, QR kodeak egin dituzte eskualdeko turismo bulegoetan eskaneatu ahal izateko. Horrez gain, Baztan-Bidasoko Turismo Elkarteak sare sozialetan ere argitaratuta daude, eta nahi izanez gero, Newsletter-ean



lazko argazki irabazlea.

izena eman daiteke eta korreoan eskualdeko berriak eta agenda eguneratua jaso. Aurtengo eutsi egin diote *Ehizatu pintxoak* ekimenari eta hainbat jatetxetan ehiza pintxoak dastatzeko aukera izanen da, Inurrieta ardoarekin (lau euro).

Argazki lehiaketa

Urriaren 15etik azaroaren 13ra martxan da Ehiza Jardunaldi Gastronomikoen baitan eta datorren edizioako kartel eta eskuorrien irudia izatea. Saria, bi pertsonendako otordua 2022ko Ehiza Jardunaldi Gastronomikoen baitan eta datorren edizioako kartel eta eskuorrien irudia izatea.

RAMON GARCIA DE CORTAZAREN ARGAZKIAK IRABAZI ZUEN IAZ



Ikur hau izanen dute zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna duten dendeak.

'Euskaraz barra-barra' marka berria zabaltzen hasi dira zerbitzu sektorean

TTIPI-TTAPA

Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan areagotzeko helburuarekin, batean eta bertzean badira euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren saltokiak, enpresak eta entitateak identifikatzen dituzten ziurtagiriak, euskaraz aritzeko eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna aitortuz, bezeroek eta herritar guztiek horren berri izan dezaten.

Urtariletik aitzinera, berri, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak zerbitzu sektorean gaitasuna identifikatuko eta aitortuko duen marka berria eta bateratua sortuko dute: **Euskaraz barra-barra** izanen du izena, eta euskararen lurralde guztiatarabalduko dute.

Marka bateratu horren helburua da bezero euskaldunei

adieraztea euskaraz egiteko aukera dutela leku edo entitate horretan, *Euskaraz barra-barra* marka duten guneetan bermatuta egonen delako euskaraz ulertzeko gaitasun nahikoa badagoela. Horregatik, zehazki, gaitasunari lotuta egonen da marka banatzeko irizpidea.

Euskal Herri osoan urtariletik aitzinera zabalduko baldin bada ere, lehenago, uda honetatik zenbait udalerritan izanen dira aitzindariak marka zabaltzen, gainerakoentzat bide-erakusle izan daitezten. Zehazki, UEMAko kide diren hamar herri izanen dira lehenengoak: Bera, Elizondo, Oiarzun, Aramaio, Atxondo, Bakio, Bermeo, Igorre, Otxandio eta Etxarri Aranatz. Horiez gain, Oarsoaldean eta Donostialdean ere hilabeteotan abiaraziko dute marka bateratua.

Profesionalei eta herritarrei deia

Marka sustatu duten erakundeek zerbitzu sektoreko profesionali dei egin diete markarekin bat egin dezaten: «Bezeroari arreta bere hizkuntzan eskaintzea zerbitzuaren kalitatea bermatzeko ezinbesteko oinarria denez, ohi bezala zure negozioarentzat zerbitzurik onena eskaintzeko ahaleginean jarraitzea eta ekimen berri honetan parte-hartzera gonbidatzen zaitugu». Zerbitzu sektoreko profesionali ez ezik, markaren sustatzaileek herritarrei ere dei egin diete ekimena kontuan har dezaten erosketak egiterakoan eta zerbitzuak hautatzean.



Elkarteak aurten omendu dituen bazkideak sari banaketa ondotik euren opariak eskuan dituztela. ZALDUA

Arrakastatsua izan da elkarteko bazkidearen eguna

Hainbat bazkide omendu zituzten, eta argazki eta margo lehiaketako sari banaketa ere egin zuten

TTIPI-TTAPA

2019 urtetik ospatu ezinik egon ondotik, berriz ere Arkupeak elkartearen besta handia egin zuten urriaren 6an, oraingoan Dantxarinean. Eguerdian meza entzun zuten La Nuba disko-teman eta meza ondotik opariak eman zitzaizkien omenduei, aurten 85 eta 100 urte bete dituzten bazkideei eta ezkondu-rik 50 eta 60 urte bete dituzten senar-emazteei.

Gainera, argazki eta margo lehiaketetako sariak eman zituzten. Argazki lehiaketan Margarita Meco eta Blanca Bertiz izan dira saridunak eta

margo lehiaketan, Marya Puy Lukin eta Blanca Jimenez.

Gero, 400 lagun baino gehiago bildu ziren Peio Bentako Lugarana jatetxean egindako bazkarian. Jose Angel akordeoilariak alaitu zuen bazkalondoa, eta giro ederrean ibili ziren dantzan batzuk eta musean bertzeak.

Omenduak

100 urtekoak

-Regina Ibarra Espelosin (Etxalarkoa, 100 urte bete eta aste batera hil zen).

-Teresa Etxebeste Zozia (Beran bizi den igantziarra).

60 urte ezkondu-rik

-Hipolito Iparragirre Mantrola eta Maria Del Mar Sanz-berro Mitxeltorena.

-Ramon Irigoien Irigoien eta Naxari Huizi Madariaga.

50 urte ezkondu-rik

-Fernando Boan Gonzalez eta Pili Martikorena Alzuri.

-Juan Manuel Pombar Alzuren eta Marilo Jorajuria Etxepeteleku.

-Juan Juanotena Aldaya eta Maria Pilar Oizartabal Telletxea.

-Pedro Martinez Martinez eta Coro Lizaso Eneterreaga.

-Eusebio Ballarena Magirena eta Pilar Arrijuria Otxandorena.

-Juan Huarte Alsua eta Francisca Escudero Bengotxea.

-M^a Gloria Loperena Baleztena eta Jose Antonio Indabere Telletxea (azken hau berriki hildakoa).

-Lazaro Telletxea Otxandorena eta Pilar Iribarren Etxegia.

-Jesus M^a Aiestaran Tapia eta M^a Carmen Retegi Larretxea.

-Jose Antonio Garro Lanz eta M^a Pilar Alzuri Bertiz.

-Miguel Erkizia Almandoz eta Nati Martikorena Mindegia.

85 urte betetakoak

-Julian Sala Elizondo.

-Felicia Perez Iribarren.

-Francisco Zubieta Iantzi.

-Visitación Goikoetxea Telletxea.

-Juan Villanueva Illarregi.

-Mari Juana Telletxea Otxandorena.

-Miguel Irigoien Jorajuria.

-Jose Mari Juanenea Lasarte.

-Cleofé Lazkano Taberna.

-Maria Mutuberría Martikorena.

-Francisco Mutuberría Elizalde.

-Mari Karmen Etxebertz Dorremotzea.

-Jose Luis Elgorriaga Gainza.

-Amador Hernandez Sanchez.

-M^a Lourdes Sanzberro Etxeberría.

-Jesus Maria Iñigo Ariztegi.

-M^a Paz Ascunce Etxart.

-Celestino Artola Elberdin.

-Elena Elizalde Soravilla.

-Francisco Tolosa Goikoetxea.

-Maria Pilar Lasarte Zubitur.

-Natividad Arretxea Mitxelena.

-Patxi Ubiria Portu.

-Jose Mari Lizasoain Ezpeleta.

-Lourdes Illarregi Karrikaburu.

-Francisco Zelaieta Lastiri.

-Pedro Iriarte Cordoba.

-Presentación Juanena Iribarren.

-Dolores Irazoki Etxenike.

Zorionak denei!

Maria Leandra Erasun Zozia iraileko zozketa sariduna

TTIPI-TTAPA

Hilabeteroko galdera eta zozketa egiten segitzen du elkarteak, eta Maria Leandra Erasun Zoziaik asmatu du zenbat jokalarik osatzen duten laxoko taldea eta nola deitzen zaien kokapen bakoitzean dagoenari eta bere es-

kularruari. Zorionak eta gozatu saria!

Iraileko saria banatuta, hurrengo galdera ere prest du elkarteak: **Nola izena du Etxalarko usategietan erabiltzen den gailuak?**

Erantzunak 618 567 837 zenbakira bidali beharko dira.



Maria Leandra Erasun Zozia saria eskuartean duela. UTZITAKOA

ELIZONDOKO FERIAK

urriak 28-29



UDAZKENAREKIN BATERA FERIAK DATOZ BAZTANERAT

Feria sasoia bueltan da gure eskualdean, eta urtero bezala, Elizondokoak izanen dira lehenbizikoak. Bi urteko geldialdiaren ondotik, udazkeneko feriak normaltasun osoz bueltan dira aurtien, eta urriko azken aste-buruan ospatuko dira, hilaren 28an eta 29an. Herriko karrikak postuz beteko dira bertze behin; gozogileak, artisauak eta hainbat saltzaile izanen dira bertan, hainbat produktu mota eskaintzeko prest: jatekoak, arropa, jostailuak, diskoak, mantak, artisau-lanak, motxila eta zorroak, galtzerdiak, diru-zorroak... Eta nola ez, aziendak eta makineria nagusi izanen dira Merkatuko Plazan, herri guzietako abeltzain eta nekazarien topaleku.

Aspalditik ikusten ez dugun jendearekin elkartzeko egunak izaten dira feriak, edo familiarekin bazkari goxo bat egiteko aitzakia ederra. Jendea, erakusketak, musika eta giro ederra. Nork ez ditu feriak gustuko?

INDAUTO TAILERRAK *ELITE*

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

ongi pasa feriak

Ind. Ordoki - Arizkun (NA)
T. 948 453 488 - M. 675 324 960

info@indauto.es

BAZTANERAK S. COOP.

NEKAZARIEN ZERBITZURA
Pentsuen fabrikazioa, abonoak,
gasolioa, fitosanitarioak, aseguruak,
nekazaritarako tresneria eta haziak

ORDOKI AUZOA, z/g - ARIZKUN
T. 948 45 33 10

ESKABAZIOAK DGOÑI

650 374 146
ELIZONDO

INTZA TABERNA

Ongi pasa feriak!
T. 948 580 417

**BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK**

Mendi ostatua

Eguneko menua
Bokatak - Pintxoak - Razioak - Pizzak
Deitu eta egin erreserbat
Goizeko Betatik gauerdirarte
T. 948 580 313

Tel. 948 452 394
Saskaltz Plaza,
31700 Elizondo

Maite Petrarena

Aseguru agentzia - Agencia de seguros **Allianz**

ONGI PASA FERIAK!

ESKISAROI

J A T E T X E A

Elizondo / T 948 580 013 / www.eskisaroi.eus

hiru

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA FERIAK

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoaak...
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -

Santiago 66, 1° - Elizondo - 948 580 122

- Etxebizitza berriak
- Zaharberritzeak
- Hirigintza
- Ziurtagiri energetikoak
- Eraikinen Ebaluazio Txostenak (EET/IEE)

www.laborra.com

DISEÑADOR
CERTIFICADO
PASSIVHAUS

EGUZKIALDE OSTATUA

Ongi pasa feriak!!!

Eguneko menua
Errazioak
Entsaladak
Sandwichak
Hanburgesak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

T. 948 45 26 26 - Santiago 43 - ELIZONDO

Gasna lehiaketa

Aurten, berritasun gisa, Elizondoko Ferietako I. Ardi Gasna Lehiaketa antolatu dute. Eskualdeko hainbat babesleri esker lortu dute ekimena aitzinera eramatea. Ortziralean, urriaren 28an, Iriarte frontoian egingen da eta eskualdeko hamar bat gasnagilek parte hartuko dute bertan. 11:00etatik 12:30era gasnak aurkeztu eta epaileen dastaketarako unea izanen da. 12:30ean gasna irabazleak iragarriko dituzte eta sariak banatuko dituzte; hiru gasna hoberenak, Baztango gasna hobereana eta Baztango ekoizlerik gazteena sarituko dituzte. Gainera, gasna onena enkantean paratuko dute.

Epaileak hainbat jatetxeetako sukaldariak izanen dira; Ignacio Idoate, Luismi Lakar, Beñat Ormaetxea, Sergio Ostiz de Zarate, eta Zigor Iturrieta. Epaile nagusia, berriz, Ana Matxiarena gasnetan aditua izanen da.

Lehiaketaz gain, Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteek azoka egingen dute frontoian egun osoan, eta Iparraldeko gasnagile eta ardogileak ere gonbidatu dituzte. Gainera, trikitixa soinuak alaituko du jardunaldia.



300 postu inguru

Bertakoak zein kanpotik etorritakoak, postuek Elizondoko karririk beteko dituzte asteburuan, gustu guzietarako produktuekin. Antolatzaileek egun batzuk lehenago markatuko dituzte karririk postu bakoitzeko zenbakiekin eta puzzlea osatzean «300 bat posturendako lekua izanen dela» aurreikusi dute. Saltzaile berriak izanen dira aurten, «baina betitik etortzen direnek izanen dute lehentasuna».

Saharaztan

Baztan Bidasoko Saharar Herriaren aldeko elkartean taldeak tonbola solidarioa paratuko du aurten ere. Eskualdeko komertzio eta zerbitzuei tonbolan sartzeko produktuak emateko laguntza eskaera luzatu diete. Dirua 'Oporrak bakean' proiekturako izanen da, «udan etortzen diren haur sahararren bidala ordaintzeko eta hemengo familiek harrera egin eta ongizate bat eskaintzea» helburu duena.



Pensos

Saioa

Pentsuak

ARTO MALUTAK

Aziendei jateko guttlago emanez emaitzarik hobereana izanen duzu



asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 **ELIZONDO**
T. 948 581 300

Eliza Kalea, 22
31740 **DONEZTEBE**
T. 948 450 395

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 **BERA**
T. 948 631 108

Eltzeta, 20
31770 **LESAKA**
T. 948 638 077

Aziendak

Merkatuko Plaza azien den erakusleho bihurtuko da bertze behin; behiak, zaldiak, ardiak... 500 animalia inguru elkartu ohi dira urtero eta aurten ere horrelako kopurua aurreikusit dute. Aziendazaleek eta abeltzainek erakusketa ederra izanen dute ortziraletan.

Makineria

Laxoko frontoia lanabes eta makineriaz beteko da feria egunean; traktoreak, sega-makinak, egurra lehertzeko makinak... Antolatzaileek azaldu digutenez, «frontoia moduloka banatu dugu, enpresekin harremanetan jartzen ari gara eta bakoitzari espazio finko bat gordeko diogu, behar duen lekuaren arabera».






**Pellet eta egurrezko estufa eta galdarak | Lurreko suak
Eguzki plakak | Haize errotak | Tximini garbiketak
Iturgintza lanak | Gasezko galdarak eta zerbitzu teknikoa
Komuneko altzairuen salmenta eta instalazioa**

Abartan 16B ELIZONDO
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

www.tinkaenergiak.com
tinka@tinkaenergiak.com

BB BLOK BAT TALLERES

Ongi pasa feriak!

www.blokbat.com

Talleres BLOK BAT, SL • Santiago, 85 • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898

MOTOSIERRA
120 MARK II

219€



Oferta válida hasta 31/05/2023

ANZABAL inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Ongi pasatu
feriak!



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



«Herritarrek gosez hartuko dituzte feriak aurten»

Aitor Bazterrika Zelaieta - Elizondoko alkatea

Elizondoko alkatetzak hartu zuenetik normaltasunez ospatzen diren lehenbiziko feriak ditu aurten Aitor Bazterrikak, eta «lan haundia» dela dio. Kargudunekin batera antolatzen ari da dena, «eta aitzineko alkatetzak taldea ere laguntzen ari zaigu».

Iraila erdialdera hasi ziren prestaketekin; «kontuan eduki behar da 2019an geroztik ez dugula deus antolatu eta saltzaille batzuk saltzetik utzi dutela pandemiagatik, bertze aunitzek telefonoa aldatu dutela, bertze batzuk lana aldatu dutela... orduan lehenbiziko aldaketa guzti hauek eguneratu behar ditugu. Gainera, aurten badira

ohiko postu batzuk etorriko ez direnak eta bertze berri aunitz etorri nahi dutenak. Horregatik, saltzaille berrien datuak hartu eta zozketa bidez esleituko ditugu lekuak, ohikoei lehentasuna emanaz».

Ferriak normaltasunez berriz ere

Aurten berriz ere ohiko feriez gozatzeko aukera izanen dugu; «300 bat postuendako lekua dugu, aitzineko egunetan herriko karraketan lekuak markatu eta zenbakituko ditugu eta gero postu bakoitzari leku bat egokituko zaio. Honez gain, saltzailleek postua biltzerakoan euren tokia garbi

BERRO BIDE



NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA TRESNEN KONPONKETA
ALOKAIRU ETA SALMENTA

Ordoki industrialdea - 31713 ARIZKUN
Tel.: 948 453 343 - administracion@berrobide.com



LTR

Ibilgailuen mantentze-lanak,
zirkuitu elektronikoen diagnostika
eta konponketak

Tel. 948 105 327 | 628 094 619
Ordoki Ind. 681 pabiloia, N-121-B | 31713 Arizkun
administracion@ltrbaztan.com

ELIZONDOko plazan EROSKI CITY

Astelehenetik Larunbatera:
09:00-21:00

Santiago 12 · ELIZONDO
T. 948 580 005



BEAARRAINDEGIA

esarte



uzteko baldintza bete beharko dute». Azienda eta makineria ere betiko lekuan izanen dira; «iaz bezala, lehengo alkatetza taldeko *Garra* arduratzen da gehien bat azienda erakusketaz, baita gure taldeko Hasier ere. 500 bat azienda buru espero ditugu; behiak, zaldiak, ardiak... denetik».

Gasna lehiaketa, egitasmo berria

Hala ere, aurtengo berritasun nagusia Elizondoko Ferietako I. Ardi Gasna Lehiaketa izanen da, ortzirale goizean Iriarte frontoian eginen dena. «Antolaketa solasean ari ginela horrelako zerbaitek egitea ongi egonen litzatekeela bururatu zitzaigun. Gastu handia izanen zelakoan udalarekin solastatu genuen, eta bertako enpresa batzuk babesle gisa laguntzeko prest zaude la erranez azaldu ziren. Sosa lortu dugu eta berarekin esker egiten ahalko dugu ekimena».

Lehiaketan Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Anue, Bertizarana, Malerreka, Bortziriki, Ultzama eta inguruko udalerrietako gasnagileek parte hartuko dute. 10 gasnagile inguruk eman dute izena eta hilaren 21era arte zabalik dago izena emateko epea». Lehiaketaren inguruan Baztango Zaporeak eta Artisausak izanen dira «eta keinu gisa Urepeleko gasnagile eta ardogileak gonbidatu ditugu. Gainera, trikitixarekin alaituko dugu ingurua eta giro polita izanen dugu».

Epaimahaia hainbat jabetzetako sukaldariek osatuko dute: Alhambrako

Ignacio Idoatek (Iruñea), Arotxako Lusimi Lakarrek (Legasa), Jauregibarrirako Beñat Ormaetxeak (Amorebieta), Zarateko Sergio Ostiz de Zaratek (Bilbo) eta ETBko Txoriene saioko Zigor Iturrietak. Epailen nagusia Ana Matxiarena gasnetan aditua izanen da. Sari banaketa ortzirale eguerdian eginen da eta hiru gasna hoberenak, Baztango gasna hobereena eta Baztango ekoizlerik gazteena sarituko dituzte. «Gainera, gasna irabazlea enkantean paratuko dugu eta dirua herriarendako izanen da».

Herritar guziendako gozatzeko aukera

Kirolarendako tartea ere izanen da asteburuan; «iaz bezala Aspe pilotaren partidak izanen ditugu, eta enpresak ekar dezakeen partidarik onena ekarriko dugu». Lerro hauek idazterakoan jokalariek zehazteke daude oraindik, baina sarrerak Futbolin ostuan egonen dira salgai aldezturik.

Ferietan gozatzeko aukera izanen du Bazterrikak, «baina egunean berean ere egiteko lan aunitz izanen ditugu; dena koordinatu behar da, azienda ekartzen dutenei gaitraioa ordaindu, pilota partida, gasna lehiaketa eta sari banaketa antolatu behar dira, bazkariak egin... lana pilaka izanen dugu seguru».

Herritarrek feriak «gosez» hartuko dituztela dio; «eguraldia lagun baldin badugu Elizondon jendetza izatea espero dugu eta giro ezin hobea izanen da feria egunetan».

«Gasna lehiaketako epaimahaia jabetzetako aunitzetako sukaldariek osatuko dute»



Goizalde ostatua

Ongi pasa feriak!!

- Pintxoak
- Eguneko menua
- Karta
- Plater kombinatuak
- Ogitarteak
- Eritsaladak
- Hamburgesak
- Emazloak

Jaime Gurrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

ARKUPE

Trokolateak

1984

IRURTIA
Dukeen plaza
T. 948560069
T. 948452021
(Ondarra)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T. 948452393

www.arkupegozategia.com

arteka

ARKITEKTURA ZERBITZUAK

www.artekabaztan.com

Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610

Baztan-Bidasoko lehen Passivhaus eraikin ziurtatua



ELBETE_{KO} POSADA

Udazkeneko Feriko
Menu Berezia

Karrikaundi • ELBETE • T. 948 581 519

info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com



Tel.: 948 580 257
Jaime Urrutia, 26 • Elizondo

«Gasna lehiaketek gure lanari ikusgarritasuna ematen diote»



Ramon Agirre Alzelai - Gasnagilea

1990.ean ireki zuten Autxitxia gasnategia Elbeten, Ramon Agirrek kontatu digunez, «gasnategi bat ireki nahi genuen eta aukera ikusi genuen». Ardi esnearekin egiten dute lan, eta gasnaz gain «gaztanberak, zenderena eta gaztamina» ere egiten dute.

32 urte gasna egiten

Gasna egiteko prozesua azaldu digu Agirrek: «lehenbiziko esnea epeldu behar da eta gatzaglia eman. Gatzaglia hartu duenean moztu eta zatitu behar da eta berriz ere berotu, 30 gradutatik 35-36 gradutara. Orduan gasna bere itxura hartzen hasten da. Gero presatsan sartzen da 6-8 orduz eta horren ondotik gatza eman behar zaio eta 15-18 orduz utzi gatza hartzen. Azkenik, ontzeko ganberan sartu behar da».

Prozesu hau erakusteko tailerrak egin izan ditu gasnategian; «denbora batez egin genituen eta gehienbat eskola eta ikastetxeetatik edo talde txikiak etortzen ziren, baina koronabirusarekin gelditu behar izan ginen. Orain berriz ere hastea gustatuko litzateke».

Jendearengana hurbiltzeko beharra.

2014an pausoa ematea eta Elizondondenda bat irekitzea erabaki zu-

ten; «bezeroengandik hurbilago egon nahi genuelako. Momentu horretan ezinbertzekoa bihurtu zen, oraingo errepide eta sailhesbideekin pixka bat kanpo gelditu ginelako. Honetan segitzeko, jendearengana hurbiltzeko beharra ikusi genuen». Bertan, Autxitxiako gasnaz gain, bertze hainbat produktu dituzte salgai; «hurbileko gasnak ditugu: ardiarenak, ahuntza-renak, behiarenak... eta bertako bertze hainbat produktu, sagardoa, ardo, ezti, giltxaurrak, marmelada...».

Gasna lehiaketa

Aurten, lehenbiziko aldiz, gasna lehiaketa antolatuko dute Elizondoko ferietan eta bertan parte hartzea erabaki du Agirrek; «arras ekimen inportantea iruditzen zait, lehenago zerbait hasi zen baina utzi egin zuten eta orain berreskuratzen bada, gure lanari eta artzainen lanari ikusgarritasuna emanen die. Horrelako lehiaketek gure lana aitortzen laguntzen dute, gure lana eta etxean gasna egiten ari ziren diren herritar guziena».

Izanen ere, gasnagileen jarduera «beharrezko lan bat dela» dio, «etxe-ko esnari errentagarritasun gehiago ateratzeko». Gainera, «gero eta gehiago baloratzen den lana» dela aipatu



Albaitaritza

www.albaitaritza.com

Tlfno.: 948 580 980

Materiala
Botika
Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

Albaitack

www.albaitack.com

Tlfno.: 948 506 169



ALBAIKIDE

Tfno.: 902 169 169

www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua

digu. «pandemiaz geroztik, jendea kontu eman da zein garrantzitsua den hurbiltasuna eta etxean egindako produktuak». Hortaz, momentu «itxaropentsu» batean ikusten du sektorea.

Lehiaketara helburu zehatzik gabe aurkeztuko dira Elizondon; «bertze hainbat gasnagilek bezala parte hartuko dugu eta ikusiko da. Gehienbat erakusleiho gisa balioko digu». Baina ez da lehiaketa batean parte hartuko duen lehenbiziko aldia; «azken aldian ez dugu parte hartzen, motelduak gaude nonbait, baina lehen Etxalarra, Amairra... joan ohi ginen eta

sari batzuk hartu genituen». Horrez gain, «Elizondoko ferietako lehiaketa» parte hartzeko gogoarekin gaude.

Horrez gain, ferietan bertze moduren batean parte hartuko dute aurten; «aspaldi honetan ez dugu posturik, paratu gasnategian egoten garelako, baina aurten zerbait berezia egiten saiatuko gara ferian parte hartzeko». Aitortu digunez, «ez naiz arras azien da zalea baina ferietan gustatzen zait pixka bat ikustera joatea, baita postuak ere. Giro polita sortzen da eta guti ikusten dudan jendearekin elkarrekin aukera ematen dit».



Ongi pasa ferietak!

ANTXITONEA
Trinketea

Braulio Iriarte 16, Elizondo
948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com



BAZTANGOZA
TALERRAK
Ongi pasa ferietak!

Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa, mantentze-lanak, mekanika, elektrizitate eta pneumatikoen salmenta. 2. eskuko kotxeen salmenta.

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
bartzangoiza@yahoo.es
www.bartzangoizataillerrak.com

NEKAZARITZARAKO TRESNERIAK

Orain Kubota ere!



BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIE TAN!!!



AROS-BERRI, S.A.

Tel. 948 581 021 / 948 580 258

irurita@arozberri.com - Ctra. NA-8307, km 0'8 - 31730 IRURITA (Navarra)

www.arozberri.com

Gureaut
TAILERRAK

ongi pasa
feriak!!

Mekanika, elektrizitatea,
Ibilgailuen salerosketa

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

mañonea ONGI PASA
FERIAKI!



ASEGURUAK

AGENTE ESklusiboa
Empeltze Zela - 0007287137304

www.mañonea.com

Kontable, zerga, lan eta juridiko
AHOLKULARITZA
Barride komunitateen kudeaketa
(administrazioa, kontuak...)

Braulio Iriarte karrika, 9
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mainonea.com

BAZTAN MOTOR, S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA



JOHN DEERE



GOES



CFMOTO

ONGI PASA FERIAKI!

Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55



«Ferietan postua paratuko dugu Ikasbidaia antolatzeko»

Ane, Naxara eta Uxue - 4. DBHko ikasleak

Lekarozko institutuko 4. DBHko ikasleak dira Ane Urreaga, Naxara Aleman eta Uxue Bikondo, eta urteroko ohiturari segituz, Aste Santuan ikasbidaia joateko prestatzen hasi dira klasekideekin batera. 50 bat ikasle parte hartuko dute aurten bidaian eta Saloura joanen dira bortz egunez.

Ikasleak «arras gogotsu» daude bidaiarako: «bidean *paintballean* arituko gara joanaldiari xarma emateko eta hain astuna ez izateko. Behin Salouera ailegatuta, hainbat jarduera egingen ditugu bertan egunero. Horietako egun batean Port Aventura jolas parkera joanen gara eta egun

osoa pasatuko dugu bertan. Hondartzara joateko intentzioa ere dugu, eta gabaz lagunekin ongi pasatuko dugu Salouetik barna».

Bidaiaren antolakuntza

Bidaia egiteko ezinbertzekoa da sosa, eta ikasleek argi dute dirua lortzeko mugitu behar direla; «maiatzean Herri Urratseko autobusa antolatu genuen, eta aurtengo Nafarroa Oinezera joateko autobusa ere antolatu dugu. Orain ferietako salmenta prestatzen ari gara». Dena koordinatzea ez da erraza, eta bilerak egiten dituzte «gauzak eztabaidatzeko eta denon artean erabakiak hartzeko».



ELIZONDOKO
HERRIA

ongi pasa feriak!

Ferietako postua prest

Elizondoko ferietan, ohikoa den bezala, postua paratuko dute plazan. Bertan, jertseak eta poltsak izanen dira salgai, ikasleek egindako diseinuarekin: «joan den uztaillean aukeratu genuen diseinua; aukera bat baino gehiago egin genuen eta bozketa bidez Xuban Saharrearena hautatu genuen». Hau izan da aukeratutako diseinua:



250 jertse eta 100 poltsa inguru eskatu dituzte; «beltzan, berdean eta grisean. Jertseak 20 eurotan egonen dira salgai eta poltsak 10-12 eurotan». Horrez gain, pintxoak eta boletxoak salduko dituzte, «eta tonbola ere egingen dugu. Egun oso pasatuko dugu hor». Azkenik, feria egunetan jendea postura hurbiltzera animatu dute; «auniz eskertuko genuke gure jertseak eta poltsak erostera etorriko bazinate!».

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

ferreteria Quevedo



Santiago 31 • ELIZONDO

Tel. 94 580 234

www.ferreteriaquevedo.com

ALMACO Eraikuntzako materialak

Santiago 93, 31700 Elizondo

www.almacobaztan.com

Tel. 948 580 104





Edozein joan daiteke liburutegira haziak eramatera edo uztera. ELENA ARTETA

Hazien bilduma sortzeko proiektua liburutegian

Tokiko eta inguruko haziak mantentzeko eta ugaltzeko asmoz, hazien bilduma egiteko proiektua abiatu dute

TTIPI-TTAPA

Hazien Liburutegia. Kultur Asaldura. Horixe da liburutegian martxan jarri duten proiektuaren izena. Liburutegia hazien liburutegi tiki bat bihurtu dute eta hazien trukea eta mantentzea kudeatuko dute. Gisa honetara, «landa mundua, tokiko nekazaritza iraunkorra eta nekazaritza intentsibotik urrun dagoen kontsumo eta bizi erdua bultzatu» nahi dute.

Nafarroako Liburutegien Sareak eta Nafarroako Hazi Sareak hasi dute proiektu honen bidea, INTIA, CITA eta NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera. Nafarroako beste liburutegi publikoetan ere martxan dute eta irail bukaeran herriko liburutegian egindako aurkezpenean jarri zuten abian Leitzakoa.

Elena Arteta liburuzainaren hitzetan, «denon artean, modu komunitarioan, tokiko eta inguruko hazien bilduma sortzen saiatuko gara, hazi horiek berreskuratzeke, mantentzeko eta ugaltzeko». Interesa duen edozein joan daiteke liburutegira tokiko edo intereseko haziak eramatera edo uztera. Eskatzen



Hazien liburutegiko irudia. E. ARTETA

duten bakarra «landu eta jaso ondoren haziak itzultzea edo beste hazi batzuk ekartzea da» hartara, «bildumari eusteko, eta ahalik eta modu ekologikoenean lantzeko».

Honekin batera, tailerra, hitzaldiak eta topaketak egiteko asmoa dute. Horieta bat da Ahaztutako Ahotsen Hiztegia Mintegia, «eskualde bakoitzeko hitzak, esaerak, kantak... bildu eta liburutegiak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera sortzen ari diren blog batean jasotzeko».

Proiektu honi lotuta, «gerora, hazien zaindari bat» nahi dute. Oraingoan, ordea, liburuzaina izanen da arduraduna eta «ongi ateraz gero, liburutegiko beste zerbitzu bat bihurtuko da».

Agendako hainbat kontu ondoko egunetan

TTIPI-TTAPA

Hainbat hitzordu izanen dira ondoko egunetan herrian. Ostegun honetan, esaterako, urriaren 20an, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Adin txikikoen tratu onen Sareak antolatuta, musika, dantza eta ipuinekin jolasteko hitzordua izanen da. Haizea Loira musikoterapeutak gidatuko du eta dohainik da. Bederatzi eta hemezortzi hilabete bitarteko taldea 16:00etatik 17:00etara bilduko da eta hemeretzi eta 36 hilabete bitarteko taldea 17:30etik 18:30era. Udaletxeko bigarren solairuan elkartuko dira eta izena emateko epea urriaren 14an bukatu zen.

Mahai ingurua eta ipuin kontaketa

Larunbatean, urriaren 22an, *Amnistia eta errepresioa iraganetik gaurkotasunera* izenburupean mahai ingurua antolatu du Jardunek Herri Aretoan, 12:00etan. Eta urriaren 27an, Joana Ziganda eta Iker Uriberen *Bideak* lanarekin ipuin kontaketa egingen dute liburutegian. 18:00etan hasiko da.

Nievek ez du nahi bezala agurtu profesionalen mundua

Hamabost urteko ibilbidearen ondoren, beste era batera agurtu nahi zuen Mikel Nieve Iturralde txirrindularitza profesionala, baina ezin izan du. Caja Ruraleko txirrindulariak urriaren 8an Lombardiako Giroan jokatzekoa zuen bere azken karrera, baina erori egin zen, eta min hartuta eraman behar izan zuten. Helmugara ailegatzeko 150 kilometro baino gehiago falta zirenean gertatu zen ezbeharra, jaitsiera batean erori eta klabikula hautsi zuen. Ez da nahi bezalako agurra izan, baina utzi duen arrastoa hortxe geldituko da.



Mikel Nieve. CAJA RURAL



JULIAN ZABALETA

Giro ederra Aurrera egunean

Eguraldi onarekin ospatu zuten urriaren 1ean XIV. Aurrera Eguna. Egun osoko pesta izan zuten, eta Aurrera elkarteak «oso balorazio positiboa» egin du: «parte hartze zabala izan zen ekitaldietan». Eguerdian, esaterako, 120-130 bat lagun elkartu ziren Karrapen egindako bazkideen bazkarian.

Planaren zirriborroa herritarrekin partekatuzeko ordua

Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren zirriborroa jendaurrean aurkeztuko dute asteartean Herri Aretoan

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren aurkezpen publikoa urte amaieran egin nahi dute, eta hori baino lehen, herritarren ekarpenak jasotzeko foro irekia egingen dute datorren asteartean, urriaren 25ean, Herri Aretoan.

Planaren talde eragilea Cederna Garalurrek, Plazaola Partzuergo Turistikoak eta eskualdeko hamaika udalek osatzen dute: Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitz, Betelu, Lekunberri, Larraun, Imotz eta Basaburuak. Eta hain zuzen, hurrengo hiru urteetan eskualde horren garapen ekonomikorako bide orria izanen da plana. Bost sektore ekonomiko aukeratu dituzte ekintza plana diseinatuzko: elikadura osasuntsua eta jasangarria, energia berdearen industria, industria

orokorrean, turismo jasangarria eta merkataritza eta ostalaritza.

Planaren diseinua parte hartze prozesu baten bidez egingen ari dira, eta horretarako eskualdeko eragile adierazgarrienekin 35 elkarrizketa eta berderatzi lan saio baino gehiago egin dituzte. Orain arte egingandako lanarekin zirriborroa osatu dute eta eskualdeko herritarrekin partekatuko dute astearteko saioan.

Izen ematea

Foroan parte hartzeko aurretik izena eman beharko da, mendialdea@cederna.es helbidera idatzita edo telefonoz 606 40 86 14ra deituta. Cederna Galurrek aurreratu duenez, «ahalik eta parte hartze handienekoa izatea» nahi dute, «Mendialdean nahi dugun etorkizuna denon artean sortzeko ilusioa baitugu».



LEITZAKO UDALA

Mimukai jardunbide egokien adibide

Herritarren partaidetzari lotutako bost proiektu saritu ditu berriki Nafarroako Gobernuak, «parte hartzeko praktika egokien adibidetza» hartuta eta horietako bat izan da Mimukai garapen eta eraldaketa zentroaren parte hartze prozesua. Aitortza urriaren 3an egingandako ekitaldiak hartu zuten.



MIKEL ZABALETAK UTZITAKO ARGAZKIA

200 bat lagun eraso faxisten aurka

Irailaren 3an herritar baten aurka egingandako eraso faxista salatzeke, elkarretaratze jendetsua egin zuten irailaren 30ean plazan. Udalak deituta, *Eraso faxistarik ez!* lelopean 200 lagun inguru bildu ziren. Pestetako erasoak salatzeke beste elkarretaratze bat egin zuten abuztuaren 18an eta 150 bat lagun bildu ziren.



Urriaren 3an 'Aldamenekoa' liburua izan zuen hizpide irakurle taldeak. ELENA ARTETA

Ainara Gorostitzuren bisitarekin hasi dute irakurle taldearen ikasturtea

TTIPI-TTAPA

Urriko aurreneko asteazkenean abiatu zuen ikasturtea irakurle taldeak, Ainara Gorostitzu Mujika idazle eta kazetariaren bisitarekin. Idazleak 2012an idatzitako *Aldamenekoa* liburua izan zuten hizpide. Tene Mujika beka hartuta idatzi zuen eta hainbat arrazoirengatik beraien jaioterriak uztera behartuak izan ziren hamaika andre eta gizonen testigantzak bildu zituen. Liburuaidazterakoan izan zuen esperientzia eta Euskal Herrian emigrazioaren errealitateari buruzko bere ikuspuntua partekatu zuen Gorostitzuk

irakurle taldeko kideekin. Elena Arteta liburuzainak eta irakurle taldeko kideak kontatu duenez, «topaketak era guztietako gogoetak eta iritziak sortuzituen, beti bezala giro hurbilean eta erabateko errespetuan».

Bide batez, irakurle taldean parte hartzeko deia luzatu dute. Nahi duenak egin dezake, izena eman eta liburua eraman beste lanik ez du. Normalean hilabeteko bigarren asteazketan biltzen dira, 18:00etan. Hurrengo hitzordua azaroaren 9an egingen dute, Javier de Isusiren *Baleak ikusi ditut* eleberri grafikoaz aritzeko.

«Etsipenera iltzatu nahi gaituzte baina gauzak alda daitezke»

EÑAUT LASARTE AGIRRE, NAROA ERBITI GOIENETXE, MAITANE BILLABONA ZABALETA

Independentziarako Indarra dinamikaren baitan, herriz herri solasaldiak egiten ari dira hilabete honetan Leitzan, Areson eta Lekunberrin. Egitasmoa Independentzia Egunarekin bukatuko dute

G. PIKABEA LEITZA

Mendialdean herriz herri mar txan duten Independentziarako Indarra dinamika borobiltzeko, Sortuk, LABek eta Ernaik Independentzia Eguna antolatu dute azaroaren 5ean Leitzan. Horren harira mintzatu dira Eñaut Lasarte Agirre irakaslea eta Sortuko kidea, Naroa Erbiti Goienetxe unibertsitateko ikaslea eta Ernaiko kidea eta Maitane Billabona Zabaleta Torraspapeleko langilea eta LABeko kidea TTIPI-TTAPAREkin. Independentismoa bizirik dagoela diote hiru leitzarrek eta «borrokarako, elkarlanerako eta herrigintzarako» deia egin diete herritarrei.

Zein helbururekin antolatu duzue Independentzia Eguna?

Independentziarako Indarra dinamika garatzen gabiltza Mendialdean. Euskal Herrian independentismoa bizi-bizirik dagoen mugimendua dela erakutsiz, eta independentziaren aldarría herriz herri garatuko diren solasaldien bidez hezurramituz. Independentzia Egunarekin, berriz, dinamika bera borobildu nahi dugu, jai giroa eta aldarrikapena uztartuz.

Nolako eguna izatea nahi duzue?

Garai batean aipatzen zen mar txia eta borrokarako eguna izanen da. Sorturen eta oro har ezker independentistaren bueltan ari garenok ez dugu aspaldian aukera handirik izan jai giroan elkarrekin egoteko eta gure gorabeherak modu informalean partekatzeke. Beraz,

ezker abertzaleko kideontzat topagune izatea nahi dugu, horretarako antolatuko ditugun solasaldi, bazkari, ekitaldi politiko edota kultur eskaintza baliatuz. Baina hau guztia ez dugu gure komunitateari begira soilik antolatu, jakin bada kigulako ezker abertzaletik kanpo independentzia eta eraldaketa sozialaren aldarriekin bat egiten duten herritarrak badaudela eta horiei ere bertaratzeko gonbita egin nahi diegu. Argi dugu independentziarako jauzia eman ahal izateko elkarlanean ari behar dugula.

Euskal Herrian independentismoa bizi-bizirik dagoen mugimendua dela diozue. Azalduko zenukete?

Proiektu independentista inoiz baino sendoago dago Euskal Herrian. Instituzionalki independentismoa inoiz izan duen indar handiena du Euskal Herriko eremu administratibo guztietan. TmeLab-ek Euskal Herri osoan eginiko inkestek berresten dute Euskal Estatua rekiko dagoen aldeotasuna. Are gehiago, 2008an lehertutako krisi sistemikotik hona, Europa mailako joera izaten ari da independentismoaren azkartzea, bai Euskal Herrian, bai Herrialde Katalanetan, Eskozian

«JAI GIROA ETA ALDARRIKAPENA UZTARTU NAHI DITUGU»

edota Irlandan. Orain ere badirudi Europan burujabetzaren aldeko olatua altxatzen hasiko dela Eskozia eta Irlandatik abiatuta, eta olatu hori hartuz, ahalik eta urrunen heltzea izanen da gure erronketako bat, beti ere nazio gabeko estatu horiekin elkarlanean.

Eta Mendialdean?

Mendialdea ere Europa eta Euskal Herriko joeren isla da, sakoneko joera baita. Horren adibide, Nafarroan independentismoak lortutako emaitzak eta eragiteko duen gaitasuna pentsaezinak zitzaizkigun orain dela urte gutxi. Sakoneko aldaketa hauek Mendialdean eta Nafarroan hainbat esparrutan herrigintzan diharduten herritarren ekarpenaren ondorio dira, izan euskararen alde, izan feminismoaren alde, izan lan baldintza duinen alde, izan trantsizio energetikoaren alde, izan zaintza sistema publiko eta komunitarioa eraikitzearen alde edota izan udalgintzan eraikitzen diren hainbat proiekturen alde. Hori da independentzia indartzen jarraitzeko bidea. **Herritarrek independentzia posible ikusten dute?**

TmeLab-ek Euskal Herrian egindako inkestek 2020ko aben-

«INDEPENDENTISMOA BIZI-BIZIRIK DAGOEN MUGIMENDUA DA»

duan ateratako datuen arabera, euskal herritarren % 42,5ek Euskal Estatuaren alde bozkatuko lukete adostutako bozketarekin. Horrek erakusten du independentzia aukera gauzagarria dela euskal herritarren kopuru oso handi batentzat. Aukera hori, gure ustez behintzat indartu egin daiteke Eskozian edota Irlandan independentzia gauzagarria dela frogatzen duten unean. Gainera, Euskal Estatuaren aldeko borondatea adierazi zutenek hantur hori zuzenean lotzen zuten bizitza hobea izan eta politika sozial sendoagoak izatearekin.

Pandemiak nolako eragina izan du independentismoan?

Pandemiak gure bizitzak erdi zeharkatu ditu. Gure bizitzaren zaurgarritasuna aurrez aurre ikusi dugu. Egoera horretan, noski, independentziaren aldeko aldarría lausotu egin da, lehentasunak beste esparru batzuetan kokatu baitira, besteak beste, gure bizitzetan, enpleguan, osasungintzan eta zerbitzu publikoen defentsan, edota zaintzan. Ditugun eskumenak eta burujabetza maila ere maiz zapalduak izan dira estatuek hartutako erabaki politiko bidez. Independentziarako Indarra dinamikaren helburua aldarría hori gure agendetara ekarri eta gure eguneroko premiekin lotzea ere bada.

Independentziatik mundu hobea eraiki daitekeela diozue. Zein ekarpen egin dezake independentziak?

Une historiko berezian gaude. Kapitalismoaren garapena zibilizazio krisi bat eragiten ari da. Ezberdintasun sozialak inoiz ez bezala areagotzeaz gain, bizitzaren iraunkortasuna eta planeta bera kolokan jartzen ari da. Potentzia kapitalisten arteko talka eta gerren areagotzeak, krisi klimatiko eta energetikoak, zaintza krisiak edota migrazio masiboak sorturiko krisi humanitarioak eta horien guztien ondorioak sistema sostengaezin bilakatu dute. Egoera makur hau fenomeno meteorologiko bat bailitzan aurkezten digute batzuek. «Ekaitza



Ezkerretik hasita Eñaut Lasarte, Naroa Erbiti eta Maitane Billabona. UTZITAKO ARGAZKIA

dator». Eta guk diogu erabaki politiko eta ekonomikoan kate luze batek ekarri gaituela honaino eta egoera honek erantzuleak dituela; IBEX-35a, armagintzaren industria, putre funtsak. Banketxeak, Iberdrola, Petronor, elite ekonomiko eta finantzarioak dira erantzuleak, baita hamarkadetan aplikatutako politika neoliberalak ere. Erantzulea kapitalismoa bera da, azken finean. Eta erantzuleak dira hamarkadaz hamarkada gure herriaren askatasunerako nahiak etengabe zapaldu dituzten estatuak. Baina badago berri on bat: dena alda daitekeela. Aldaketa sakonen garaian murgildu gara, eta horien norabidea da jokoan dagoena. Etsipenaren aurrean, esperantzaren banderara altxatzen dugu guk, esperantzaren aktiboaren bandera; nazio harrotasunarena; antolakuntza eta borrokarena; elkarlanarena eta herri aktibazioarena; egunerokoan edozein herritarrek egin dezakeen ekarpen politiko eta sozial xumearen bandera.

Etsipenera iltzatu nahi gaituztenen aurrean, itxaropena eta alternatiba badagoela hedatzea da une honetako gure ekarpen nagusienetako bat.

Hortaz, itxaropenerako mezua luzatu nahi duzue...

Itxaropen aktiboa da alternatiba gauzatu daitekeenaren bermea. Eta itxaropen eta alternatiba hau, noski, egunerokoan garatu ditzakegun erabaki eta borroketan oinarritzen da. Alternatiba horrek gerraren de-

«HERRITARRAK PARTE HARTZERA GONBIDATU NAHI DITUGU»

«ESPERANTZAREN BANDERA ALTXATU NAHI DUGU»

seskalatzea, konponbide diplomatikoa eta negoziatua izanen du; energia eta etxebizitza merkatuaren interbentzioa; soldaten eta pensioen igoera; aberastasunaren eta zaintza lanen banaketa erradikala, zerbitzu publikoen indartzea eta zaintza sistema publiko komunitarioaren eraikuntza. Alternatibak estatu propioa izena du, burujabetza aldaketa politiko, ekonomiko eta soziala gauzatu ahal izateko. Azken finean, alternatiba independentzia eta sozialismoa da. Beraz, itxaropen olatu bat altxa beharra dago, kalean zein instituzioetan, dauden aukeren baitan albait aurre-rapen, tresna eta, funtsean, albait botere gehien eskuratzeko. **Zein dira bereziki kezka sortzen dizueten gaiak?**

Mendialdean Independentziarako Indarra dinamikako solasaldietan nabari den gisara, gure komunitatean eta, oro har, herritarren artean ezinegon handiena sortzen dutenak bizitzaren garestitzea, larrialdi

klimatikoa, zerbitzu publikoen ahultzea, zaintza lanen banaketa edota euskararen egoera dira. Horien aurrean, burujabetza gehiago lortu eta nazio nahiz estatu egiturak eraikitzen jarraitzea funtsezkoa izanen da, Euskal Herritik Euskal Herrira. Izan ere, eraldaketa sozialaren ikuspegitik Espainia edota Frantzia eraldatzea ezinezko ikusten dugu. Esaterako, nola garatuko dugu Euskal Herrira egokitutako energia trantsizio eraginkor bat ez badugu energia-politikaz erabakirik hartzen?

Zein mezua luzatuko zeniekete herritarrei?

Itxaropen aktiborako deia egiten dugu, gauzak alda daitezkeelako, eta badagoelako alternatiba; eta, noski, borrokarako, elkarlanerako eta herrigintzarako deia egiten dugu. Bide horretan, antolatutako solasaldietan eta Independentzia Egunean parte hartzea gonbidatu nahi dugu Mendialdeko herritar oro, independentziarako indarra metatzen jarraitzeko.



Feria Eguna azaroaren 26an izanen da. FELIX LOIARTE

Ekitaldiz beteta datoz urria eta azaroa

Azaroaren 26an Feria Eguna izanen da baina aurretik hainbat kultur ekitaldi izanen dira

TTIPI-TTAPA

Ez da aspertzeko tarterik izanen ondoko hilabeteetan, ekitaldiz ongi hornitutako egunak heldu baitira. Hitzaldiak, mendi irteerak, dokumentala, bertso musikatuak, kontzertua, feria eguna eta gehiago izanen dira urrian eta azaroan.

Komunikazio ez bortitza hizpide ostiralean gurasoekin

Ostiral honetan, urriaren 21ean, emanen diote hasiera Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako hitzaldi zikloari. Lau hitzaldi

eginen dituzte guztira, eta aurrenekoan komunikazio ez bortitzari buruz hitz eginen dute. Haurren eta nerabeen gurasoei zuzendutako hitzaldia izanen da, eta 17:30ean udaletxeko ganbaran hasiko da. Zaintza zerbitzua ere izanen da baina izena astearterako, urriaren 19rako, eman beharra zen.

Komunikazio ez bortitzeko hezitzailea den Nerea Mendizabal izanen da hizlaria. Gizarte hezkuntzako diplomatua da, psikopedagogian lizentziatua eta haur masajeko hezitzailea.

Ganbarako ikus-entzunezko ekipamendua berri du udalak

TTIPI-TTAPA

Udaletxeko ganbara izaten da kultur jardueraren askoren biltokia. Horregatik, erosoago lan egiteko eta ekitaldiez gehiago gozatzeko soinu eta musika ekipoa berria jarri ditu udalak. Alde batetik, agertokia aldeztatu eta igogailua atzeko aldean

gelditu da. Bestetik, agertoki gainean 300x291 cm-ko pantaila elektriko jarri dute, aurreko proiektagailu finko batekin eta, bi aldeetan lau bozgorailu jarri dituzte. Hainbat mikro ere jarri dituzte eskura. Udalak 8.153,22 euroko inbertsioa egin du.

Hiru Erregeen Mahaira irteera

Euskal Herriko gailurrik altuenera, Hiru Erregeen Mahaira antolatu du urriko irteera Arainburu Mendi Taldeak. Larunbat honetan, urriaren 22an, egingen dute. 05:00etan aterako dira plazatik autobusez Linzara. Handik Hiru Erregeen Mahaira joanen dira eta zortzi ordu inguruko itzulia izanen dela aurreikusitako dute. Itzulera 20:00etarako egingen dute herrira. Denera, 17,21 kilometrotako itzulia izanen da, erdi mailako zailtasuna duena, eta 1.219 metrotako desnibela izanen du.

Elamako burdinolara bisita gidatua

Artikutzaren alde ezezaguna eta industrializatuena ezagutzen hasteko Elamako burdinolara bisita gidatua egingen dute igandean, urriaren 23an.

09:00etan aterako dira eta sei kilometroko ibilbide erraza izanen da. Bidean Elamako burdinolaren eta inguruko meategien arrastoak ezagutuko dituzte. Izena 679 61 30 16ra deituz edo Whatsappez edo Donostiako Udalaren webgunean egin daiteke.

Aranzadiren hitzaldia

Aranzadi Zientzia Elkartek sugeei buruzko hitzaldia emanen du urriaren 24an, astelehenean, Ganbaran. Ane Fernandez herpetologoak hartuko du hitza suge espezieen inguruko informazioa emateko. Eta horrez gain, su-

geei buruzko erakusketa zabalduko dute Ganbaran, suge bakoitzaren argazkiekin eta informazioarekin.

'Kontsumituko dugun energiaren ardura hartzera goaz' hitzaldia

Mendialdea Mankomunitateak energia berriztagarrien komunitateak sortzeko pausoak ematen hasia da. Goiener kooperatibaren laguntzarekin egin nahi dute bidea eta hasteko, *Kontsumituko dugun energiaren ardura hartzera goaz* izanen da, erdi hitzaldi antolatutako dituzte. Hain zuzen, Goizuetako saioa urriaren 27an izanen da, 18:30ean. «Energetikoki burujabeak izan eta herritarren harremanak indartu» nahi dituzte, «inguruan dauzkagun baliabide naturalak aprobetxatuz energia berriztagarrien aldeko apustua eginez».

'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Iñaki Peña gidoigilearen eta zuzendariaren *Mendian hil, hirian hil* dokumentala ikusteko aukera izanen da urriaren 28an, 18:30ean, Ganbaran.

Azaroan eta abenduan gehiago

Azaroan segituko dute kultur ekitaldiek. Azaroaren 11n, bertso musikatuak izanen dira Ganbaran; azaroaren 25ean Alarma morea taldearen kontzertua antolatu dute gazte txean; azaroaren 26an Feria Eguna hartuko du lekukoa eta abenduaren 10ean Ekain pailazoaren saioa izanen da.

Liburutegi ibiltaria ostiral honetan etorriko da

Leitzako liburutegian ostiral honetan, urriaren 21ean, egingen du geldialdia Goizuetan. Ohi bezala, liburutegiko maletatxoa hartuta etorriko da Elena Arteta, eta 14:30etik 15:30era nahi duenak liburutegi ibiltarira hurbiltzeko aukera izanen du.

Umore Ona Abesbatzako kide egiteko deia

Umore Ona Abesbatzak ere hasi du ikasturtea. Joan den urriaren 14an egin zuten aurreneko saioa eskolako musika gelan, 19:30ean. Kantua gusutuko duten guztiei egin diete parte hartzeko deia. Abesbatzako edozein kideri abisatuta eman daiteke izena.



Araztegiko lanak bide onetik doaz. JOXAN RUIZ

Abendurako araztegia martxan izanen da

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du araztegi berriko obraren gastua

TTIPI-TTAPA

Eguraldiak laguntzen badu, abendurako araztegi berria martxan izanen da. Halaxe aurreratu du Joxan Ruiz alkateak eta horrekin batera, lanak «bide onetik» doazela gaineratu du.

Alkateak berak aspaldi adierazi duen «ezinbestekoa zen azpiegitura» dela araztegia, zaharra aspaldik egoera kas-karrean zegoelako. Urteak pasatu dira udalak NILSA erakunde publikora jo zuenetik, eta azkenean etorri da orduko eskaeraren erantzuna, espero baino beranduago hala ere.

Izan ere, hasiera batean, araztegia joan den urterako martxan izanen zela adierazi zuten.

Bigarren deialdian

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du obraren gastua. Lehen aldiz lizitazioa atera zutenean, ordea, hutsik gelditu zen deialdia, eta hasieran aurreikusitako 470.000 euroko aurrekontua zertxobait igo behar izan zuen. Horri duela bi urte hoditeria berritzen egindako lanak gehituta araztegi berriko lanak «700.000-800.000 bat euro» kostako direla kalkulatu du alkateak.



Ruizek Iruñean hartu zuen errefusaren txapelketako oroigarria. UTZITAKO ARGAZKIA

Aranok irabazi du eskualdeko errefusaren txapelketa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Hondakinen Partzuergoa osatzen duten hamalau mankomunitateren artean errefusaren txapelketa egin dute, birziklapena sustatu bidenabar, ahalik eta errefus gutxiena sortzeko. Hala, maiatzaren 2tik uztailaren 2ra 183 herritan biztanle bakoitzeko zenbat errefus

bildu duten neurtu dute, eta Mendialdea Mankomunitateak hartzen duen eremuan Arano izan da daturik onena eman duena, hau da, biztanleko errefus gutxiena sortu duena. E-mailtza aitortuz, urriaren 7an Nafarroako Parlamentuan sari banaketa egin zuten eta hantxe izan zen Joxan Ruiz alkatea.

Liburutegi ibiltariak ostiral honetan egingen du geldialdia

TTIPI-TTAPA

Udako oporrak bukatuta, irailaren 23an egin zuen Elena Arteta Leitzako liburuzainak ikasturte honetako lehenengo bisita liburutegi ibiltariarekin. Aste honetan egingen du bigarrena, zehazki, ostiral honetan, urriaren 21ean, etorriko da,

eta 16:00etatik 16:30era herrian izanen da. Beti bezala, liburu aukera zabala eskuetan duela egingen du bisita.

Liburuzainarekin harremanetan jarri nahi duenak hainbat bide ditu: 621 24 80 24, 948 51 03 79 edo biblilei@navarra.es.

2023ko egutegiak

Hainbat modelo

Sakelakoak, paretan jartzekoak, mahai gaineakoak, posterrak, hozkafluko imanak, CD...

Ehun urte bete ditu Nazabal eskolak

Domingo Nazabal herritarrek 1922an aresoarrei egindako oparia izan zen eskola, Ameriketara egindako diruarekin eraiki zuena. Mendeurrena gogoan ospakizun egun haundia egin dute herritarrek berriki

ENERITZ IRAOLA

Zenbaki potoloa da berez ehun. Are potologoa urteez ari bagara. Eta esanahi berezigoa dute ehun urte horiek bertatik ehunka ikasle pasa direnean. Mendeurrena festa bihurtuta, eskolako ateak ireki eta eskolaren historiari errepasoa egin diote aresoarrek. Garai bateko argazkietan, horitutako liburuetan, antzerki eta bertsoetan, bazkalondoko kontuetan... beste behin ere erakutsiz, eskola eta herria eskutik doazela; bata ezin dela bestea gabe ulertu.

Pestarako apropos konpondutako ezkilak joz hasi zuten urriaren 1ean ospakizuna. Ordurako jendetza bildua zen eskola atarian. Ezkilen azpian dagoen horma-irudia ere txukundu dute eta argi ikus liteke orain nori esker duten herrian eskola. Bertan Domingo Nazabal ageri da eta irudiaren azpian dago idatzia: *Ikastol abec egin dizkigun Nazabal Leicegoyenatar Domingo jaunari gaur eta beti zorr diyozka esker ugarryyak Aresoko erriyak eta beñere etzayo aztu bear mesede au 1922.*

Duela 100 urteko horma-irudi berbera da eta erdi ezkutuan egote horrek salbatu zuen seguruenik euskaraz idatzirik zegoen testua frankismoaren atzaparretatik. Urteetan erdi ezkutuan egon dena azalera atera eta merezitako aitortza egin nahi izan diote orain. Eskolako haurrek abestutako bertsoetan ere gogoan izan zuten Domingo Nazabal, baita Udalak eta eskolako zuzen-



Egun osoko pestarekin ospatu zuten mendeurrena aresoarrek. E. IRAOLA

DOMINGO NAZABAL HERRITARRAK EGIN ZITUEN ESKOLAK 1922AN

1970EAN ELKARTU ZITUZTEN NESKATO ETA MUTIKOAK IKASGELAN

dariak egindako aurkezpenaren ere.

Nazabal gogoan

Izan ere, herrian ezaguna da Domingo Nazabalen izena, baina ez herritik kanpo. Kubara bizi berri baten bila joan eta sorterrria ahaztu ez zuen haren istorioa da berea.

Domingo Nazabal Leizegoiena Areson jaio zen 1860an. 1876an iritsi zen Kubara, hamasei urte zituela, eta Cienfuegos-en finkatu zen. Bertan bizi izan zen 1926. urtean hil zen arte. Kubako hainbat jardueraren ekonomikotik inbertsioa egin, elitean sartu eta errekonozimendu sozial nabarmena izatera iritsi zen, bertako funtzio sozial, militar eta politikoan karguak izatera pasatzeraino. Ameriketara lortutako diruarekin hainbat eraikin egin zituen herrian, tartean herriarentzat eskola.

Zuzeneko testigantzak

Garai bateko kontuak protagonisten ahotik entzuteko aukera ere izan zen mendeurrenoko pestan. Hitzordura gonbidatu zituzten bi irakasle hartu zuten hitza: Maria Jesus Zabaletak eta Mertxe Amondarainek. Frankismo garaiko irakaslea bata, eskolan euskaraz irakasten hasi zireneko beste. Adi entzun zituzten bertaratutakoek beraien bizipenak baita arratsaldeko bideo emanaldian jasotako Ageda Treku Zubiriren hitzak ere.

Bizi izan balitz, 105 urte beteko zituen Agedak eta grabazio zaharrei tiraka, berea izan da jaso duten testigantza zaharrena. Eskola berriko lehenbiziko ikasleetako bat izan zen eta ongi gogoan zuen aldaketa: «eskola tiki bat genuen eta eskola berriak egin zituztenean hara pasa ginen. Bi eskola egin zituzten; mutilak batean eta neskek bestean, bi eskolak beren maisu-maistraren etxeekin. Mutilek trinketea zuten frontoi itxurakoa, eta neskek berriz trinkete soila».

Goizeko bederatzietan hasien zituzten eskolak eta ezki-lakjota adierazten omen zuten eskolara sartzeko ordua zela. Egunerokoan nabari zen erlijioak eskolan bertan zuten indarra. Hala azaldu zuten Agedak: «eskolan santokristoa egoten zen erdi-erdian, gurutzeta eta erregearen erretratoa ere bai. Eskolan sartzerakon orazioa egiten genuen, gurutzeta santua egin eta ateratzerakoan berdin».

Gerra ondorena

Urtetan mantendu zen Agedak azaldu bezalaxe eskolaren jarduna, baina Gerra Zibila ere iritsi zen Aresora eta utzi zuten arrastoa eskolan. Gerra bukatu eta luzea izan zen bere itzala. Frankoren diktadurak urtetan izan zuten kontrolpean hezkuntza sistema osoa, Falangearen doktrina inposatu zen eta ikasleek egunerokoan ere nabaritu zuten. Eskolak bitan zatituta segitu zuten, nesken eskola orain eskola dagoen zatia zen eta mutilen eskola berriz Pake-toki elkar-tea dagoen tokia. Parkea ere pareta batek zatitzen zuten bitan eta neskek eta mutikoek ez zuten eskola garaian elkarrekin harremanik izaten.

Garai horiek bizitzea egokitu zitzaizkien ez dituzte ahaztu gaztelaraz hitz egin beharrak eragiten zizkien burukominak, argizaria hartuta norbere mahaia garbitzen pasatzen zuten denbora, sua pizteko txandaka etxetik eramaten zuten zotza... eta liburu bat idazteko adina emango luketen pasadizo eta abenturak.

Neska-mutilak elkarrekin

1970ean indarrean jarri zen Villar Palasiren Hezkuntza Lege berria. Horrek haur guz-

tiak oinarrizko heziketa komuna jasotzeko bidea ireki zuen sei urtetik hamalau urte bete arte. Neska eta mutilak elkartu eta eskolaren egituran aldaketa ekarri zuen horrek; orain eskola dagoen tokian hasi ziren eskola ematen eta beste aldean Pake-Toki elkar-tea sortu zuten.

Eskolan euskaraz

1985. urtean aldaketa nabarmena izan zen. Mertxe Amondarain irakaslea etorri zen eta berak klaseak euskaraz ematea proposatu zuen. Gurasoek gustura hartu zuten proposamena eta ordura arte gaztele- ra nagusi zen esparrua egunez egun euskaraz irabazi zuen.

Eredu aldaketa

1990. urtearen bueltan, eskola unitarioa izatetik unitate desberdinez osatutako ikastetxea izatera pasa zen Nazabal Eskola. Ordura arte gela bakarra eta irakasle bakarra izaten zena, bitan zatitu eta bi gela osatu zituzten. Eraikinean bertan pareta bat altxa zuten banaketa egiteko. Bi irakasle zuten ikasleen ardurara eta ikasgai guztiak beraiek ematen zizkieten.

Gaur egungo eskola

Duela 25 bat urte inguru, gainerako obra egin zen eta ikasgela berriak sortu zituzten. Gerora, moldaketak eginez, garai eta behar berrietara egokitzen joan dira. Orain ere mailu hotsak ez dabilta eskolatik aparte. Irakasleen etxebizitza zena moldatu eta bertan erabilera anitzeko gelak sortzeko proiektua gauzatzen ari da Udala.

Denen esku dago azala (erai- kina) mantenduta, mamia (eskola) hobetzen segitzea.

**80. HAMARKADAN HASI ZIREN
ESKOLAK
EUSKARAZ EMATEN**

**HIRU ETA HAMABI
URTE ARTEKO 29
IKASLE DITU GAUR
EGUN ESKOLAK**



1920ko hamarkadan neskatuen taldea. UTZITAKO ARGAZKIA



1950eko hamarkadan eskolako mutikoen taldea. UTZITAKO ARGAZKIA



80ko hamarkada hasierako ikasleak. UTZITAKO ARGAZKIA



Eskolako gaur egungo ikasleak eta azken urteetan Leitzara joan direnak.

Bertsoak nagusi izanen dira Baztanen asteburuan

Urriaren 21ean Mariano Izeta sariketa jokatuko dute, 22an, berriz, Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa saioa

TTIPI-TTAPA

Bertsozaleek asteburu borobila izanen dute aste honetan bailaran jokatu diren bi txapelketekin.

Mariano Izeta Sariketa

16 eta 30 urte bitarteko Nafarroako hamasei bertsolarik hartuko dute parte X. Mariano Izeta Bertso Sariketan. Urriaren 21ean, ortziralea, jokatu da. Arratsaldean, aldibereko bi kanporaketa izanen dira Erratzun eta Elizondon, zortzina bertsolarirekin. Horietatik sei sailkatuko dira gaueko finalerako. Afalondoko saio gisara jokatu da finala, Elizondoko Kortarixar jatean.

Lehenengo kanporaketa Elizondoko Intza ostatuan jokatu dute 18:30ean eta bertan ariko dira kantuan Mikel Lasarte Cia (Barañain), Sarai Robles Vitas (Barañain), Patxi Castillo Graciarena (Bera), Egoitz Gorosterrazu Elizagoinen (Ituren), Urko Gartzia Aleman (Lekaroz), Ainara Ieregi Arriburu (Barañain), Peio Ardaiz Gale (Erronkari) eta Bittori



BTNko kanporaketa 2013an Baztanen.

Elizalde Soto (Iruñea). Gaiak jartzen Alaitz Rekondo Ferrero lesakarra ariko da.

Ordu berean, Erratzuko Zubipunta ostatuan, ondorengo bertsolariek ariko dira: Endika Legarra Nuin (Iruñea), Ekhiñe Zapiain Arlegi (Bera), Ekain Alegre Gil (Altsasu), Idoia Granizo Uribarrena (Altsasu), Eki Mateorena Zozia (Leitza), Jabi Lezaun Landa (Iruñea), Etxahun Azkarraga Fernandez (Etxalar) eta Beñat Astiz Isasi

(Barañain). Gai jartzen, aldiz, Ander Aranburu Arriola ariko da.

Finala Elizondoko Kortarixar jatean jokatu dute. 21:00etan izanen da afaria, eta ondotik izanen da saioa. Zigor Gartzia Arregi Zian ariko da aurkezle lanetan, eta saio bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek kantatu dute.

2004. urtean antolatu zuten sariketa lehen aldiz, eta bi urtean behin jokatu da ordutik; tarte horretan, ondorengoak izan dira txapeldunak: Jon Barberena (Elizondo), Oier Lakuntza, Jon Elizetxe (Gartzain), Iñaki Aleman (Irurita), Aimar Karrika, Saioa Alkaiza, Joanes Illarregi (Leitza), Saats Karasatorre eta Xabat Illarregi (Leitza).

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Bertsolaritzaren besta handia bueltan da eta aurtengo edizioan finalerako kanporaketa saio bat Elizondon egingen dute. Urriaren 22an 17:00etan Baztan pilotalekuan arituko dira sei bertsolari klasifikatuak; Unai Agirre Goia, Alaia Martin Etxebeste, Joanes Illarregi Marzol, Agin Laburu Rezola, Onintza Enbeita Maguregi eta Iñaki Apalategi Astigarraga. Aurkezlea Amaia Castorene Luro izanen da.

Unai Agirre azken finalean kantatu zuelako klasifikatu da, Alaia Martinek Getxoko saio irabazi zuen, Joanes Illarregik Arrasateko saioa irabazi eta Agin Laburu, Onintza Enbei-

ta eta Iñaki Apalategi puntuazioen arabera.

Bertsolariek egin beharreko lana ere zehaztu dute; binakako lau proba eta ganbarako lana (banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian).

Guztira, finalerako lehenbiziko fasean 24 bertsolari lehiatuko dira, eta Elizondoz gain, Donibane Garazin, Iruñen eta Durangon egingen dituzte. Bigarren itzulian Amurrión, Baionan eta Bilbon egingen dituzte saioak, eta bi saioetako puntuazioak gehitu egingen dira. Hala ere, lehen itzulian puntu guttien lortzen duten sei bertsolariek ezingo dira bigarren fasera pasatu.

Ez da lehenbiziko aldia Bertsolari Txapelketa Nagusiko saio bat Baztanen jokatu dela, izan ere, 2013ko azaroaren 23an borzgarren finalerako frontoian egin zen. Bertan kantatu zuten Unai Iturriagak, Amets Arzallusek, Beñat Gaztelumendik, Jokin Urangak, Iñigo Mantxi Mantzidorrek eta Julio Sotok. Unai Iturriaga izan zen saioaren irabazlea 725 puntu lortuta guztira. 1.400 lagun in-guru bildu ziren pilotalekuan saioa ikusteko.

MARIANO IZETA SARIKETA ERRATZUN ETA ELIZONDON JOKATUKO DA

Mariano Izeta gogoan

Mariano Izetak (Elizondo, 1915-2001) herri kultura eta bereziki bertsolaritzaren alde egindako lan handia eskertzeko helburua du bere izena daraman sariketak.

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

 oteizaarquitectos

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Presta zaitez negurako ... Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden dirulaguntzak,
gestioekin lagunduko dizugu!


THERMOFIBRA
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m² K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak

deceuninck





Elizondoko plaza jendez gainezka Erdizko proiektuaren kontra. HIRUNE MITXELENA



Baztango nekazariak eta aziendak izan ziren manifestazioko buru. R. OSKARIZ

2.100 lagun baino gehiago landa eremuaren defentsan

Euskal Herriko txoko guzietako herritarrak bildu ziren urriaren 12an Elizondon Erdizko proiektuaren kontra

TTIPI-TTAPA

Erdiz Bizirik plataformak deitutako manifestaldiak jendetza bildu zuen urriaren 12an Elizondoko karriketan. Antolatzaileek adierazi zutenenez, 2.100 pertsona baino gehiago atara ziren karrikara Magne-sitas Navarras enpresak Erdizen egin nahi duen proiektuaren kontra. Baztango nekazariak eta behi, behor eta ardiak izan ziren manifestazioko buru, eta haien gibeletik ibili ziren herritarrak joaldunen errit-mora. Herriari buelta emanda, plazan bildu ziren bertarutakoak.

Bertan, Kattalin Arizmendiren eta Jon Maiordomoren musika aditzeko aukera izan zen. Haien ondotik Baztango nekazariak igan ziren eszenatokira, eta plataformako Nahia Bailonek eta Leire Arraztoak hartu zuten hitza. Gero Mikel Altzuart bertsolariak kantatu zuen eta azkenik Pottoka eta Iñigo Iturria izan ziren eszenatokian.

«Bizitzaren alde»

Plataformako kideek adierazi zutenenez, «berriz ere argi erran

nahi dugu herri honek ez duela onartuko ez multinazionalen, ez gobernu arrotzen agindurik. Ez digute erran behar ez Madrildik, ez Iruñetik gure herri lurra nola kudeatu eta zaindu, gure ura eta airea nola garbi atxiki, ezta gure lanaren balioa zein den ere».

Nafarroako Gobernuaren «UGEParen inposizioa» eta «galdeketa debekua» salatu zituzten, eta argi utzi zuten «nekazaritza estentsiboa, ingurumenaren zaintza eta turismo jasangarria ez direla bateragarriak Magnak egin nahi duen meategiarekin».

«Lanpostu duin eta sosten-garriak» aldarrikatu zituzten, eta bertze hainbat enpresek bezala, Magnak Zubirin eta Sorian «bete gabeko zenbat promesa dituen» gogorarazi zuten, eta «beren joko zelaian eta epaileak erosita» jokatu nahi dutela salatu zuten.

Hala ere, «irabazi arte» borrokatuko dutela aldarrikatu zuten, «eta erabakiko dugu, gure herrietako batzarretan, plazetan, karriketan, mendietan, herri lurretan eta oihantetan».



Joaldunak ere parte hartu zuten manifestaldian. R. OSKARIZ



Adin guzietako herritarrek bat egin zuten plataformaren aldarriekin. R. OSKARIZ



Plazan musika eta bertsoak aditzeko aukera izan zen. R. OSKARIZ



MAITANE MARITORENA

Anizko bestak giro ezin hobean

Baztan zopak, jostetak, paella lehiaketa, puzgarriak, mahai jokoak, pilota partida, zikiro jatea, bingoa, karaokea, dantzaldia... aniztarrek ez zuten aspertzeko astirik izan irailaren 30etik urriaren 2ra, eta eguraldia lagun, giro ederra izan zuten asteburuan.



Hamalau taldek parte hartu zuten arratsaldeko musika jaialdian. UTZITAKOIA

Nekazalpunk jardunaldia berreskuratu du Zapatillera proiektuak Elizondon

TTIPI-TTAPA

Zapatillera proiektuak Nekazalpunk jardunaldia antolatu zuen urriaren 1ean Elizondoko Merkatuko Plazan. Egun osoko egitaraua izan zuen; azoka, txalaparta, dokumental proiektzioa, musika bakarlariak, bazkaria, perkusio kontzertuak eta akustikoak...

18:00etan musika jaialdia hasi zen. Eskualdeko, Euskal Herriko, Kataluniako eta Madrilgo hamalau taldek parte hartu zuten.

Antolatzaileek ekimenaren balorazio «arras ona» egin dute eta gauean «uste baino jende gehiago hurbildu zela» adierazi dute.

 **lozy's** pharmaceuticals

Lozy's Pharmaceuticals, **goxoki farmazeutikoen fabrikazioan liderra den enpresa, zure bila dabil!**
Gustatuko litzaizuke produkzio, mantentze edo logistika arloan lan egitea?

Interesatuta baldin bazaude, ezagutu nahi zaitugu!



C.V.-a bidal ezazu InfoJobs, info@lozyspharma.com-en bitartez edo enpresatik pasa zaituz C.V. uztera.

Ahots Baten sormen egonaldia egingen dute Amaiurren

Urriaren 29tik azaroaren 1era antzerkiaz, bertsoaz, kantagintzaz eta literaturaz gozatzeko aukera izanen dute gazteek

TTIPI-TTAPA

Euskaltzaindiak eta Bertsozale elkarteak, Mintzola egitasmoaren bidez, Ahots Baten sormen egonaldia antolatu dute Amaiurko aterpean urriaren 29tik azaroaren 1era. 15 eta 22 urte bitarteko gazteei dago zuzendua ekimena eta helburua «Euskal Herriko gazte sortzaileen harreman sareak egitea eta esperimenez gunea eskaintzea» da.

Landuko dituzten alor artistikoetako sortzaileek ere parte hartuko dute egonaldian; Ainhoa Artetxe aktorea, Iñigo

Astiz poeta eta Paxkal Irigoien eta Maia Iribarne-Olhagarai abeslariak bertan izanen dira. Gainera, urriaren 29an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurreko saioa ikustera joanen dira Donibane Garaizira eta Amaia Castorene gai-jartzailea izanen dute lagun.

Izen-ematea zabalik dago www.euskaltzaindia.eus webgunean hilaren 20ra arte. Par-taideak hurrenkeraren arabera aukeratuko dituzte eta egonaldiaren prezioa 100 eurokoa izanen da.

'Isildutako eskuak' liburua aurkeztuko du Jon Abrilak urriaren 26an Arizkun

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Jon Abrilak 'Isildutako eskuak' liburua aurkeztuko du hilaren 26an, asteazkena, 18:00etan Arizkongo medikuaren etxean.

Hamaika lanbide hautatu ditu Jon Abrilak liburu hau egiteko (neskame, irakasle,

espartingile, unai, papergile, arrain nahiz berduren kontserbagile, zigarrogile zein industriako langile...), eta lanbide horietako bakoitzean aritutako emakume baten (edo biren) lekukotasuna jaso du, guztien artean Euskal Herrian barnako bidaia bat egin.



Barberenaren bikotekideak eta anaiak ilustrazio bana hartu zuten. ONDIKOL

'Amaiur' liburua aurkeztuko egingo dute Erratzun Jon Barberenaren omenez

TTIPI-TTAPA

Urriaren 1ean Amaia Elizagoienek idatzitako eta Begoña Durrutyk ilustratutako 'Amaiur' liburua aurkeztu zuten Erratzun.

Elizagoienek, Irati eta Leire Celestino ahizpekin batera, ipuin kontaketa musikatua eskaini zuten. Gero, Amaiurko Gaztelu Elkarteak azken argitalpenaren berri eman zuten, eta bertan parte hartu zuten Ixabel Aleman Amaiurko alkateak eta Kaiet Itoitz Erratzukoak.

Jon Barberenaren omenez

Alemanek azaldu zuenez, liburua lehenbiziko hazia Barberena zenak paratu zuen duela 10 urte; «eskola ttipietan irakaslea zen eta guk gure garaian Amaiurren gertaturikoari buruzko informazioak jaso eze genuenez, gaur egungo

haurrek horren berri izan zezaten ipuin bat idatzi zuten. Asisko Urmenetak egin zituen marrazkiak eta eskolako material gisa gelditu zen».

Orain, Amaiurko konkistaren 500. urteurrenaren harira, duela hiru urte zendutako Barberenaren omenaldi gisa liburua egitea erabaki dute, eta Amaia Elizagoienek eta Begoña Durrutyk gauzatu dute egitasmoa. Ipuinean Jon ageri da, bere iloba Asierrekin batera. Istoria ederra, alai eta koloretsua osatu dute bi artista baztandarrek.

Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendaria ere aurkeztu izan zen, eta zabalkunde lanetan lagunduko zuela adierazi zuen, «historia kontatu beharra dagoelako». Azkenik, Barberenaren bikotekideak eta anaiak ilustrazio bana hartu zuten opari gisa.



Guillermo LARRAÑAGA dokorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armaia eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



Ebetsresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25
Amezti zeharkarria, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com

Eskola ttikien besta giro eta eguraldi ederrarekin

Harrera ekitaldia, ibilaldia, bazkaria, dantzaldia eta jokoak; haur eta gurasoek ez zuten aspertzeko aukerarik izan

TTIPI-TTAPA

Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztango Eskola Ttikien Besta ospatu zuten Iruritan urriaren 9an eta Guraso Elkarteak adierazi duenez, besta «arras ongi» atera zen; «eguraldia lagun izan genuen eta inguruko herrietako hainbertze jende hurbildu zen».

Goizean harrera ekitaldia egin zuten, Maite Oteizaren agurrarekin, Iruritako eskolako ikasleen bertso batekin eta herriko dantzari talde batek eskainitako dantzarekin. Ibilaldia ezkila jotzearen doinua-

rekin abiatu zen, eta bidean kisu labea, ferrategia eta errotak ikusteko aukera izan zen. Hamaiketako jan, aurpegiak margotu eta Ainara Unanua ipuin kontalariaren istorioak aditu ondotik, Erreboterantz abiatu ziren elkarrekin bazkaldu, postre goxoak dastatu eta saskiak zozketatzeko. Bizphiru Pelau taldeak arratsaldea musikaz alaitu zuen eta hurrek puzgarriek, zaldiez eta zurezko jokoez gozatzeko aukera izan zuten. Hurrengo urterako lekukoa Almandozko gurasoei pasatu diete.



Haurrek hainbat jokorekin gozatzeko aukera izan zuten. IRURITAKO GURASO ELKARTEA

JOSENEA
ENERGIAK

www.josenea.es



JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa
Zerbitzu Berria
zure etxera
INFORMA ZAITEZ!

Ordoki industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

 WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es



Saria biltzera joan zen Baztango ordezkaritza. NAFARROAKO GOBERNUA

Basaburuan sortzen dute Nafarroa osoko zabor gutien

Nafarroan birziklatzea sustatzeko egindako lehiaketari esker berreskuratzeko zailak diren hondakinen % 5 murriztea lortu da

TTIPI-TTAPA

Mankomunitatez mankomunitate emandako saries gain, parte hartu duten herri guztien artean biztanleko hondakin-erakundearen edukiontzirako zabor guttien izan duten herriei ere sari berezia eman zitzaizen eta Baztango Basaburuko Almandoz, Aniz, Berroeta eta Ziga izan ziren sarituak. Herri hauek urte osoan biztanleko 23,3 kilo zabor bertzerik ez dute sortu. 5.000 euroko saria hartu zuten, herritarren probetxurako izanen den ekipamendua edo proiektua gauzatzeko. Lehiaketa honetan parte har-

tu duten lau ikastetxeri ere ohorezko aipamena egin zitzaizen eta horietatik hiru eskualdekoak dira: Berako Toki Ona ikastetxea, Almandozko eskola eta Elizondoko eskola.

Nafarroa organikoarekin bat kanpainako bideoan parte hartu dutenei ere oroigarria eman zien Nafarroako Hondakinen Konsortzioak. Ituren eta Zubietako joaldunen izenean, Imanol Baleztenak hartu zuen oroigarria eta Euskal Jai Berri erremonte fundazioaren izenean, Aimar Jabalera eta Julen Larretxea Doneztebeko erremontistek.

Iruritako errebestetan Gizarte Bilgunean egindako kalteak salatu ditu herriak

TTIPI-TTAPA

Iruritako errebestetan giro ederra izan badute ere, larunbat arratsean herriko gazte batzuk Gizarte Bilgunean egindako kalteak salatu ditu herriak. Pello Iriarte alkateak adierazi duenez, «ostatua ireki berria zegoen, 20:00etan gazteak eta

gurasoak hurrekin etorri berriak ziren bokatak afaltzera eta 21:00etan herriko batek su-itxalgailu oso bat hustuzuen. Jendea gaizki ibili zen ostatutik ateratzeko eta gaua izorratu ziguten». Iruritako Herriak salaketa paratu du Foruzaingoaren komisarian.

ZUGARRAMURDI

Ur-hornidurarekin arazoak izan dira herrian uda lehor honetan

MARIFA ETA KORO

Pasatu berri dugun uda bero eta lehor honetan, juxtu-juxtu ibili gara herrian ur-hornidurarekin. Abuztuaren bukaeran uraren erabilera neurtzeko udal bandoa zabaldu behar izan zuten, baina zorionez gure etxeetan ez genuen ur eskasirik sufritu.

Herriko langileak ere erne ibili ziren bi ur-isuri atzeman baitziztuzten, bata Bixentenea aldean eta bertzea Itzalunen, baina segidan konpondu zituzten eta ez zen ur gehiago galdu.

Kanpamentutan eta Urbiko lepoan egin ziren bi kaptazio edo ur-hartze berriei esker, baita momentu batez Urhaundiko presatik ura ponpatuz ere, Goiburua eta Arleungo depositoak ez hustutzea lortu zuten.

Uda hau pasatu dugu, baina ea nola etortzen diren hurrengo urteetakoak. Euri gehiago edo guttiago egin, bi gauza izanen dira behar beharrezkoak: alde batetik, ur-ihesak kontrolatzea eta, bertzetik, guk geronek gure uraren kontsumoa neurritz egitea.



KORO ETA MARIFA

Etxebizitza aunitz hutsik

Etxebizitza aunitz hutsik daude herrian eta hori triste da. Hala ere, egoera kaxkarrean dauden gutti batzuk kenduz (Narkonea, Plaxa eta apezaren etxea), bertze guztiak ederrak eta apainduak daude. Momentu honetan gainera, hiru etxe konpontzen ari dira: Herriko Etxea, Etxenikea eta Telletxea.



Hainbat herritarrek laguntza eman zuten antolaketan. PIERRE EZKURRA

Kontrabandisten lasterketa gogorak eta ederrak izan dira

Gaueko Lanak lasterketan Jokin Arretxe eta Rebeca Mariño garaile eta maratoi erdian Alvaro Ramos eta Naiara Irigoien

IRAIA ETA ARANTXA

Urdazubiko Kontrabandisten gaueko lanak izeneko lasterketaren bertze edizio bat egin zen Urdazubin urriaren 8an. Partehartzaile andana izan ziren 9,5 kilometroko ibilbidean. Gizonezkoetan Jokin Arretxe izan zen irabazlea (51.52), Hodei Lujanbio goizuetarra bigarren (54.17) eta Yelko Pardiñas hirugarren (54.37). Xuban Eugi elizondarra laugarren izan zen (55.40). Emakumezkoetan, berriz, Rebeca Mariño izan zen garaile (1.04.59), Larraitz Etxebeste bigarren (1.07.30) eta Nuria Mendivi hirugarren (1.07.56). Manttaleko Jone Zelaieta beratarra bosgarren izan zen (1.14.30). Urdazubiko artean hainbat parte hartzaile animatu ziren lasterketara. Horien artean lehen, Mikel Cenoz izan zen.

Biharamunean, maratoi erdia egin zen. 21,5 kilometroko ibilbidean garailea A4' xKM taldeko Alvaro Ramos izan zen gizonezkoetan (1.49.35). Jesus Mari Alegria taldekidek eta Hiru Herri taldeko Imanol Kañamaresek hurbiletik segi-



Gaueko lanak lasterketako podiuma.

tu zioten. Emakumeetan, A4' xKm taldeko Naiara Irigoien izan zen garaile (2.06.10) eta Maria Irigoien de Mendizabal taldekideak (2.19.31) eta Aldin taldeko Larraitz Etxebeste (2.31.17) osatu zuten podiuma.

Honetaz gain, nahiz eta podiumera ez igo, lasterketan zehar hartutako xingarra eraman zuten Beñat Albisu Beintza-Labaiengo gazteak. Hiru kilometroz bizkarrean eraman ondotik, etxean gustura dastatzeko aukera izanzen du.

Aipatzekoa da Urdazubiko herritar guziek lasterketa hau gauzatu ahal izateko egin zuten elkarlana ere, bideak garbitzen, markatzen eta egun berean ere hainbat postu betetzen izan baitziren.

Herrian bertan izena emateko aukera izanen da aurtengo Euskaraldian

IRAIA ETA ARANTXA

Heldu den azaroaren 18tik abenduaren 2ra berriz ere Euskaraldia ospatuko da Euskal Herri osoan. Aurten beritasun gisa Urdazubiko herrian izena emateko aukera egonen da. Lehenago izena eman zuten haiek udalerrria aldatzeko

aukera dute eta aurten lehenengo aldiz ariketa honetan parte hartuko dutenek Urdazubin izena ematen ahalko dute.

Kasu! Herriko batzordea ekitaldi berexien bat antolatu nahian da eta. Egon adi hurrengo albisteei!



Pintxo irabazleak egin dituzten sukaldariak, alkatearekin eta antolatzaileekin.

Paco Bentako 'Bartoloren txapela'k irabazi du pintxo lehiaketa

IRAIA ETA ARANTXA

Irailean egin den Dantxarineko pintxo hamabortzaldiaren egindako bederatzigarren pintxo lehiaketan irabazle suertatu da Paco Bentako David Bidaurrek prestatutako 'Bartoloren Txapela' pintxoa. Ohi bezala, epaimahaiko kideak musikarien

laguntzaz, ibilgailu klasiko batean ibili ziren bentaz benta dastatzen lanetan. Publikoaren saria, berriz, Landibar Bentako Julen Zubietaren 'Itsasoa eta Lurra' pintxoak eskuratu du. Orain, bi otorduren eta Mutrikuko egonaldien irabazleak zein izanen diren jakitea falta da.

Etxekoak berriz bueltan



Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera





Axular, 12 · Antzanborda · URDAZUBI · Tel.: +34 848 85 00 21

PostAtxik kolektiboak egindako eskaera izenpetu daiteke

Posta bulegoa astelehenetik larunbatera goizero irekitzea eta arratsaldean bederen astean hirutan irekitzea eskatzen du

GANEX

PostAtxik kolektiboak petizio bat zabaldu du eta urriaren bukaera arte izenpetzen ahal da, herriko etxean eta komertzioetan. Posible da orrialde batzuk hartu eta gure auzokoa ikustera joatea ere, izenpedurak biltzeko. Horretarako, orriak hartzen ahal dira herriko etxean edo Postatxik kolektiboari idatziz: postatxik@gmail.com.

Kolektiboaren galderak

PostAtxik kolektiboak galdegiten du posta bulegoaren

irekiera goizero, larunbata barne, 09:00etatik 12:00etarat (oren erdi gehiago). Gisa berean, astean bederen hiru arratsaldean idekirik izatea eskatzen du, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 13:30etik 16:00etarat, orotarik 25 oren eta erdi astean. Gutun bilteta 12:00etan egitea eta ez, gaur egun bezala, 10:00etan. Diru-maxinahomitzea aste osoan eta enpresei eta elkartei eskudiruz sartzeari erraztea ere eskatu dute, baita gutunak eguneroko auzo guztietaratu banatzea ere.



Lizarietan ez, baina aurten plaza inguruan eta Lur Berrin izanen da musika giroa.

'Mapa galduak' musika jaialdia antolatu du Usopop elkarteak urriaren 28tik 30era

Mapa galduak: musika jaialdia antolatu du Usopop elkarteak, urriaren 28tik 30era plazan eta Lur Berrin ospatuko dena. Elkarteak jakinarazi duenez, «musikak gaitu elkartzen eta kontzertuak izanen dira nagusi, baina ez bakarrik».

Hain zuzen bi momentu azkar izanen dituzte urriko

azken asteburuan: *Mugarri* 25 sorkuntza berezia urriaren 30ean eta *Zeharkako bideak*, urriaren 29an. Bi ekitaldi bereziki hauez gain, Tarta Relena, Herman Dune, Vulk, Zetkin, Lukiek, Just Mustard, Mursego, Nomadak gaitun, Tirri&Tery eta Kurtney Barnetx taldeen musika adituko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Neskak ere errugbian lehiatzen hasiak

Errugbi sasoi berria abiatu du Sarako Izarrak. Iaz euskal ligan txapeldun izan ziren gizonen lehen partida irabazi zuten Animainean Atletico San Sebastianen kontra (27-23). Emakumeak lehen aldiz hasi dira euskal ligan konpetitzen eta larunbatean aritzekoak ziren Errioxaren kontra.



GANEX

Ikusi Mikusi azoka ikusgarria

Urriaren 7an eta 8an iragan da Ikusi Mikusi azoka. Ortziralean herriko gelak denak beteak ziren hurrez, 1.200 bat bederen baziren izan hego edo iparraldetik etorriak azoka horretara. Larunbatarekin ere izan da mugimendu eta dena izigarri untsa pasatu da, eskerrak deneri.

Lur mazalak erretzeko eskaera egin behar da

Urte guziz bezala, lur mazalak erretzeko dituztenek izena eman dute herriko etxean hazilaren 23a baino lehen. Izena eman ez dutenek, ez dute lurraz erretzen ahalko. Orduan, ez ahantzi eta deitu lehenbait lehen herriko etxera: 05 59 54 20 28,

Usoaren Astea urriaren 22tik 30era ospatuko da

Urriaren 22an eta 23an pastoral; 24an, astelehen iluntzean errebotean gazteen pilota partida gazteekin; 25 asteartea, 16:00etan elizan Korsikak Kantuzeta arratsan Pleka trinketea gualdia Korsika eta Sarako kantariekin; 26 asteazkena, usotegien bisita 11:00etan.

Zaldubi ikastolaren 50. urteurreneko ospakizuna prest

Larunbaterako hainbat ekitaldi prestatu dituzte, tartean bazkaria, jokoak, dantzak eta kontzertuak

JL BESSONART

Senpereko Zaldubi ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunak errugbi zelaian iraganen dira, urriaren 22an. Aldizkari honen erreportajea ageri da ikastolaren historia eta argazki bilduma, baina hona zehazki egitaraua: 12:00etan Zintzur-bustitzea ikastolako haurrek animaturik Pantxo Carrere abeslariarekin. 13:00etan Bazkaria Senpereko kantariak animatua, helduendako sartzeta, zikiroa, gasna eta deserta (25 euro). Haurren menua: lukainka, patata prexituak eta deserta (10 euro). Egun osoan puzgarriak eta bertze jokoak izanen dira haurren jostatze-ko. 17:00etan Saltoka (dantzak). 19:00etan Kontzertuak urririk: Basapiztiak, Kaxkatu eta DJ Bull. Kontzerturako sartzetak ez ezik, joan-etorriak taxian



Guraso eta sortzaileak. A.LARRETxea

ere urririk izanen dira. Taloak salgai izanen dira eta, aukera baliatuz, mende erdi bateko oroitzapen aunitz aipatuko dituzte elgarren artean.

1971ko irailaren 20an sortu zen Zaldubi ikastola eta joan den urtean ospatu ezinik, aurtuen eginen dute mende erdiaren ospakizuna. Gaur egun 120 ikasle baino gehiago ditu eta Seaskaren bosgarren kolegioa Senperen eraikitzea dute hurrengo erronka.

Hatsa Elkarteak ekitaldiak antolatu ditu herriko mediatekan eta Iruñean

JL BESSONART

Auxtin Zamorak, Hatsa elkar-teen sortzaile eta buruak, erakusketa polita aurkeztuko du herriko mediatekan, urriaren 21etik azaroaren 21era artean, lekuko ordutegiaren arabera. Hemen aurkituko dira, berak sortu duen *Forma magmatikoak*, baita 120 idazleren partaidetzarekin, euskaraz idatzitako olerki bilduma. Hauekin batera, Auxtin Zamoraren borts poesia liburu ere izanen dira.

Bertzalde, Hatsa Poesiak, tailerra ere antolatu du Iruñean,

Juankar Lopez-Mugartzarekin. Zumalakarregiren atarirainoko ibilaldia eta ber denboran Agosti Xahoren lanaren pasarte batzuek gogoratuak izanen dira. Egun pasa iraganen da urriaren 29an. Urriko azken larunbatean 11:00etan bilduko dira Gazteluko Plazaren kioskoan eta kafea hartu ondotik, Zumalakarregiren atarira bisita eginen dute. 14:00etan bazkaria Geltokin eta 16:00etatik 18:00etara idazteko ueña La Villavesa bulego zaharrean, Geltokin bertan. Izen ematea: olerkibilduma@sfr.fr.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elur Alberdi munduko txapeldun

Elur Alberdik munduko txapela lortu du Txekian arraunean, Laurent Cadot kidearekin. Hendaia izanik ere, Herriko-etxean lan egiten du, bizkitartean senpenter bezala ikusten dugu. Eskumuturreko haustura larri bat izan zuen eta orain helburu nagusia joko paralinpikoetan urrea eskuratzea du.

Herriko kontseiluko gehiengoaren borts kontseilarik dimisioa eman dute

TTIPI-TTAPA

Herriko Etxea kudeatzen duen Dominique Idiart auzapezak bere gehiengoaren borts kontseilari galdu ditu. Senpere Bai talde abertzalearen sostenguari esker berreskuratu zuen Idiarrek Senpereko alkatetza 2020ko hauteskundetan.

Iragan hilabetea Paxkal Iru-betagoiena Haur eta Hezkuntza alorreko zinegotziak dimisioa eman ondotik, Celine Munduteguy, Christine Perugorria, Pierre Faliere eta Nathalie Pourteau Zamora zinegotziek urriaren 6an eman zuten dimisioa.

Laura Porcu hil da auto istripu mingarrian

Nola definitu honelako nahigabea, autoaren kontrola galtzeak sorlezakena. Latza bezain onartezina, 25 urteko neska batek galtzen duela ikertzen ari dira. Horra zer gertakariak jodituen senpenter familia batzuk irailaren 25ean, igande goizarekin, gaualdi batetik etxerakoan. Honen ondorioak, Laura Porcuren heriotza eta bertze bi mutiko gazte larriki kolpatuak, halere bizia ez dute arriskuan. Laura berriketan Senpereko herriko-etxeke zentro sozialetik Donibane-kora joana zen lan egitera.

Ibarrungo Jondoni Mikel bestari behako bat

Aipaturiko istripuak baldintzatu ditu aurtuen Ibarrun auzoko Jondoni Mikel bestak, ospakizunetarako gogorik gabe, modu murriztu batean eskainiak izan baitira. Ostiraleko xerrikumeak betiko arrakasta ukan du, 1.100 afaltiarrek parte hartu dute alaitasunean. Larunbat eta igandeko ekitaldi batzuk ez dira egin eta asteleheneko besta ez ezatua. Honen ondorioz jende gutiago hurbildu da, halere izpiritu lasaia eta adiskidantza giro bat sentitzen zen, karrika nagusian.

Errigora saskiak, «euskararen alde bat egiteko»

Urriaren 22an irekiko da saskiak eskatzeko epea, eta azaroaren 10a bitartean eskatzen ahalko dira

TTIPI-TTAPA

Udazkena ailegatu da, eta horrekin baita Errigoraren *Nafar hegoaldeari uzta, euskarari puzka* kanpainaren bederatzigarren aldia ere.

Bat egiteko garaia da dauka lelotzat aurtengo edizioak, eta «zonifikazio gainditzeko garaia» dela dute aldarri nagusizat. Horregatik, lau zentzutan kanpainarekin bat egiteko deia egin dute: Nafarroa bat egiteko, euskararekin bat egiteko, Agerreko euskaltzaleek bat egiteko, eta Nafarroarekin bat egiteko.

Urriaren 22tik azaroaren 10era eskuratzen ahalko dira saskiak, eta Agerreko produktuz osatutako hiru saski eskaini dituzte: Errigoraren saski klasikoa, beltza (55 euro), saski berde ekologikoa (65 euro) eta saski zuri berezia (75 euro). Horien balioaren % 25 Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari bideratuko zaio.

Saskiak erosteko modurik sinpleena *errigora.eus* helbidearen bidez izanen da. Hala ere, kanpainako eskuorriak dakarren inprimakia betez ere egiten ahalko da eskaera, he-

rriz herri eta auzoz auzo kanpaina egiten duten ehunka boluntarioren bidez.

Kanpaina Ikastolen elkar-tearekin, AEKrekin eta Sortzenekin elkarlanean egiten du Errigorak, eta diru-ekarpenaren zati bat Tutera, Lodosa eta Vianako ikastolei, AEK-ren euskaltegiei eta Nafarroa hegoaldean sare publikoan D eredua indartzeko Sortzenek antolatzen dituen dinamikei bideratuko zaie.

Agerraldia ekimena sustatzeko

Horrez gain, ekarpenaren bertz zati bat Errigoraren bidez jaiotako Agerraldia ekimenari bideratuko zaio. Agerraldia Nafarroako erdialdean eta hegoaldean euskarari hauspo berria emateko sortutako mugimendua da. Euskararen aldeko askotariko herritarrak saretu eta proiektu komun baten barrenean bilduta euskararen ezagutza bultzatzeko,

erabilera sustatzeko eta euskararekiko jarrera baikorrak birsortzeko ekintza praktikoak bultzatzea du helburua. Ekintza praktiko horiekin urteko agenda osatzen du Agerraldiak.

2023an ere agenda zabala osatzeko bitarteko nagusia izanen da saskietatik jasoko den ekarpena. Horri esker, tokian tokiko euskaltzaleen ekimenarekin eta gainontzeko Euskal Herriko elkarlanarekin 20tik gora herritan lantokietan euskara planak, kale izendegiak euskaratzeak, Union Tutera babestea eta bertze hainbat ekintza gauzatu ahal izanen dira.

Bereziki zaintzen ari dira Agerraldiaren barrenean, euskaltzaleen saretzea. 40 bat herritako 200 bat euskaltzale elkartuko dira Ager Topaketetan Azkoiainen. Topaketa elkar ezagutu zein zaindu eta elkarrekin hausnartzen has-teko mugarri bat izanen da.



urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da

errigora.eus

eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari



SANTU GUZTIEN EGUNA

Azaroak 1



Gau Beltzaren itzulera gure herrietara

Han eta hemen ospatzen den besta da Santu Guzti Eguna; Mexikon hilobien inguruan piknik bat egiten dute, Kanbodian berpiztutako arimak familiarengana bueltatzen direla ospatzen dute, Ipar Amerikan Halloween gau beldurgarria egiten dute, Filipinetan besta bat antolatzen dute hilerrian... eta Euskal Herrian ere galduak ziren hainbat tradizio jendartera bueltatzen ari dira.

Gau Beltza edo Arimen Gaua urtearen heriotza, uzta bilketa eta hildako senideen oroimena ospatzen zituen besta zen. Iluntasunaren eta heriotzaren gaiak baliatuz, elkar beldurtuz jostatzen ziren. Ohikoa zen arbi edo kalabazak hustea, aurpegi itxura ematea, kandela bat sartzea eta bide bazterretan paratzea, barrideak beldurtzeko eta hildakoen arimek bidea erakusteko. Jendea ikaratzeko trapu zaharrekin aurpegiak estaltzeko ohitura ere arras zabaldua zegoen.

Duela urte batzuk Gau Beltza ospatzen hasi ziren berriz ere hainbat euskal herritan, eta gure eskualdean ere ohitura zahar hau nagusitzen hasia da; Anizen, Aranon, Lesakan, Iruritan, Berroetan... eta datozen urteetan herri gehiago batzea espero da. Helburua herri bakoitzari moldatzen zaion besta egitea da, leku bakoitzeko ohitura zaharrak berreskuratuz. Izan ere, bestak eta tradizioak gure artean segitzen badute, gaurkotasunera egokitu ditugulako da.

JAKONE-GOZOTEK
*Bañaloak eta
etsako produktuak*
Altzate, 21 · BERA · T. 948 630 786

Lore-denda
ESTHEA
Krisantemoak, gzoak, ziklamenak,
zentru artifizialak eta naturalak
Informazio gehiagorako edo eskaerak egiteko
deitu telefonoz edo etorri gure dendara.
Aukera zabaldu!
HARBARTE · T. 948 59 22 00

TXIRULA
OMI TRATATIA
Lore oso
· Omiasaindurako lore eskaintza zabaldu
· Etxea apaintzeko gaiak
· Arropa eta osagarriak
ETORRI ETA IKUSIII!
Albistur 39 LESAKA · T. 948 627 542

ANTZUZELAI
S.L. **1.**
BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com
HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

**MARMOLES
SOULE**
www.marmolessoule.com
LAPIDAK | PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK
M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

Nola ospatu Gau Beltza gure herrian?

Euskaltzaleen Topaguneak, ohitura zahar hau berpizteko ahaleaginean, unitate didaktiko bat sortu du, *gaubeltza.eus* webgunean eskuragarri. Bertan jostetak, ginkanak, kantuak, ipuin kontaketak... bildu dituzte, haur eta gazteek egun honekin disfrutatzeko. Gainera, hainbat herritako testigantzak bildu dituzte, antzina nola ospatzen zen kontatuz. 2018an hasi zen besta hau berreskuratzeko lana eta geroztik hainbat herri egin dute bat egitasmoarekin. Zuk ere parte hartu nahi duzu? Hemen dituzu hainbat gomendio:

- **Baloreak:** Besta guztien gibelean herri baten baloreak daude, eta bestak guztionak eta guztiontzako direnez, balore hauek errespetatu behar dira. Gau Beltzaren kasuan, kontuan hartzekoak dira euskararen erabilera, komunitatearen garrantzia, gazteei zuzendutako besta dela, iluntasunean eta naturan oinarritzen dela, berdintasuna eta aniztasuna aldarrikatu behar direla eta noski, herri bakoitzaren izaera errespetatu behar dela.

- **Antolakuntza:** Herri bakoitzeko ekimenak modu parte-hartzailean egin behar dira. Talde bat sortu, bestaren izaera eta helburuak definitu eta ekintzak antolatu behar dira; laguntzaileak bilatu, egitaraua prestatu, besta herritarren artean aurkeztu eta zabaldu... Azkenik, besta egin ondotik balorazio fasea egin behar da, hurrengo urterako hobetzeko helburuarekin.

- **Jarduerak:** Eskean ibiltzea, mozorratzea eta makillatzea, kalabazak apaintzeko tailerrak egitea, gaztaina erretzea, beldurrezko ibilbideak egitea... ideia batzuk bertzerik ez dira. Herri bakoitzak bere ohituretara moldatu dezake besta hau, tradizio zaharrak berreskuratuz eta berriak sortuz.

Santu guztien egunerako



aukera zabala

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ESKAERAK
HARTZEN DIRA
Lore moztuen
eskaerak
urriaren
23ra arte

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak

Urriak 29 eta 30 egun osoz IREKITA

Altzate, 33 31780 BERA | zuloredenda@hotmail.com | Tel.: 948 625 786



Jardinerie Lafitte
84, 1945 maiatzaren 8ko etorb.
64100 Baiona
Tel.: 00 33 5 59 42 24 42
www.lafitte.net



**OMIASAINDU EGUNERAKO
AUKERA ZABALA**



Ikusi gure web orria
euskaraz ere!



Aukera handia
kalitatezko produktuetan

Omiatasaindu
egunerako
Lore-eskaintza
zabala

Ongarriak eta ongarrizeko gaiak

Landareak, loreak, fruitu-arbolak

Lore-konposizioak

Etxe barrurako zein kanpoko landare eta arbolak

Dekorazio osagarriak, loreontziak eta jardinerak

Lorategirako erremintak



Landiflor

Landiflor zure lorezenda egunero irekia:

9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00

Dantzarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com

www.venta-peio.com

DANCHARIA IBARDIN ARNÉGUY BÉHOIE

FR. +33 9 72 10 40 20

ES. +34 902 210 800



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

OROIGARRIAK EGITEN DITUGU

kulturkari@ttipi.eus - Tel. 948 63 54 58

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



**OMIASAIN DURAKO
LORE ETA LANDARE
ESKAITZA ZABALA**



LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu

omiasaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu



Astelehenetik larunbatera:
09:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak: 10:00-13:00

Otsango auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

«Familiak lurperatua izan den pertsonaren lanbidea irudikatu nahi izaten du»

Joxe Urrutia • Harri Lan



Duela 40 bat urte ireki zuten Harri Lan Lekarozko Oharriz auzoan. Joxe Urrutia langileak azaldu digunez, «mota guzietako harri lanak» egiten dituzte; «izkin-harriak, arkuak, lurreko suak, zintarriak... harrien lanetan denetik». 15 bat harri mota erabiltzen dituzte normalean, bertzeak bertze, Markinako harri beltza, cuco harria, Pitillasko harria, cenia harria, Moncayoko krema koloreko harria edo Labianoko harri grisa. Baina «gehien erabiltzen duguna Baztango harri gorria da, eraikuntzarako arras erabilia; fatxadetarako, urbanizazioetarako, kanposantuetarako...».

Eraikuntzaz gain, taila lanak ere egiten dituzte; «armarriak, grabatuak, etxeen izenak...». Horretarako, «lehenik harria mozten dugu, gero marrazkia egiten diogu eta gero zizelarekin lantzen dugu».

Hilerrietarako lanak ere egiten dituzte, «hilarriak, gurutzeak, plakak, panteoiak... denetik». Horretarako ere, «Baztango harri gorria da erabiliena, baita Iparraldeko harri horia eta marmola ere». Lekuaren arabera jendeak eskatzen duena aldatu egiten da; «hemen ez da hainbertze lantzen baina Iparraldean gehiago eskatzen dizkigute kanposantuko lanak».

Iparraldeko herri batzuk «arau zorrotzak dituzte eta elementu konkretu batzuk paratu behar dituzte kanposantuetan; dena arras txukuna, harriarekin eginda, hila- rri batekin, gurutzearekin, granito gehiegi sartu gabe...». Baina hemen inguruan badadaude bertzelako lanak eskatzen dituzten bezeroak ere, harrian marrazki pertsonalizatuak egin nahi dituztenak, adibidez. «Hildakoa artzaina bazen artzain baten marrazkia egiten dugu, zurgina bazen zurgin baten irudia... aunitzetan lurperatua izan den pertsonaren lanbidea irudikatu nahi izaten du familiak».



Gure hildakoei azken agurra emateko modu ederra dira hilarriak, denbora luzez iraunen duelako tailak, urte luzez oroituak izanen direnaren berne.



Joan den urteko lasterketan atera ziren beratarrak. ARTXIBOKOA

Lizuniagako 41. Igoera larunbatean egingen dute Beran

Gure Txokoak antolatuta, 4,9 kilometroko ohiko ibilbidea egingen dute nagusiek eta ttikien lasterketak ere izanen dira

TTIPI-TTAPA

Lizuniagako Igoeraren 41. edizioa jokatu dute Beran urriaren 22an. Gure Txokoa elkarteak antolatu du lasterketa, larunbatean 17:00etan Eztegar pilotalekutik abiatuko dena Lizuniagaraino. 4,9 kilometroko igoera izanen da, %6,6ko banaz bertzeko mal-

darekin. Proba 14 urtetik goitikoentzat zabaldua dago, baina iaz egiterik izan ez zituzten haurrentzako lasterketak ere berreskuratuko dituzte aurtten. Hauek 15:30ean hasiko dira eta adinaren araberako ibilbideak izanen dituzte. Izen-ematea bertan egin beharko da.

Nagusien lasterketako izen-ematea, berriz, www.pb-organisation.com webgunean egin daiteke (aitzinetik 5 euro ordaindu behar da eta egunean bertan 10 euro).

Errekorrak

Errekorrei dagokienez, 2019an Chakib Lagchar marokoarrak lehen aldiz 16 minututik jaitsi eta 15.55eko marka berria ezarri zuen. Emakumezkoetan, 1995ean Maika Ariztegi iturrendarrak ezarri zuen errekorra (20.18) joan den urtean erraustu zuen Majida Maayoufek, 18 minutu eta 30 segundoko markarekin. Zailagoa izanen du edonork Ariztegik proba honetan duen garaipen kopurura ailegatzea, 16 aldiz irabazi baitu Lizuniagako igoera. Norbaitek errekor hauetakoren bat hobetuko balu, 150 euroko saria izanen luke. Nabarmentzekoa da ere Batista Telletxea beratarrak edizio guztietan parte hartu duela.

ERREKORRA HOBETZEN DUENAK 150 EUROKO SARIA IZANEN DU

Malerrekako eskuz binakakoan apuntatzeko epea ireki du Errekak

Doneztebeko Erreka Elkarteak antolatutako Malerrekako XXI. eskuz binakako pilota txapelketan izen emateko epea ireki dute azaroaren 6ra arte. Heldu den urteko urtarillaren 8tik hasita, zortzi kategoriatan banatuak ariko dira pilotariak: umeak, kimuak, haurrak, neskak (2008, 2009 eta 2010 urteetan jaioak), gaztetxoak, gazteak, seniorrak eta senior elite. Kategoriaz guztietan lehiaketa irekia izanen da, senior eta elite kategorietan izan ezik, honetan pilotariak gonbidatu egingen baitituzte. Kanporaketa moduan jokatu da txapelketa eta finalak otsailaren 18an jokatu dituzte. Izen ematea posta elektronikoki bidez egin daiteke (salaae@gmail.com) eta izena emateko orrian, telefonoaren zenbakia eta posta elektronikoki helbide bat jarri behar dira. Parte hartzeko federazio lizentzia derrihorrezkoa da eta kategoriaz bakoitzeko, gehienez 32 bikote onartuko dituzte.



UTZITAKOA

Saioa Jaurena omendu du BRTk

BRT Menditarrak errugbi taldeak omenaldia egin dio Saioa Jaurena errugbilari ohi baztandarrari, errugbi profesionala utziko duela iragarri ondotik. Urriaren 8an Lekarozen, talde nagusiak etxean jokatu behar zuen denboraldi honetako estreinako partidaren aitzinetik omendu zuten.



UTZITAKOA

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa

Urriaren 9ko Urdazubiko mendi maratoni erdian garaile Alvaro Ramos izan zen eta Jesus Mari Alegriak eta Imanol Kañamaresek osatu zuten podiuma. Emakumeetan, Naiara Irigoien izan zen garaile, Maria Irigoien de Mendizabal bigarren eta Larraitx Etxebeste hirugarren. Info + 55. orrian.

URRIAK 20 - AZAROAK 3

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARANTZA Baserritarren Eguna

Bertako ekoizleen elikagaiak, eskulanak, aziendak, ostatua eta lehiaketak, bertako musikariek girotuta. Frontoian eta plaza inguruan, azaroaren 1ean, goizean.

JARDUNALDIAK

AMAIUR

Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Urriaren 22an eta 23an.

SENPERE

Zaldubi Ikastolaren 50. urteurrena

Urriaren 22an.

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 23an.

ELIZONDO

Udazkeneko feriak

Urriaren 28an eta 29an.

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

MUSIKA

ORONÓZ-MUGAIRI

Lilura Abesbatza eta Elizondoko Abesbatza Ttiki

Elizan, urriaren 22an, 18:15ean.

LESAKA

Edu Errea Band

Harriondoan, urriaren 22an, 19:00etan.

IRURITA

Atarrabiako Abesbatza

Elizan, urriaren 23an, 12:00etan.

ELIZONDO

Los Malagatos

Arizkunenean, urriaren 30ean, 18:00etan.

SOLASALDIAK

GOIZUETA

Komunikazio ez bortitza gurasoentzako

Nerea Mendizabalekin. Ganbaran, urriaren 21ean, 17:30ean.

Sugeei buruzko hitzaldia

Aranzadi elkartearekin. Ganbaran, urriaren 24an.

Energia Berriztagarrien Komunitateko hitzaldia

Urriaren 27an, 18:30ean.

ELIZONDO

Haurraren loaren inguruko solasaldia

Nahia Alkortarekin. Kaxkamelonen, urriaren 21ean, 17:30ean.

BERA

'Bera' liburuaren aurkezpena

Pablo Salgadorekin. Kultur etxean, urriaren 22an, 19:00etan.

LEITZA

'Amnistia eta errepresioa iraganetik gaurkotasunera' mahai ingurua

Herri Aretoan, urriaren 22an, 12:00etan.

LESAKA

'Isildutako eskuak' liburuaren aurkezpena Jon Abrilekin

Liburutegian, urriaren 27an, 18:30ean.

ARIZKUN

'Isildutako eskuak' liburuaren aurkezpena Jon Abrilekin

Medikuaren etxean, urriaren 26an, 18:00etan.

ARANTZA

Sexualitate tailerra

Iratxe Arretxea eta Itsaso Baquedanorekin. Gimnasioan, urriaren 26an, 17:00etan.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Bideak' ipuin kontaketa

Liburutegian, urriaren 27an, 18:00etan.

GOIZUETA

'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Ganbaran, urriaren 28an, 18:30ean.

BERA

'Errege begibakarra' antzezlan

Kultur Etxean, urriaren 29an, 19:00etan.

ETXALAR

'Sexberdinak' antzezlan

Kultur Etxean, urriaren 29an, 19:00etan.

LESAKA

'Argako erregina' antzezlan

Harriondoan, urriaren 30ean, 19:00etan.

ARANTZA

'Bideak' dokumentala

Liburutegian, urriaren 31n, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

SENPERE

Hatsa elkarte

Mediatekan, urriaren 21etik azaroaren 21era.

DONEZTEBE

Ibilgailu klasikoak

Merkatuko plazako aparkalekuan, urriaren 22an.

Nire aukera

«Nire lekua Saldiasen dago eta gelditzeko etorri naiz»

AMAIA ILLARRAMENDI ARZALLUZ SALDIASEN BIZI DEN AZKOITIARRA



24 urteko azkoitiarra da Amaia Illarramendi Arzalluz. «Pertsona aktiboa eta kuriozosa naizela esango nuke, gauzen zergatia jakitea eta ulertzea gustatzen zait». Naturaren eta kirolaren maitalea da; «betidanik oso presente egon dira nire bizitzan, familia eta lagunekin mendira nahiz itsasora joatea eta tokian tokiko paisaiak zein konpainiaz gozatzea gustatzen zait».

Azkoitiar bat Saldiasen

«Duela bi urte pasatxo» etorri zen Malerrekara bizitzera; «bikotekidea saldiastarra da. Gainera, irakaslea naiz eta orain duela bi urte lan eskaintza bat jaso nuen Baztan ikastolatik. Ondorioz, elkarrekin bizitzeko aukera suertatu zitzaigun».

Orain argi du «gelditzeko» etorri dela; «aspalditik pen-

tsatu izan dut hemen bizitzen bukatuko genuela eta behin pausoa emanda, zuzen nennibilela argi ikusi dut».

«Alde handia»

la 12.000 biztanle dituen herri batetik 100 biztanle baino gehixeago dituen herri batera joatean, «dudarik gabe alde handia dago, bai biztanleria aldetik eta ondorioz baliabide aldetik eta baita bizi estilo edo ohitura aldetik ere».

Izan ere, «Azkoitian etxetik atera bezain laister dena eskuera dagoela esan daiteke, hemen kotxearen beharra

«HAURTZAROTIK OSO PRESENTE DUGUN FIGURA DA IRAKASLEARENA»

nabarmenagoa da. Baina han jendea handik eta hemendik ibiltzen da, hemen, berriz, lasaitasuna eta naturarekin kontaktu zuzena nagusitzen da. Toki bakoitzak bere berezitasunak ditu».

«Azkoitiako familiaren eta lagunaren falta» nabaritzen duela aitortu du, «nire ondokoekin gertukoa eta goxoa naizela esango nuke eta astebururo bisita egiten dieran egunerokotasunean, nola ez, faltan sumatzen ditut. Baina zorionez teknologiari esker eguneroko kontaktuan egoten naiz beraiekin, eta berdina ez den arren, herrimin hori pixka bat arintzen laguntzen du».

Hala ere, ez da hartutako erabakiaz «batere» damutzen; «Saldiasen lasai eta eroso nago, etxean sentitzen naiz, babes handia dut bertan. Jatorrizko familia eta lagunak Azkoitian ditudan arren nire lekua hemen dagoela esango nuke».

Gainera, bi herriak oso euskaldunak dira, «eta dudarik gabe nire bizitzan horrek garrantzia handia du. Inguru oso euskaldunetik nator eta zorionez hori mantentzeko aukera dut hemen ere».

Irakasle lanetan

Irakaslea da Illarramendi, eta 2020-2021. ikasturtean hasi zuen bere ibilbide profesionala; «Baztan Ikastolak eman zidan horretarako aukera eta oso eskertua nago, bi urte zoragarri igaro nituelako bertan. Egun, Donostiako eskola publiko batean ari naiz lanean, Haur eta Lehen Hezikuntzan egoten naiz, ingeleseko irakasle eta hizkuntza indartze lanetan».

«ALDERDI EMOZIONALAK EGITEN DU BEREZI GURE LANA»

«Betidanik» jakin izan du pertsonekin lan egingo zuela, «aurrez aurreko eta kontaktuko pertsona naizelako». Irakaslearena «hautzarotik oso presente izan dugun figura» dela dio; «mota guztietako irakasleak izan ditut eta bakoitzak nire ikaskuntza, interesak eta pertzepzioa nola baldintzatu zezaketen ohartu nintzen. Orduetik, irakaslea izan nahi nuela jakin nuen eta sinestean dudanarekiko gogor lan egiten saiatzen naiz».

Irakaskuntzaren argi-itzalak

Gustuko duen lanbidea bada ere, ez da beti erraza; «nire kasuan etxera eramaten dudana karga emozionala da alderdi zailena. Oso pertsona sentibera naiz eta ez dakit gauzak bere horretan uzten edo deskonektatzen. Beraz, askotan ikusi edo entzundakoak etxera eramaten ditut eta buruari buelta gehiegi ematen dizkiot». Baina,aldi berean, «horixe da gure lana hain berezi egiten duena, alderdi emozional handia duela. Beraz, esan dezaket ez dela gutxiengustatzen zaidana ere, alegia kudeatzen ikasi behar dudana erronka bat gehiago dela».

Haur ttikiekin lan egitean, irakastea ez ezik, heztea ere tokatzen zaio askotan; «tokian tokiko beharren arabera lan egin behar da eta horrek hainbat rol hartu beharra suposatzen du. Hala ere, heziketa bi norabidetakoa izaten da, beraiek gurekin ikasten baitute, baina baita guk beraiekin ere».

Irakaskuntza onaren gakoa «kalitatezko denbora eskaintzea» dela dio; «gure lanean erantzun bakar eta itxirik ez dagoela ulertzea ezinbestekoa da eta horretarako, konfiantzazko, goxotasunezko eta elkar entzuteko zein errespetatzeko gune eta momentuak lortu behar dira».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



IGANTZI. 85 m²ko pisu zaharberri-tua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajea-ekin. Argitsua. Interesatuek goiz eta arratsaldean deitu. ☎649 11 06 11.

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan apartamentua salgai, igogailuarekin. Sukaldea, egongela, jangela, bainugela eta bi logela erreka eta mendi aldera bistekin. 25 m²ko ganbara, barnetik apartamentuarekin lotuta dagoena. Prezioa: 100.000 euro. ☎678 26 84 44.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaez. ☎647 58 81 63.

ERRENTAN EMATEKO

ITUREN. Etxea errentan emateko. Bi logela eta bi bainugela ditu. ☎620 25 42 03.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Ostalaritzako negozioa eskualdatzeko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Cederna Garalur elkartearen laguntzarekin. Aparkatze leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

SALGAI

LEITZA. Garajea salgai. Ate automatikoa, ura eta hustubidearekin (*desagüe*). ☎629 21 59 46.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

Etxea egiteko baimena duen lur parzela salgai, 10.000 metro karratukoa. Iruritatik 10 minutura eta argia eta ura 100 metrotara duena. ☎669 00 62 38.

LANA

ESKAINTZAK

Frantsesa dakien pertsona bat behar da emakume batekin ibiltzen den bitartean elkarrizketa berrikusteko. Egunean ordu bat eta astean 3-4 egun gutxienez. Azarotik aurrera. Goizez. ☎669 33 61 88.

ARIZKUN. Betiko lantegian, langileak behar dituzte fabrikari aritzeko. Dei-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

tu edo idatzi produccion@betikopvc.com helbidera. ☎659 74 67 95.

Arti Berrin, Iruñean, lehen mailako ofizialen kategoria duen ile-apaintzailea behar dute, zortzi urte baino gehiagoko esperientzia duena. Apaindegi batez arduratzeko eta 2023ko urtarrean hasteko. Azken joerak dominatzen dituen. Erreferentziak eta fakturazioak eskatuko dira. Bidali curriculum: amagoia14@gmail.com. ☎636 18 15 46

ESKARIAK

Emakume bat lan bila. Adinekoak zaintzen eta ostalaritzan aritua. ☎643 04 37 34.

Neska lan bila. Etxeko lanetan, haurrak zaintzen, zerbitzari, garbiketara... aritzeko prest. ☎632 87 39 21.

BERA. 3 urteko haurra arratsaldetan zaintzeko zaintzailea behar dute, 16:00etatik aitzinera. ☎642 46 44 05.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Bi hilabete eta erdiko katakume batek etxea behar du. ☎650 79 76 69.



Katakumeak opari. Katakume biziak eta maitagarriak etxe bila. Zurekin eramanen? ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

SALGAI

ARANTZA. 15 ardi latxa muturgorri salgai. ☎680 52 44 90.



LESAKA. Setter arrazako bi zakur eme salgai, 2021eko urtarrean jaiokoak. Oilagorretan ibiliak. ☎677 59 48 92.



Baserrian jaiotako oilandak eta oilaskoak salgai, kanpoan ibilitakoak. ☎671 75 90 52.

Hiltzeko diren bi zerri salgai, 180 kilokoak bakoitza, mendian ibili direnak. ☎690 84 85 41.



Bi urteko behorra salgai, aita eta ama kalifikatuak. Urteko bi zaldiko ere salgai. ☎600 67 04 95.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurteko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,94
- 1.koa 4,82
- 2.koa 4,70

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,05
- 1.koa 4,91
- 2.koa 4,80

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 160,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,48/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,30/9,40
- 8-10 kilokoak: 7,40/8,10


ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,722 €

Zerramak 0,810€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 30etik urriaren 7ra bitarteko prezioak)



Altzaria salgai. 87 zentimetroko altuera, 111 cm-ko luzera eta 50 cm-ko sakonera. ☎637 11 59 31.



Lau gorpil salgai. Berriak. Neurriak: 205/70/R15/63. ☎630 71 78 30.



Bizikletako kasko integrala salgai. S1X S1X ONE marka, M neurria. Berria, estreinatu gabe. 155 eurotan. Kaskoaren funda opari. ☎606 04 25 11.



Bizikletako kasko integrala salgai. GIRO marka, S neurria. GOPROren-tzako euskarriarekin. Oso egoera onean, gutxi erabilia. 85 eurotan. Kaskoaren funda opari. ☎606 04 25 11.

BERTZELAKOAK

DONEZTEBE. Ostalaritzako negozioa eskualdatzeko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Cederna Garalur elkartearen laguntzarekin. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.


ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

MOTORRAK

TAILERRAK

URTEBETETZEAK



Beñat Portu Iraizozek 2 urte bete ditu urriaren 18an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guziaren partez.



Arantzako **Aimar Baleztena Goñik** 5 urte beteko ditu urriaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik.



Doneztebeko **Hegoi Arnedo Mitxelena** 6 urte bete ditu urriaren 12an. Aunitz urtez artista! Muso bat Doneztebe eta Iganztziko familien partez!



Arantza gure txantxiuak urriaren 18an urteak bete ditu. Aunitz urtez!



Aunitz urtez **Amaia!** Beratar donamariatuak urteak beteko ditu urriaren 24an. Ongi pasa zure eguna!



Berako **Adurrek** eta **Oinatze** urriaren 22an 9 urte beteko dituzte! Zorionak eta muxu potoloak familiaren partetik!!

EZKONTZAK

- **Mikel Etxeberri** eta **Maiana Berastegi**, Saran, irailaren 24an.
- **Heloise Jayat** eta **Mary Eve Magnier**, Saran, irailaren 24an.
- **Benoit Cabanel** eta **Mirentxu Ibargarai**, Saran, irailaren 24an.
- **Beñat Blanco** eta **Emilie Leizagoien**, Saran, urriaren 1ean.

HILBERRIAK

- **Jean Zubiri**, Sarakoa, irailaren 20an, 85 urte zituela.
- **Antoine Añorga**, Sarakoa, irailaren 23an, 93 urte zituela.
- **M^a Joxe Agirre Agirre**, Berakoa, urriaren 1ean, 74 urte zituela.
- **Segundo Rodriguez Gonzalez**, Lesakakoa, urriaren 2an, 93 urte zituela.
- **Angel M^a Irigoien Irungarai**, Doneztebekoa, urriaren 2an, 80 urte zituela.
- **Jose Fermin Lertxundi Agerre**, Elizondokoa, urriaren 2an, 77 urte zituela.
- **Carmen Baleztena Indakotxea**, Leitzakoa, urriaren 3an, 83 urte zituela.
- **M^a Josefa Agesta Larretxea**, Arantzakoa, urriaren 6an, 88 urte zituela.
- **Santos Lizasoain Perez**, Donamariakoa, urriaren 6an, 81 urte zituela.
- **Jose M^a Arraztoa Mendikoa**, Elizondokoa, urriaren 8an, 90 urte zituela.
- **Cristobal Zamorano Casado**, Lesakakoa, urriaren 9an, 97 urte zituela.

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduek aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diziplina grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

URTEURRENA



Jeronima GUILZU GAMIO
Zugarramurdin, 2021eko urriaren 2an, 95 urterekin

I. URTEURRENA
*Iraganik urte bat orain gan zarenetik
Segur guri beha zaudela zerutik
Ahizpa ere ondoan alegeraturik
Etzara behine partituko gure bihotzetik.*

ZURE FAMILIA



IZARRA
HEMEL, ZURE ONDOAN
AGUR, A TU LADO



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



BAZTAN BIDASOA
Heriotza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3


web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeko

HITZ GEZIDUNAK

	Emakume larra	Jainkoaren seme	Kanpo, landa	Berikoa	Pokaka, apurka
	Bizkaiko enkaaldia	Aranondoan fruitua	Italiako telebista	Hedabide mota	Lehenengo letra
Uhartea				Musika nota	10
Lage				la aseedin	1, eta 4, bokaluk
Amodio	Arabako herritarak				
+ Deitura	Zikola, sifoa			+ izena	
				Edukiera unitate	
Inatzea, garaia		Alderisinoa egiten da			Nitrogenoa
Gipuzkoako udalerrria		Sodia			Zeru
			Ahazti zikiritua		
			Bokalik ga-beko gozoa		
Erpeltibonena letinak	Harrizki mota			Konfio, bikoitza	Oinarriko edaria
Erran	Neona			Akuri	
		Akzilatu, xaxatu			
		Urna			
Momentua			Estekatu		Zirkonia
Zintzoa			1000		Nitrogenoa
		Haur		... sarfu, engainatu	

◆ Elizondoko errugbilaria

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Zirrikitua. [2] Gure lurraldeko herria, Baztanen. [3] Baionatik igarotzen den ibaia. [4] Eraikin baten hondamen egoera larri. [5] Urteko hamargarren hilabete. [6] Bizkaieraz, hiri. [7] Eremu hotz eta epeletako zuhaitz mota. [8] Laster, berehala. [9] Ainhoarren eskumutur. [10] Europako ekialdeko estatua. [11] Hirunako multzoetan.

ERANTZUNAK





GAU BELTZA

Apaindu eta margotu



GAZTAINA ERREAK,
ZER DELA ETA?

BIZIDUNEN ARTERA
GOAZ BISITAN ETA EZ
NUKE ESKU HUTSIK
JOAN NAHI



ENGAINAGARRIAK

Bederatzi zati hauetatik bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat irudi nagusiarekin.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiuerni)



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HALI GALI BELTZA DA!

KAKA!
EZ DUT
PUTZIK
IKUSTEN

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA
GOXOKIRIK
EZ AL DA
BATERE?



ISPILUTXO, ISPILUTXO...

Gau Beltzak duen magiaren eragina izanen da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi islatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

ZER OTE?

Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du?

Jarri marrazkitxo bekoitzari dagokion izena, hizkiz hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.



	A	B		
	G			R
			Z	
	H			X
	H	Z	D	
	K			L
	K			
			TZ	
	H		RR	
				
			T	A

LABIRINTOA

Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gaztaina baino. Zein ote da goxokietaraino eramaten dituen bidea? Aurki ezazu.



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

815 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
M^a Dolores Migeltorena Juanena | LEITZA
- Buatxabal - Kamiseta bat**
Miguel Mariezkurrena Mindegia | ERATSUN
- Barrutia 12 - Lote bat**
Elena Irigoien Irigoien | ERRATZU
- Ezkexa - Kamiseta bat**
Angel M^a Larralde Ibarrola | URDAZUBI
- Irrisarri Land - Sarrera bat**
Jone Telletxea Alzate | BERA
- Taberna edariak - Lote bat**
Milagros Jaimerena Etxebere | SUNBILLA
- Izar Park - Sarrera bat**
Clara Zelaieta Eltzaurdia | IGANTZI
- Txalaparta - Bi libur**
Asier Maritorena Azkarate | ANIZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

BIDASOIL

N-121A errepidea 74. Km. Behobia/Irun



30€ko deskontua

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA

Eliza karrika, 18 - Doneztebe



Azala zaintzeko produktuak

IZAR PARK

www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**MU
SI
KA**

Bi CD



MAUKA
MUSIKAGINTZA

www.maukamusik.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.tarttalo.eus



www.kimetzbelardenda.com